

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-09-08  
ASTELEHENA  
464. ZENBAKIA  
11. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.EUS  
TOKIKOM



TXOMIN MADINA

## Zortzi euskal eskultore, Arantzazun

'Amets-Kabi' izeneko erakusketa bateratua ireki dute Gandiaga Topagunean, 24 lanekin | 30

Danborradako batzordea osatzeko bilera egingo dute 10ean Oñatin | 18



Bailarako lau enpresabururekin etorkizunaz aritu da GOIENA | 7



Ordainduko kideek kanpaldia hasiko dute gaur Arrasaten | 6

## Gaurkoa ere jai eguna dute gatzagarrek

Asteburua ederto pasa eta gero, Otxandioko lagunaren urteroko bisita jasoko dute gaur, Andramari jaiak agurtzeko. | 12



Herriko umeak trenean ibili ziren Kiki, Koko eta Moko pailazoekin.

IMANOL SORIANO



Segurola eta Barrena, Legazpin. | 16

## Artzaintzaren eredu direlako omendu dituzte Legazpin

Atzo, Legazpin egindako Artzain Egunean omenaldia jaso zuten Maria Angeles Barrenak eta Nikolas Segurolak. Lehena, Arantzazun gazta saltzen emandako urteengatik saritu dute; bigarrena, Arantzazuko artzain eskolari eta gaztagintzari egindako zabalkundeagatik. | 5

### SINADURAK

|  |                             |
|--|-----------------------------|
|  | MARTIN JAUREGI   9          |
|  | 9   JON BEREZIBAR           |
|  | GAIZKA ERAÑA   15           |
|  | 18   JOSE LUIS MADINAGOITIA |
|  | KATALIN ANTIXIA   19        |
|  | 37   IMANOL GALLEGO         |
|  | XABIER ZUBIZARRETA   40     |

**Egin iezaiezu SCHOOL VISUAL TEST-a zure haurrei**

Erreflexuen aurkako lente fin eta apurtezinak dituzten betaurrekoak 97€

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

\*kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

**MULTIOPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan



# Motor klasikoan artean klasikoena, Debagoienekoa

- Gipuzkoako Erreal Moto Elkarteko motor zaharrena bergarar batek du
- Agustin Lazpiurrek 30 motor klasiko ditu, denak berak konponduta

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Gipuzkoako motor zaharrenak –eta dotoreenak– Debagoienetik pasatzen dira urtero-urtero, behin ere huts egin gabe. Martxoan izaten da hori; ospakizun eguna motorzale horiendako. Gipuzkoan, motorraren zaleen klub zaharrenetako eta, seguru asko, bazkide gehien ditueneko kideak dira: Gipuzkoako Erreal Moto Elkarte (Real Moto Club), 1915ean sortutakoa. Klub horretako bazkide dira motorra, bere barietate guztietan, maite duten hainbat gipuzkoar. Debagoien-darrak ere badaude tartean, nahiz eta kopuru zehatza klubekoek ere ez dakiten, baina bailarako jende dezente dagoe-la esan digute.

Bergararik buelta egiten duten zale horiek RMCKo Sekzio Klasikokoak dira, hau da, antzinako motorrak, klasikoak bene-

tan dituztenak. Eta horietatik klasikoena, zaharrena, bergarar batena da: Agustin Lazpiurrena, hain zuzen ere. 1928ko BSA Slo-

perrarekin joaten da irteera horretara, eta taldeko motor zaharrena da. Baina bergarar horrek badu oraindik motor

zaharragorik: 1906ko bat, Belgikan egindakoa eta oraindik primeran dabilena. Eta ez hori bakarrik: denetara, 30 motor ditu, 1906tik hasi eta 80ko hamarkada arte, ia hamarkada guztietako bat gutxienez. Hauxe dio hark: "Denak konpondu ditut neuk, eta denak dabilta". Urtero, urtarrilaren 1ean, banan-banan isiotu eta tailer inguruan buelta bat ematen du Agustinek motor bakoitzarekin, bat ere ez hondatzeko.

## Txatarrerako utzita

Zaletasuna betidanik du Agustin Lazpiurrek; motorrak eta automobilak, biak gustatzen zaizkio: "Aitak Bergarako taxilariari Opel autoa erosi zion, baina ordurako nik konponduta neukan nire lehenengo motorra", kontatzen du. Orduz geroztik, erosi dituen motor guztiak berak konpondu ditu. Kasu batzue-

tan, konponketa handiak egin dizkie: "Bati karburadore berria ipini nion; beste bat, Triumph Trident bat, txatarrerako utzita zegoen, eta hori ere konpondu nuen. Triumph Daytona bat Barzelonan erosi nuen; bi kaxatan sartuta zegoen, goitik behera desmuntatuta". Esan beharrik ez dago gaur egun primeran muntatuta eta edozein unetan arrankatzeko gertu dagoela.

Konponketak eta hobetze-lanak ez dira sekula bukatzen: 50eko hamarkadako Whizzer motor amerikarrari pieza berriak egin dizkio orain dela gutxi.

Tailerrean bertan berak egiten ditu motor bakoitzak behar dituen piezak. Izan ere, "80ko hamarkadako motorrendako, Ingalaterran badaude ordezkoko piezak, baina zaharragoendako, ez; neuk egin behar izaten ditut".

## Altuna garajekoek opari

Motor guztiei die maitasuna, eta bakoitza non eta nori erosi dion ondo gogoan dauka Agustinek: "Ossa Mick Andrews bat Irungo baserri baten zegoen eta dena konpondu eta martxan ipini nuen. Horrekin Bilbon, Gasteizen, Donostian... ere ibilita nago. Aretxabaletan moto-krosean ere ibilitakoa da motor hori", kontatzen du. Beste bat enpresan, Lazpiurren "errekaduak egiteko" erabiltzen zuten eta, hondatu zenean, "bazter baten" botata utzi zuten, Agustinek hartu eta berritu zuen arte.



JOSETXO ARANTZABAL

**IRTEERA** RMC taldeko Klasiko atalekoak, aurtengo martxoan Bergarara egin zuten irteeran. Ezkerretik hirugarrena Agustin Lazpiur da, 1928ko BSA Sloperaren ondoan; 90 km/h hartzen ditu.

# Euskaraz blai

**UDAL  
EUSKALTEGIAK**  
euskara klaseak

## 14-15

**IKASTURTEA**  
matrikula zabalik

## Informa zaitez!

### ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazubi plaza, 2  
(Eskola Politeknikoaren ondoan)  
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88  
Faxa: 943 79 91 43  
[euskaltegi@arrasate-mondragon.net](mailto:euskaltegi@arrasate-mondragon.net)

### BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Barrenkalea, 33  
(Irizar jauregia)  
Tel.: 943 76 44 53  
[berg.eusk@udal.gipuzkoa.net](mailto:berg.eusk@udal.gipuzkoa.net)

### LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4 Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 21 68  
Faxa: 943 79 92 62  
[leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net](mailto:leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net)

Intxaurtxueta 10 Eskoriatza  
Tel.: 943 79 21 68  
[leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net](mailto:leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net)

### BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA

Bidebarrieta, 18-behea Oñati  
Tel.: 943 78 24 96  
Faxa: 943 71 82 96  
[euskaltegia@oinati.net](mailto:euskaltegia@oinati.net)





ARGAZKIAK: LEIRE KORTABARRIA

**1906KO HARRIBITXIA** FN etxe belgikarreko motor horrek lau zilindro ditu. 1904an hasi ziren egiten modelo hori, eta oso fidagarritzat zuten. Arrakasta komertzial handia izan zuen.



**GUZZI HISPANIA** Espainian egindako motorra, Italiatik ekarritako diseinuarekin. Motorhispania etxea hasi zen horiek egiten 1948an.



**LAMBRETTA PATINETE** Eibarren Lambretta modelo asko egin zituzten, eta lehenengo egin zuten modeloko ale bat da berak daukana. 1954an hasi ziren Patinetea egiten.



**WHIZZER** AEBetako Whizzer motorra Bergarako Igartua zapatariari erosi zion Agustin Lazpiurrek. Modelo hori 1939an hasi ziren egiten. Pieza berriak egin dizkio Agustinek.



**NIMBUS** Danimarkan Fisker and Nielsen etxeak egindako Nimbus motor horrek lau zilindro ditu. 20ko hamarkadakoa da. Danimarkako motor ezagunena zen Nimbusa.



**BSA 500** Ingalaterrako BSA etxeko hiru motor ditu Agustinek, eta irudikoa da berriena, 1930ekoa. Irteeretara, 1928koa (500 cc) eta, batzuetan, 1924koa (250 cc) eroaten ditu.

Motor batzuk lagunei erosi-takoak ditu. Donostian, Bartzelonan, Bergaran bertan... erositakoak dira. Bateren bat opari hartutakoa ere bai; hori da NSU eder baten kasua: "Altuna garajea ibili nintzen lanean; negozioa itxi zutenean, motorra

oparitu zidaten".

Motorrez gain, automobil klasiko ezin ederragoak ditu bergarar horrek; tartean, 1930eko Packard bat eta Lasagabaster ehungintza-enpresarena zen beste bat. Hiru urte eta erdi eman zituen hori konpontzeko.

### 300 bazkide Gipuzkoan

Gipuzkoako Erreal Moto Elkartean 25 urtetik gora daroa bazkide izaten Agustinek eta ahal duen irteera guztietan joaten da. Badaude bi joera: batzuek moto berriagoak eta azkarragoak dituzte eta agudo joatea gustatzen

zaie; beste batzuek, Agustinek kasu, "polikiago joan eta gehiago disfrutatu" nahi izaten dute eta filosofia hori "zabaltzen saiatzen" dabilta klubean ere.

Klubak, bestalde, mendeurrena ospatuko du datorren urtean. Bi atal handi ditu: Kla-

sikoa eta Turismoa (errepideko eta mendiko motoak), eta txapelketetan-motokros, enduro, trial...- ibiltzen diren pilotu asko ere bazkide dira. Mari Jose Lekunberri ordezkariak dioskunez, 300 bazkide inguru dituzte, probintzia osoak.

# DEBAGOIENEN EUSKAL ESKOLA PUBLIK\* A

Zure  
etorkizunerako  
aukera guztiak

matrikulazio  
epea zabalik  
irailaren 1etik 15era

Guztion  
eskola guztion  
artean

## HELDUEN HEZKUNTZA MATRIKULA 2014-2015 ikasturtea

### EPA ARRASATE HHI

ARRASATE PASEALEKUA 1, 3 ETA 5  
Tel 943 77 11 72

I. GRADUA: ALFABETIZAZIOA / GAZTELERA / EUSKARA  
II. GRADUA: GAITASUN OROKORRAK SENDOTU  
III. GRADUA: BIGARREN HEZKUNTZAKO TITULUA (A eta D ereduak)

INGELES  
FRANTSESA  
INFORMATIKA  
ARTEA  
EUSKAL HERRIKO HISTORIA  
UNIBERTSITATERAKO SARBIDEA  
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDEA

### EPA BERGARA HHI

BARRENKALE 33  
Tel 943 76 44 52

I. GRADUA: ALFABETIZAZIOA / GAZTELERA  
II. GRADUA: GAITASUN OROKORRAK SENDOTU  
III. GRADUA: BIGARREN HEZKUNTZAKO TITULUA

INGELES  
FRANTSESA  
INFORMATIKA  
UNIBERTSITATERAKO SARBIDEA  
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDEA

goieskola

www.goieskola.hezkuntza.net



# MATRIKULA ZAITEZ

## Sareko Informatika Sistemen Administrazioa

Robotaren hari gabeko komunikazioaz, ordenagailu muntaiaz eta sistema eragileen instalazioaz arduratzen dira

## Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

Robota diseinatzen dute

## Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa

Robotaren atalak eta piezak fabrikatzen dituzte

## Automatizazioa eta Robotika Industrialak

Robotari autonomia ematen dioten elementuak instalatu eta programatzen dituzte

## Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak

Robotaren instalazio elektriko eta elektronikoaz eta energiaren horniketaz arduratzen dira

## Mekatronika Industrialak

Robotaren muntaiaz eta mantentze-lanez arduratzen dira

Lanerako gertu!

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP



[www.mondragon.edu/gmhz](http://www.mondragon.edu/gmhz)



# Ardi eta gazta artean igarotako bizitza omentzeko garaia

Maria Angeles Barrenak eta Nikolas Seguirolak artzain makila jaso zuten Gipuzkoako Artzain egunean

IMANOL GALLEGO | ARRASATE  
Artzaintza eta lehen sektorearen lana gertutik ezagutu eta behar duen bultzada emateko eguna izan zen atzokoa Legazpin. Horre-

tarako Gipuzkoa osoko ekoizleek euren produktuak eskaini zituzten, eta bailarako hainbat ordezkari ere bertan izan ziren. Horrez gain, Euskal Herriko gazta txapelketa-



Oñatiko Azkarreta baserrikoak ere izan ziren ferian. | IMANOL GALLEGO

ko ateak zabaltzen dituen gazta lehiaketa ere egin zen, baina bailarako ordezkariak ez zuten zortetik izan.

**Esfortzuaren ordaina**  
"Zailtasunak zailtasun, ardiekiko maitasuna sentitzen duenarentzat ez dago artzaintzatik bizitzea baino gauza ederragorik", esan zuen antolatzaileetako batek: "Lanbide soila baino, bizitzeko modu bat baita, barru barrutik sentitzen den zerbait".

Urtetan bizimodu horren eredu izan diren Maria Angeles Barrena eta Nikolas Seguirola omendu zituzten. Bi oñatiarrek irribarretsu, makila eta oroigarri bana jaso zuten. Barrenak Arantzazun gazta saltzen eman dituen urteak, eta Seguirolak artzain eskolari eta gaztagintzari egindako zabalkuntza saritu zituzten.

**Artzain txakurren lehiaketa**  
Gipuzkoako artzain txakurren lehiaketaren 46. edizioa ere egin zen, eta bertan, Jesus Mari Plazaola arrasatearrak *Lagun* txakurrarekin, eta Migel Arregi oñatiarrek *Mendi* eta *Gorri*-ekin hartu zuten parte. Arrasatearrak bigarren postua eskuratu, eta Euskadiko txapelketara joango da; oñatiarra, hirugarren zen.

M. ANGELES BARRENA  
ARTZAIN OMENDUA

"Orain ere lan handia egiten da, baina lehen gogorragoa zen"

Urtetanegin-dako lanaren ordaina dela esango zenuke?



Halako zerbait, orain ere lan asko egiten da, baina lehen bizitza gogorragoa zen.

**Zuretzat zer da gazta?**

Gazta? Beharrezko zerbait, eta nire kasuan ogibidea ere izan da.

**Zenbat urte egin dituzu gazta saltzen?**

Urte kopurua ez daukat gogoan, baina asko izan dira. Eguraldiari erreparatu gabe beti egon naiz Arantzazun.

**Seme-alabek zure ogibidearekin jarraitzeko asmoa dute?**

Ez, ez. Gaztagintza ez da bizimodu erraza, bakoitzak bere ibilbidea egin du.

NIKOLAS SEGUIROLA  
ARTZAIN OMENDUA

"Lan handia egin dugu gazta eta ardi latxa ezagutarazteko"

Merezitako omenaldia izan da.



Urteengatik bada bai. Lan handia egin dugu Idiazabal gazta eta ardi latxa ezagutzera emateko.

**Artzain eskolak bide horretan asko lagunduko zuen?**

Iaz, adibidez, lau probintzietako irabazleak eskolako ikasle izandakoak ziren. Ez dakit sari horietatik zenbait meritu dugun, baina horrelako albis-teak oso pozgarriak dira.

**Zenbat urte mundu honetan?**

Gutxienez, berrogeita hamar bat izango dira, eta horrelako uneetan pasarte asko etortzen zaizkit burura. Madrilen gazta txapelketa irabaztean, guregatik baino, Idiazabal gaztagatik poztu nintzen.

# Fagorren itxierak baldintzatu ditu Mondragonen iazko emaitza ekonomikoak

Nazioarteko salmentak %6,7 igo diren arren, taldearen negozioa %2 jaitsi da

I.G. | ARRASATE  
Estatu mailan oso testuinguru zailak markatu du 2013 urtea Mondragonek dioenez. Iazko testuingurua zaila izan dela gogorarazi du taldeak, Espainiako BPGa %1,2 jaitsi zela –hura du merkatu nagusia– eta hortik kanpo "aurrerapen motela" izan dela. Ondorioz, "merkatu nazionalaren atonia" esportazioekin konpen-tsatu du neurri batean. Guztira 11.582 milioi saldu ditu kanpo merkatuetan. Kooperatibatik azpimarratu dutenez, nazioartekotzekoa apustua "estrategikoa eta erabakigarria" izan da. Hedabideetara bidalitako oharrean taldeak nabarmendu

du negozioaren muina indartsu dagoela, bere Ebitda —irabaziak zergen, interesen eta amortizazioen aurretik— positiboa izan delako: 1.272 milioi eurorena izan da, salmenten %10,9a.

**Nazioartekotzea giltzarri**

Azken hamar urteetan bezala, 2013an ere nazioartekotzeko estrategiarekin aurrera jarraitu zuen Mondragon Taldeak bere arlo industrialean, batez ere. Esparru horrek bere ekoizpenaren %71,1 saldu du nazioartean, 2012an baino bi puntu gehiago, eta duela bost urte baino hamabi puntu gehiago. Merkatu berriak bilatzeko eta sendotzeko estrategian,

Euskal Herritik eta Espainiatik kanpo hamazazpi lantegi edo ezarpen berri egin dituzte Mondragoneko kooperatibek, Txinan, Brasilen, Indian, AEBetan eta Saudi Arabian, besteak beste.

Azken lantegi hauekin, kooperatiben multzoak 11.000 pertsona inguru enplegatzen ditu gure mugetatik at dituzten 122 lantegietan.

**Berrikuntzaren garrantzia**

Nazioarteko jarduerak markatutako ekitaldiari kooperatibek berrikuntzaren alde egindako ahaleginak gehitu behar zaizkio. I+G+B atalarekin dagoen konpromisoa 136 milioi eurora igo

zen, %8,5 balio erantsiarekiko. Korporazioak 15 erakunde elkartzen dituen zentro teknologiko eta I+G unitateen sare bat dauka, eta eskusiboki I+G gaietan diharduten 1.700 pertsona enplegatzen ditu. Horrez gain, kooperatiben multzoak asmakuntzako 467 patente familia ditu, eta horiekin 2013an 628 milioi fakturatu zituzten produktu eta zerbitzu berrietan.

**Fagorren pisua**

Fagor Etxetresnen erorketak ondorio txarrak eragin ditu Mondragonek sortzen duen enplegu kopuruan. Kooperatiben multzoak, 74.061 langile dituela jakitera eman arren, iaz emandako datuekin alderatu ezker 6.260 lanpostu galdu direla ikus daiteke. Erorketa etxetresnen atalaren erruz da, hori aintzat hartu gabe lanpostuei eustea lortu duelako (%0,1 gehiago).

Datu ekonomikoetan ere Fagorren pisua nabari egiten da. "Termino homogeneoetan", hau da, Fagorren itxiera kontuan hartu gabe, guztira 11.582 milioi saldu ditu taldeak nazioartean, 2012an baino %2 gutxiago. Iaz emandako datuekin alderatuz gero, berriz, 1.321 milioi gutxiago dira (-%10).

**Azaroa, erabakigarria**

Azaroa hilabete erabakigarria izango da talde kooperatiboaren-dako. Izan ere, eguna zehaztu gabe dagoen arren, hil horretan egingo duten kongresu kooperatiboan hurrengo urteetako lan ildoak aurkezteaz gain, barne organigrama berria eta lan filosofia berritua ere azalduko dituzte. Egun berean Fagorri buruzko txosten bat aurkeztuko dute.

# Eskolarako materiala batu nahi dute sozialistek

M.B. | BERGARA

Debagoieneko Gazte Sozialistek eskolarako materiala batzeko kanpaina abiatu dute. Hilaren 11ra arte izango da eta parte hartu nahi dutenek Arrasateko Casa del Pueblora – Martxoaren 8a kalea, 1 behea– eraman beharko dute materiala. Gero, batutako guztia Gurutze Gorriari emango diote beharra duten familien artean banatzeko.

**Gutxien dutenei lagundu**

Alex Molina gazteen Idazkari Orokorrak esan duenez, Gazte Sozialisten helburuen artean dago gizarte proiektuak egitea "errekurtso gutxien duten familiek hainbeste zailtasun izan ez dezaten".

Bidalitako oharrean gehitzen duenez, bizi dugun krisiaren ondorioz, "familia asko oso gaizki pasatzen ari dira seme-alabek eskolarako ezinbesteko duten materiala erosteko. Boligrafoak, arkatzak zein koadernoak bezalako gauza oinarritzakoak, luxuzko material bihurtzen dira horiek edo janaria erosi aukeratu behar dutenean".

Horrekin guztiarekin, Debagoieneko Gazte Sozialistek dei egiten diete Debagoieneko herritarrei kanpainen lagun dezaten.



Mondragon taldearen egoitza nagusia. | IMANOL GALLEGO



# "Espiritu ekintzailea" duten gazteen bila ari da Mondragon Unibertsitatea

'Etorkizuna Elkarrekin Eraikiz' ekimena jarri du abian, 25 urtera arteko gazte tituludunendako

J.B. | DEBAGOIENA

Mondragon Unibertsitatea "espíritu ekintzailea" duten gazteen bila ari da, "etorkizuna elkarrekin eraikitze"ko. Izan ere, MUK *Etorkizuna Elkarrekin Eraikiz* (E3!) ekimena jarri du abian. "Proiektuaren abiapuntua da Debagoiengan pertsona gazteen kapital sozial handi bat dagoela, prestakuntza tekniko eta unibertsitario handiz hornitua, eta esperientzia ekintzaileak protagonizatze gaitasunarekin", diote MÚtik.

Honakoak dira ekimen berri-tzailean parte hartu ahal izateko baldintzak: unibertsitateko titulua izatea, 18-25 urte artean egotea eta Lanbiden izena emanda egotea.

**Mondragon taldeko enpresak**

E3! deritzon ekimenak hainbat esparrutan parte hartzeko aukera eskainiko du. Bideragarritasun teknikoaren eta merkatuaren ebaluaziora orientatutako proiektu egituratu bat sortzeko aukera eskainiko du, besteak beste. Ekimenaren ezaggarri berezia da "gazte tituludunen jarduera ekintzailea eta Mondragoneko enpresen ekintzailetza prozesuak" elkartuko dituela, "prozesu sinergiko eta egituratu baten esparruan", adierazi dutenez.

Hainbat enpresa ere daude tartean eta gazte ekintzaile guztien kontratazioa Lanbidek egingo du, enplegu bulegoaren bitartez.

## Mendizalea hil zen atzo Kurtzebarrin bihotzekoak jota

Atzo, domeka, eguerdian, 79 urteko Derioko gizonezkoa hil zen Kurtzebarrirako bidean zihoala. Ertzaintzak emandako datuen arabera, bihotzekoak jota hil zen.

Eguerdiko 12:00ak alde-ara gertatu zen ezbeharra Aretxabaletako mendirako baso-bide baten. Ertzaintzak gehitu duenez, ondoezik sentitu zen eta larrialdi zerbitzuetara deitu zuten, baina ezin izan zuten ezer egin haren biziagatik.

## Stirling kongresua Bilboko Euskaldunan, irailaren 24tik 26ra

Mondragon Componentesek eta korporazioko Stirling zentroak antolatuta, efizientzia energetikoari eta teknologia berdeei buruzko ezagutza eta aplikazioak konpartituko dituzte Bilboko kongresuan, irailaren 24tik 26ra, eta Stirling teknologian "munduko elitea" batuko da Bilbon, antolatzaileen esanetan. Jaur-laritzako eta Diputazioko ordezkari- gain, Paul Verhoef, Energia Berri eta Berritzaileen Europako komisarioa, eta Carlo M. Bartollini, Stirling Internationaleko presidentea ere hantxe izango dira, besteak beste.



Asier Blas EHuko irakaslea eta politologoa. | A.B.

Asier Blas | EHUKo Politika eta Administrazio Zientzien irakaslea

# "Ukrainan milioi bat errefuxiatu egon arren, hedabide gehienek ez dute hori aipatzen"

Euskal Herria-Donbass komiteak eta Askapenak antolatuta, hitzaldia eskainiko du etzi Arrasaten

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Asier Blas EHUKo irakasleak saioa eskainiko du etzi Arrasateko Irati tabernan (19:00). Ukrainak bizi duen egoera zailaz egingo du berba, "ahal den neurrian" iritzi politikoak alboratuz.

**Zein izango da hitzaldiaren helburua? Zertaz egingo duzu berba?**

Saioak bi helburu ditu: batetik, ahal den neurrian iritzi politikoak alboratuz Ukrainan orain arte gertatutakoa azaltzea, hedabide gehienek baztertu edota manipulatutuzten gertaerak mahai gaineratuz; eta bestetik, ukrainar krisia testuinguratuz, erakutsiko dugu krisia erraz aurrean zite-

keela nazioarteko politika eta herrialdearen barneko estatu-na- zio eraikuntza arazoak ulertuz.

**Gertaerak "baztertu edo manipulatut" direla diozu. Zergatik?**

Mendebaldeak Batman izango balitz bezala saltzen du bere burua. Gero hor dabilta Joker, Pinguino, Asmakizuna... Horiek guztiak

## "Mendebaldeak Batman balitz bezala saltzen du bere burua"

tirano batzuk dira, etsaiak, gaizkia. Ume paradigma horretan gustura asko mugitzen dira hedabide gehienak, Mendebaldeko potentzien ikuskera erosi edo inposatu zaiena, baina batzuetan paradigma hori saltzea oso zaila da zure aliatuak, kasu honetan Kieveko gobernu kolpistak, demokraziaren aurka egiten badu, ideologia politikoak jarraitzen baditu, erabakitze eskubidearen aurka bonbak, erailketak eta gerra erabiltzen badu, zibilak erailtzen baditu, miloi bat errefuxiatu eragiten baditu... Errealitate hori azaldu behar bada, Batman Joker edo Pinguino bilakatu daiteke eta hori ez dute inolaz ere nahi Mendebaldeko hedabideek.

Bestalde, Errusiako Estatuak bere ekonomia berrantolatze gaitasuna erakutsi ostean, mendebaldeko estatuak eta horien zerbitzura dauden hedabideek errusiar usaina duen oro estigmatizatu dute, etsaiaren izaera humanoa ia ukatu arte.

**Baduzu gatazkak utzi dituen datu- ren bat ematerik?**

Zenbaketak egitea zaila da, baina NBERen arabera milioi bat errefuxiatu inguru daude, inoiz Europan II. Mundu Gerraren ostean emandako errefuxiatu uholde handiena da. Hala ere, hedabide gehienek apenas dute denbora eta espaziorik errealtate hori aipatzeko. Zergatik? Errefuxiatu ia guztiak Ukraina ekialdekoak direlako, gehienak Kieveko gobernuaren eta horien zerbitzura daude eskuin muturreko talde paramilitarren bonbardaketetatik eta erasoetatik ihes egiten duten herritarrak direlako, eta Kieveko gobernu kolpista Mendebaldeko estatuen aliatua da. Hildakoak milaka kontatzen dira, baita zibilak ere, eta gehienak, noski, ekialdeko ukrainarrak.

**Zerbait gaineratzerik nahi?**

Moral bikoitz eskandalagarri batekin kritikatzeko dela gogorki Errusiak egin eta egin ez dituen ekintzak. Aldiz, berdinak edo antzekoak Mendebaldeak egiten dituen txalotu, ezkutatu edo era askoz ere epelagoan kritikatzen dira.

# Ordainduko plataformak kanpaldia antolatu du Arrasaten, gaurtik hasita

Mondragon Taldearekin negoziazioak hasia da euren lehen helburua, diotenez

MAIALEN TORRES | ARRASATE

Ordaindu plataformako kideek gogor ekin diote ikasturte berriari. Euren helburuak lortzeko bidean, Mondragon Taldearekin hitzordua finkatzea dute hurrengo jomuga, eta haiekin negoziazioak hasia.

Helburu hori lortzeko, ekintzaz betetako ikasturte hasiera prestatu dute. Besteak beste, gaur bertan hasita, kanpaldia egingo dute, eta bertan ahalik eta kaltetu gehien biltzeko asmoa dute. Mikel Olabe Ordainduko

kideak azaldu duenez, Bizkaiko Eskuratu plataformarekin batera antolatu dituzte datorren astekeko ekintzak.

Helburu oinarritzakoena da, Olaberen esanetan, negoziazio mahai bat lortzea Mondragon Taldeko arduradunekin.

**Esperantza urratsak emateko**

Astelehenean, prentsaurrekoarekin emango diote hasiera kanpaldiari Arrasateko Arimazubi plazan, 11:00etan. Egunero bertan egongo dira, goiz eta arratsalde

-17:00ak arte-. Ondoren, Mondragon Taldearen egoitzara martxa egingo dute, beste behin ere Mondragoneko arduradunei plataformaren aldarrikapenak helarazi eta negoziatzeko hitzordua eskatzeko. Hortik aurrera, ekintza gehiago ere izango dira, datorren astean eta hurrengoan zehar banatuta. Ekintzon helburua da negoziatzeko lortzea eta horretarako "ahalik eta jende gehien" batzea "garrantzitsua" dela diote.

Olabek gaineratu du badute la esperantza aurrera pausoak



Ordaindu plataformakoak, egunean egindako kale agerraldian. | MAIALEN TORRES

emateko: "Kooparibismo etiko batek ezin du bere gain halako iruzurra mantendu eta kooperatibismo sozialaren aldeko apustua egin nahi badute, gurekin duten arazoa konpondu beharko dute".

Hasierako lan ildoekin jarraituko dute, hau da, instituzionala-kontseilu sozialarekin biltzea, besteak beste-, judiziala-euren defentsa lantzeko- eta mobilizazioekin segitzea.



# Egoerak hobera egin duen arren, zeruak lainotuta jarraitzen du

Bailarako lau enpresatako arduradunekin egon da GOIENA krisiaren bilakaeraz eta azken hilabeteetako adierazle ekonomikoek marraztu duten egoeraz euren iritzia jakiteko

J.B./T.M. | ARRASATE

Ekonomiaren garapenaren inguruko datu kontrajarrak eman dira jakitera azken hilabeteetan. Espainiaren kasuan, 2014ko bigarren hiruhilekoan %0,6 egin du gora ekonomiak, baina, epe berean, Euroguneko herrialde indartsuen emaitzak ez dira bide beretik joan. Frantzia, BPGa ez aurrera eta ez atzera dago, eta Gobernuak iragarri du ezingo duela aurten defizitaren helburua bete.

Alemanian eta Italian bestalde, jaitsiera %0,2koa izan da. Italiaren kasuan, gainera, berriz ere atzeraldian sartu da. Horrek guztiak, Euroguneko ekonomia ez haztea ekarri du.

## Debagoienean, zer?

Ibarreko lau enpresatako arduradunek egun bizi duten egoeraren eta ekonomiarekin lotutako azken datuen inguruko galderak erantzun dizkiote GOIENARI.



Xabier Berasategi. | X.B.

**XABIER BERASATEGI**  
TTT ENPRESAKO ZUZENDARI OROKORRA

## "Arduragatik, enpleguarekiko konpromisoa mantendu dugu"

**1.** "Badirudi Espainian ekonomia berriz aktibatzen ari dela; baina industrial den gure inguruko ekonomiaren kasuan, saltzen dugun herrialdeen hazkunde industrialari begiratu behar diogu gehiago. Alemania eta Frantzia, esportatzen dugun merkatu nagusiak, haztea komeni zaigu. Salmentetan, erreperazio arina nabari dugu, aurreko urtearekin alderatuta ia berdin mantendu arren. Ez dugu lortzen krisiaren aurreko salmentak erreperatzea, eta gainkostuak hazten joan dira: lehiakortasuna galtzen jarraitzen dugu".

**2.** "Merkatuen dibertsifikazioak eta nazioarteratzeak lagundu digute krisia saihesten. Sektore aeronautikoan salmentak igotzeak eta Frantziako bezeroen presentzia handiagoak beste sektore batzuetako salmenten galera konpentsatzen lagundu digute hein baten. Ezin da esan krisitik irteten garenik: pixkanaka salmentak erreperatzen ari diren arren, ekoizteko ahalmena eskaeraren oso gainetik dago. Lan-karga jaitsi den arren, unearen larritasunaren aurrean, arduragatik, enpleguarekiko konpromisoa mantendu dugu".

**3.** "Oraindik ezin dugu ondorioz atera, baina adi egon behar dugu makro-datuen garapenari eta esportatzen dugun herrialdeetako salmentei. Salmentak pixkanaka erreperatzen doazen arren, ez da lanpostu berririk sortuko guztiz erreperatu arte, betiere, geratzen diren enpresak bideragarriak eta lehiakorak badira".



Jose Creixell. | J.C.

**JOSE CREIXELL**  
HIJOS DE JUAN DE GARAYKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO KIDEA

## "Marjinak nabarmen murriztu dira, eta zenbait kasutan, ezerezean geratu"

**1.** "Aurten bai nabaritu dugu aktibitatearen tirakada handia: automobilaren sektorea berriz ere aktibatu da Espainian, eta batez ere, nazioarteko merkatuetan. Kontrapartida moduan, aktibitatearen hobekuntzak ekarri du salmenta prezioen jaitsiera orokorra. Ondorioz marjinak nabarmen murriztu dira, eta, zenbait kasutan, ezerezean geratu. Gehiegizko eskaintza dago, eta, egoera normaldu arte, automozioaren merkatuak ezartzen dizkigun prezio baxuak onartu beharko ditugu".

**2.** "2008ko azken hiruhilekoan hasi ginen nabaritzen krisia, eta 2013 bukaera arte mantendu da. Egin ahal izan dugun aldaketa bakarra izan da gastuak murrizteko neurriak hartzea; baina ez dira nahikoa izan salmenten jaitsieraren aurrean. Hala, egun dugun zorpetze mailak ez du inolako antzik iraganean izan dugunarekin. Horrelako egoera zailen amaieran, akaso ohikoa ez den erantzukizuna hartu dugu gure gain; ohikoena da nork bere buruari bakarrik begiratzea".

**3.** "Abuztuan Europatik datorren zurrumurruak zabaldu arren, oraingoz, ez digu eragin. Halere, ezin ditugu zurrumurruok alde batera utzi: azkenengo aldian ere genioen burbuila inmobiliarioa eta finantza krisia ez zirela hona helduko, Ameriketako Estatu Batuetako kontua zela. Alertan gaude, gorabehera hutsa bakarrik izatea espero dugun arren".



Aitor Goikoetxea. | JOKIN BEREZIARTUA

**AITOR GOIKOETXEA**  
CERRAJERA VALLE LENIZ-EKO ZUZENDARI OROKORRA

## "Gakoak berrikuntza, internazionalizazioa eta barne prozesuaren hobekuntza izan dira"

**1.** "Bai, hobekuntza igarri dugu. Gorakada bat izan dugu estatu mailako salmentetan".

**2.** "Negozio estrategiari dagozkionez, krisiak salmenten jaitsiera garrantzitsua eragin zuen arren, krisia hasi aurretiko hiru ardatz estrategikorekin jarraitzen dugu lanean: berrikuntza, internazionalizazioa eta barne prozesuaren hobekuntza. Bestalde, kudeaketa ereduari dagokionez, lehendik aplikatzen ari ginen eredu mantendu dugu, langileen parte-hartzean oinarritzen dena. Lanpostuak mantentzea lehentasunezko irizpidea izan da guretako eta malgutasuna bilatzen saiatu gara. Horrela lortu dugu Enplegu Erregulazio Espedienterik ez eskatzea eta kaleratzerik ez aplikatzea. Maila guztietan komunikazioa eta gardentasuna landu dugu".

**3.** "Merkatu horien gorabeherak ez digute larregi eragiten. Merkatu horietan eraikuntzan oinarritzen den industriak ez du gorabehera handirik izaten garai onetan zein txarretan. Bestalde, Alemania bereziki krisian egoteak alde ona izan dezakeela deritzot, Euroaren devaluatzea ekarriko duela uste dut-eta. AEB, Txina, Japonia eta Erresuma Batua moneta devaluatzen edo devaluatuta izaten saiatu dira, baina Alemania ez. Alemaniak, ezin hobeto zihoanean, ez zuen moneta devaluatzeko beharrik ikusten eta horrek lehiakortasuna murrizten zigun besteei".



Santi Agirregoikoa. | ELAY

**SANTI AGIRREGOIKOA**  
ELAY TALDEKO ZUZENDARI OROKORRA

## "Gure bezeroak ondo kokatuta daude eta egoera egonkorra aurreikusten dugu"

**1.** "Gure bezeroak Europan daude, batez ere Alemanian, eta bertan ekoizten diren autoak mundu zabalean saltzen dira. Hortaz, onerako zein txarrerako, Espainiakoarekin baino lotura estuagoa daukagu Alemaniako egoerarekin. Hala ere, hobekuntza igarri dugu, adibidez, banke txeez erakusten duten konfiantza mailan".

**2.** "2009 eta 2010 izan ziren urterik gogorrenak, bat-batean merkatuaren %40 galdu genuen. Egoera horri erantzuteko denon esfortzua beharrezkoa izan da. Enplegu Erregulazio Espediente bat jarri genuen martxan, eta aldi berean, gure esfortzu komertziala biderkatu genuen lan gehiago lortzeko. 2010ean bukatu zen gure EREa hurrengo bi urteetan ere sufritu ostean, egun egoera normal baten ari gara lanean. Ez genuen egitura aldaketa handirik egin baina krisiaren ostean talde sendoago bat gara, zorrotzagoak akatsen aurrean eta helburu orokorrak lehenesten ditugu helburu partikularren gainetik".

**3.** "Krisi aurreko zifretara bueltatu gara eta hor mantentzea espero dugu 2015ean ere. Nahiko zuhurrak gara etorkizuna aztertzerakoan, eta ez dugu aldaketarik aurreikusten. Izan ere, gure bezeroak oso ondo kokatuta daude mundu mailan; hori bai, alarmak piztuta ditugu eta bezero zehatz batzuen joerak arretaz jarraitzen ditugu. Beraz, egoera egonkor bat aurreikusten dugu".

**1.** Espainiako adierazle ekonomiko positiboak igarri dituzue?

**2.** Nola egokitu zarete krisira?

**3.** Bigarren hiruhilekoan Alemania, Frantzia eta Italiak izan dituzten datuek nola eragin ahal dizue etorkizunean?





Alustiza, Arrasateko Emunen egoitzaren sarreran. | J.B.

Eider Alustiza | Emun

# "Hiztunen motibazioa euskalgintzan pil-pilean dagoen erronka da gaur"

- Emunek motibazioari buruzko topaketa egingo du Donostian etzi
- Erakundeen eta enpresen esperientzien arteko trukea izango da

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Erabileraren berebiziko gakotzat jo du euskalgintzak motibazioa. Euskararen ezagutzaren azken hamarraldietako hazkundeak talka egiten du erabileraren geldotzearekin. Euskal hiztunaren profila ere errotik aldatu da eta euskalgintza estrategia, jarrera eta jokabide berriak esploratu beharrean da. Hortik jota, *Moti+Batu* topaketa egingo dute Donostian eguaztenean eta egue-nean. Adituen interbentzioekin lantaldeak egin eta motibazioaren askotariko saihetsei helduko die. Unibertsitate, enpresa, erakunde zein hezkuntza alorreko kideek hartuko dute parte. Emuneko berrikuntza arloan diharduen Eider Alustiza antolaketa-ko kide izan da.

**Motibazioa mantra berria bilakatu da euskalgintzan?**

Gaia zabala da oso, benetan. Laburrean, erabileran areagotzeko motibazioan eragin behar dela esaten dugu. Gaia xehatzen hasiz

gero, alderdi pila bat dago. Topaketan guk horietako batzuk planteatu ditugu, baina ziur asko askoz gehiago daudela. Euskalgintzako hainbat esparrutan egin da jada motibazioari dagokionez ibilbide bat, lan munduan, aisialdian... Horregatik, asmoa da gaiari xehetasun handiagoz heletzea, esparru askotako jendea elkartuz nork bere esperientziatik pauso gehiago emateko.

**Motibazioa oso psikologikoa da; esparru berria da hori euskalgintzan?**

Esperientzia geroago eta zabala goa da eta iritsi da puntu bat gauza sakonagoetan gaudena eta topo egiten dugu beste diziplina batzuekin, gizarte psikologia edo psikologia bera edo beste hainbat. Alor bakoitzetik probetxugarriena zaiguna hartzen dugu.

**Agortuta daude gaur arteko estrategiak?**

Euskararen erabilera datuek esaten digute orain arteko ibilbideak leku batera eraman gai-

tuela eta badirudi tope batzuetara iritsi garela. Tope horiek gaintzeko zer egin behar dugun pentsatu beharra dago.

**Eta planik badago?**

Egoera berrira egokitzeko gaiak birformulatu egin behar dira, gaur egungo euskaldunen profila ez da eta duela 30 urtekoa. Hezkuntzan egin den politikaren ondorioz – D eredua – ezagutza handitu egin da eta datuek diote

familia erdaldunetatik datozen hiztunak gailentzen hasi direla, hezkuntzan euskaldundutakoak.

**Zer da "hiztun bezala legitimitatea ematea"?**

Aipatutako formulazio berri horietako bat da, aztertzen ari dena. Planteatzen dena da ea hiztun berri batek hizketan hasteko pausoa eman dezan, guk hari legitimitatea aitortuz gero, ez ote duen urrats hori azkarrago egingo. Aitortza horrek hiztun berriari maila psikologikoan lagundu egiten dio. Niri gertatu zitzaidan, adibidez, bilera baten euskara ikasten zebilen pertsona batekin. Euskaraz trabatu egiten zen etengabe eta iradoki zuen agian onena gaztelerara aldatzea izan zitekeela. Nik ezetz esan nion, berdin zela hitzen bat gaztelaniaz esan edo akatsen bat egiten bazuen euskaraz jarrai zezala, arazorik ez nuela. Sekulako esfortzua zen beretzat, baina ahalegin hori aitortzen diozu. Sekulako zama

**"Une honetan topo egiten dugu gizarte psikologiarekin edo psikologiarekin"**

**"Gaur egungo topeak gaintzeko formula berriak behar dira"**

kendu niola esan zidan, akatsak egiteko beldurra kenduta.

**Hain zuzen, topaketan jarrerei buruz jardungo duzue, ezta?**

Bai, baina gomendio edo gida bat egin barik parte-hartzaileen arteko esperientzia trukea izango da; guztion *matraka* baita motibazioaren gaia. Pil-pilean dagoen erronka da euskalgintzan. Talde dinamiken bidez elkarrekin zer-bait sortzea da helburua.

**Parte-hartzaileen zerrenda luzea eta askotarikoa da, hain zuzen ere.**

Propio egin da; antolaketan Emun ez den bestelako erakundeetako lagunek parte hartzea nahi zen. Gai bakoitza dinamizatzen Emuneko kide bat eta beste erakunde bateko beste bat egongo da, gai zehatz horretan esperientzia duena. Administrazio esperientziak daude, euskalgintzako elkarteena, irakaskuntza, psikologia, Osakidetza... Kataluniako esperientzia ere ekarriko dugu.

**Jarraipenik izango du topaketak?**

Emaitza argitaratu egingo dugu, azaldu moduan alor askotako esperientziak batuko dira-eta. Planteatzen diren irtenbideak argitaratu egingo dira. Berrikuntza irekia deritzon horretan egingo da topaketa. Emunetik saiatzen gara urterotako proiektuaren bat horrela egiten eta erakundetik kanpoko parte-hartzaileen kolaborazioan datza hori.

**"Hiztun berriari legitimitatea aitortuta, azkarrago emango du pausoa"**

**"Berrikuntza irekian erakunde kanpoko partaideekin egiten da lan"**







# Goiena Klubeko iraileko zozketak!

Goiena Klubeko bazkidek irabaz ditzakezuan sariak hauek dira. Hartu parte!



## Telebista

32 hazbeteko LG  
Telebista.

Parte hartzeko sariaren izena:  
Telebista

Arrasateko hipermerkatua



**EROSKI**  
zurekin



[www.harremandenda.org](http://www.harremandenda.org)  
Bidezko Merkataritzako produktuak

### Otarra

**Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra**

Parte hartzeko sariaren izena:  
Otarra



**ARRIKRUTZ**  
oñatiko kobak

### Arrikruz sarrerak

**Arrikruz kobak bisitatzeko 6 sarrera zozketatuko ditugu.**

Parte hartzeko sariaren izena:  
Arrikruz



**Argia**

### Argiako jokoak

**Atlantika 2 joko**

Parte hartzeko sariaren izena:  
Jokoa

### PARTE HARTZEKO:

**SMS:** KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

**Telefonoz:** 943 25 05 05

**E-postaz:** [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)

**WhatsApp:** KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.  
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



# HERRIAK

ONATI

## Erromes leku izaten jarraitzen du Arantzazuk

- 1918 urtetik da Gipuzkoako zaindaria Arantzazuko Ama
- Autobus zerbitzu berezia egongo da bihar Oñati eta Arantzazu artean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Arantzazuko Ama birjinaren irudia aurkitu zutenean Oñati eta Arrasateko jendea izan zen lehen Arantzazura erromes joaten. "Orduan bijili antzerakoa egiten zuten hemen, eta Arriarango Joana etorri zen Oñatitik laguntzai-

le batzuekin serora lanak egin eta bijili egiten zuten herritarrei babesa ematera", azaldu du Iñaki Beristain frantziskotarrak.

Ordutik, erromes leku da Arantzazu, eta herri askotatik antolatzen dituzte erromesaldiak. Bihar, esaterako, Arantzazuko

Amaren egunean urtero egiten den moduan, Oñatiko erromesaldia izango da. 07:00etan abiatuko dira Foruen plazatik. "Erromesaldiek gorabeherak izan dituzte. XVIII. mendea oso betea izan zen. Suteak izan ziren, eta Arantzazuk indar handia hartu zuen. XIX.

ean beherakada izan zuen eta basilika berria egin zutenean berriz gailurra jo zuen. Jubilo urtea egin zen 1956an, basilika bukatuta zegoela, eta erromesaldi handiak eta bereziak egin ziren. Orduan hasi ziren herrietatik etortzen. Egun, gero eta gutxiago

etortzen dira, bai, baina normala ere bada, gizartea aldatzen ari da-eta. Arantzazuren eskaintza erakargarria egitea tokatzen zai-gu guri", dio Beristainek. 1952tik 1967ra, mutilen (gauez) eta nesken (egunez) erromesaldiak ere egiten ziren eta bakearen alde eginda-koek ere jende asko elkartu dute Arantzazun.

### Frantziskotarren greba

Instituzioen presentzia Arantzazun ere aspaldikoa da. 1918. urtean izendatu zuten Gipuzkoako zaindaria, eta orduan instituzioetako ordezkari guztiak Arantzazun zirela dio Beristainek, militarrek zein zibilak: "Orduan Estatuko ordezkari moduan etortzen ziren, Elkarte Autonomoak osatu gabe zeuden-eta". Ikurrinaren garaian sesioak izan zirela ere kontatu du Beristainek: "Garai hartan Espainiako ereserkia jotzen zuten Arantzazuko Amaren eguneko meza nagusian, konsagrazioa ematen den unean. Hala, urte baten ereserkia jotzen zuten organo jotzaileek eta teologia ikasten ari ziren ikasle batzuek greba egin zuten".

Erakundeetako ordezkariak irailaren 9an Arantzazun egoteak zeresana sortu du behin baino gehiagotan. Horren aurrean, frantziskotarrek eurekin berba egitea erabaki zuten. "Erabaki genuen harrera elizan egitea. Horrela, ordezkari politikoak sarreran elkartzen dira, baina guk eliza barruan egiten diegu harrera. Meza nagusia bukatzean, agurra egiten die gotzainak", argitu du Beristainek.

### Bihar ere bai

Bihar ere Arantzazun izango dira Iñigo Urkullu lehendakaria, Bakartxo Tejeria, lebiltzarreko presidentea eta Gipuzakoako Foru Aldundiko eta Oñatiko Udaleko ordezkariak. Meza nagusia ere, ohi moduan, Gipuzkoako gotzainak emango du, Jose Inazio Muni-lak, 12:00etan. Presoen aldeko elkarretaratzea ere egingo da meza aurretik, Ettxeratek deituta. Autobus zerbitzu berezia egongo da Oñatitik Arantzazurako joan-etorria egiteko.



Manuel Valencia gobernadore zibila, 1965ean. | ANDRES ARLANZON FUNTSA (GURE GIZPUZKOA)



Gipuzkoako bandera eramaten, 1967an | ANDRES ARLANZON FUNTSA (GURE GIZPUZKOA)



Emakumeen erromesaldia, 1971n. | ANDRES ARLANZON FUNTSA (GURE GIZPUZKOA)



Murua, Ardantza eta Garaikoetxea, 1987an | ANDRES ARLANZON FUNTSA (GURE GIZPUZKOA)

Bere teknologiarekin gozatu eguneko 24 orduetan

**FORD FIESTA**

SYNC AppLink paketearekin | **8.690 eurogatik**

**MUGARRI AUTOAK**

Arrasate  
Araba etorbidea z/s  
tel.: 943795664

**Ford Fiesta gama: batez besteko kontsumo konbinatua 3,6-5,9 l/100 km. CO2 emisioa 95-139 g/km.**

Fiesta 3 ate, SYNC Edition 1.25, 60 ZP (44 kW) Techno SYNC AppLink paketearekin (eskuako aire giroailua, irati-CD-MP3a eta SYNC AppLink konektibitatea). Eskaintzaren barne daude BE2a, matrikulazio zerga, garraioa, promozio-deskontua, kontzesio-ekarpena eta deskontua FCE Bank PLC SEn finantzatzearen bidez. Ford Credit kanpainaren bidez (24 hilabeteko gutxienezko itaupen-konpromisoa). Gobernuaren Pive planaren ekarpenaren mende. Penintsulan eta Balear uharteetan balagaria hilaibetea bukatu arte. Ez da bateragarria beste deskontu batzuekin. Ikusten den modeloek ez dauka zertan eskaintutako izari. [Ford.es](http://Ford.es)



# Egunotan Leintz Gatzaga herri handi bihurtzen da

Asteburuan primeran pasa eta gero, gaurkoa ere jai eguna dute gatzagarrek

IMANOL GALLEGU | LEINTZ GATZAGA

Bailarako herri txikiena den arren, jaietan bisitari ugari jasotzen ditu, "gu kanpoan bizi gara, baina urtero etortzen gara", dio herria aspaldi utzi zuen gatzagar batek. Jaiak ospatzeko dira eta ospakizun handi guztiak familiarekin egiten direnez, Gatzaga familia handi bat da.

Adin askotako umeek batera jolasten dute, taberna kanpoko elkarriketetan hizlari berriak batzen dira, txosna bilkura gunetik bilakatzen da...

## Guztiendako jaiak

Txikiek lehenengo, eta nagusiek ostean, guztiak izan dute ondo pasatzeko arrazoi ugari. Egubakoitzean, etxafuegoak lehertu zirenerako herriko gaztetxoek algara ozen entzuten zen. Bonba

japoniarrak eta apar festa izan zuten eta ondoren rock jaialdiaren txanda iritsi zen.

Bigarren egunean mus eta briska txapelketaren txanda izan zen eta horren ondoren bolo lehiaketa izan zuten. Azken honetan urdaiazpikoa Marinera joan zen, Iñaki Arresek lortu zuen eta lehen postua. Dударик gabe baina, hitzordu jendetsuena herri afaria izan zen. Bertan herritarrak batzeaz gain, herriko produktuak dastatu zituzten.

Domekan, aldiz, Arrasate Musikaleko bandaren kalejira eta kontzertua, senior eta jubenil mailako pilota txapelketako finalak eta Dorletako santutegian nobena izan zuten.

Gatzagarren indarra eta festarako gogoia zalantzan jartzen duten horiek, jakin dezatela herri-

ko hotelean egubakoitzeko festa zapatuko goizean amaitu zela.

## Gaur ere jai eguna

Gatzagan oraindik bada zer ospatu. 11:00etan Otxandixokoei ongi-etorria egingo diete. Ordubete beranduago Dorletako santutegian meza nagusia izango dute. Santutegian gainera, Eskoriatzako abesbatzaren ahotsak entzun ahal izango dira. Eguna borobiltzeko herri kirol erakustaldia izango dute plazan.

Erretiratuek, zapatuan bazkari batekin agurtuko dituzte aurtengo Andramari jaiak.

## Argazkiak ikusteko:

eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Gaztetxoek herriko jaiak apar festa batekin hasi zuten, siku ez ziren irtengo, baina argi da...



Batzuek goming-a ere egin zuten.



Gazte bat bonba japoniarren zain.



Gaztetxoek ederto pasa zuten pailazoekin.



21 parte hartzaile ba...

**aek**  
euskara praktikoa

30 urtean  
50.000 lagunek  
ikasi dute jadanik  
euskara gure  
100 euskaltegietan

**eman izena**

Esperientzia. Metodologia. Gertutasuna. Modulazioak. Efikazia.

Ikasleak    Martxo praktikak    Berraberiak    On line    Autodidaktak    Normalizazio planak    Titulu berraberiak

**aek**    673 200 100    946 464 000    [www.aek.eus](http://www.aek.eus)

## MATRIKULA ZABALIK, IRAILAREN 30A ARTE

Bekak Arrasateko Udalaren laguntzarekin.  
Jubilatuak, langabetuak eta ikasleak  
**%50eko beherapena**  
matrikula egiterakoan.

**DEBAGOIENKO AEK**  
Garibai etorbidea 14, 3  
Tel.: 943770369-607605879  
[facebook.com/debagoieneko.aek](https://facebook.com/debagoieneko.aek)  
[twitter.com/debagoienekoAEK](https://twitter.com/debagoienekoAEK)

**ORDUTEGIA:**  
Goizez: 10:00-13:00  
Arratsaldez: 17:00-20:00



**MARISA ZUBILLAGA**

"Adin honekin eguerdi eta arratsaldea festatan ibiltzearekin nahikoa dugu, baina primeran pasatzen ari naiz. Bueno, gauean ere irten naiz, baina gaupasak antzinako kontuak dira".



**ROBERTO OTAZU ETA GANIX OTAZU**

"Jaietan beti ondo, baina seme-alabekin gauean irtetea zaila izaten da, horregatik egun osoa kalean ematen dugu. Etxeko txikiei logura sartu arte festez gozatzen saiatzen gara".



**MAITE GARCIA DE SALAZAR**

"Eskoriatzarra naiz, baina urtero etortzen gara. Ikasturte hasiera honetan heritik irtetea ideia ona dela uste dut. Zoritzarrez etxera bueltatu behar dugu eta ez dugu parrandarik egingo".





go ederto pasa zutela.



Herri afarian, janaria ez ezik, umorea ere ugari egon zen.



Kalejira egin ostean, Arrasate Musikaleko bandak ikasturteko lehen emanaldia egin zuen.



atu ziren bolo txapelketan.



Egubakoitzeko rock jaialdiak jende asko batu zuen. | ARGAZKILARIAK: ISORIANO, J. ARANTZABAL



**EDURNE MARTELO, AIORA ELKOROBARRUTIA, AINARA ZUBILLAGA, BEATRIZ ALVAREZ ETA IRATI AZPEITIA**

"Dudarik gabe afari herrikoia da hitzordu kuttunena. Hemen herri guztia batzen gara eta ederto pasatzen dugu. Gero erromeriara gerturatuko gara, baina gu txintxoak gara eta ez gara biharko herri gosarira iritsiko, ordurako ohean egongo gara".



**KEPA URRA GURIDI**

"Primerako festak dira hauek. Mus txapelketan, boloetan, tabernetan... oso giro polita egon da eta herri afari hau izugarria da. Afalostea bukatu eta gero, erromeriara joango gara".

## IKASTURTE BERRIAREN HASIERA!!!

BASLIDA



### INGELESA

- PET.
- FIRST.
- ADVANCED.
- Irailetik aurrera, ikastaro trinkoak prezio ezin hobean!
- Azterketak Arrasaten bertan, Bastida akademian egiteko aukera.
- IRAILEAN INGELESEAN IZENA EMAN, ETA **MATRIKULA DOAN** IZANGO DUZU.

### ESKOLA PARTIKULARRAK

- Lehen Hezkuntza
- Bigarren Hezkuntza
- Batxilergoa
- Ingeniaritza
- Enpresa Ikasketak

### INFORMATIKA

- Word.
- Excel.
- Access.
- Power Point.
- Mekanografia.
- Internet.
- Sistema eragileak.



Araba Etorbidea, 3 - 1 • 20500 • Arrasate • Tel.: 943 79 35 33  
bastida@bastida.es • www.bastida.es



## ARRASATE ETA BERGARA

# Erantzun ona izan zuten atzo Arrasaten eta Bergaran egindako merkealdi azokek

Saltzaileak, oro har, pozik daude jende nahiko ibili zelako



Saltokiak Arrasateko Biteri plazan. | I.S.



Erosleak Seminarioko karpan azken maukak ikusten. | I.S.

M.B. | ARRASATE

Iraila aurrera doa eta denboraldi azken maukak aprobetxatzeko aukera izan zen zapatuan Arrasateko Ibai-Arte eta Bergarako Bedelkar dendarien elkarteek egindako merkealdi azokekin.

Arrasaten 35 bat saltokik hartu zuten parte. Erdigunekoek denda aurrera atera zituzten saltgaiak; erdigunetik kanpokoak, berriz, Biteri plazan egokitutako karpan jarri zuten saltokia.

Galdetutako dendariak pozik zeuden herritarren erantzunarekin: "Eguraldi ona eginda uste genuen igual jendea kanpora joango zela, baina ez, jendea ibili da eta saldu dugu".

## Seminarioko karpan

Begararen kasuan, denda aurrean baino, Seminarioko karpan egokitu dituzte dendariak aurten, lehenengoz, saltokiak. 17 bat dendak hartu zuten parte zapatuan eta han ere pozik zeuden. "Goizean jende nahiko ibili da, eguerdian moteldu egin da, baina arratsaldean berriz animatuago egon da azoka", azaldu zuen saltzaile batek baino gehiagok. Kokapen berriari dagokionez, "aproposa" iruditu zitzaizen "eguzkiak, bereziki goizean, asko berotu" zuen arren.

## ARRASATE

# "Guretako ametsa zen txalaparta Udalatxen jotzea eta egi bihurtu da; konpartitua, gainera"

M.B. | ARRASATE

Txalapartaren taulak, makilak eta jatekoa lepoan hartuta, 60 bat lagun abiatu ziren zapatuan Arrasateko Ttakun taldeak antolatutako *Udalatxparta* ekitaldira.

Paraje ezin ederragora, Udalatxera igo ziren, eta gailurrean jo zuten txalaparta; baita albo-ka eta panderoa eta bertsotan egin ere. Gorka Zubizarreta

Ttakun taldeko kideetako batek esandakoaren arabera, ametsa egi bihurtu zuten zapatuan: "Ekitaldia uste baino hobeto aterata da. Sare sozialetan asko hedatu zen deialdia eta Arrasateko jendeaz gain, Bergara eta Aretxabaletatik ere etorri dira. Taldearendako ametsa zen Udalatxen jotzea eta egi bihurtu da; konpartitua, gainera", esan zuen.



Gazte bi txalaparta jotzen Udalatxen gailurrean. | GORKA ZUBIZARRETA



## BISITA GIDATUAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN JAUREGIAN

Ezagutu jauregiaren historia eta aretoek gordetzen duten ondare artistikoa

Taldea osatu eta eskaera egin  
[info.gipuzkoa@gipuzkoa.net](mailto:info.gipuzkoa@gipuzkoa.net) helbidean



[www.gipuzkoa.eus](http://www.gipuzkoa.eus)

## ONATI



IMANOL SORIANO

## Deabrua ere Atzeko kalen

Erraldoi eta txorimaloekin dantzari eman zieten hasiera oñatiarrek Atzeko kaleko jaiei egubakoitzean, eta domekara arte ez zuten atsedetik izan. Zapatuan gustura bazkaldu ostean sokamuturra egin zuten; domekan, txirrindulari proba ostean, etxafuegoekin eman zieten amaiera jaiei.

## BERGARA



JOSETXO ARANTZABAL

## 67 barazki plater banatuta

Bertako baserritako barazkien azoka eta dastatzea egin zuten atzo, domeka, Bergarako San Juan auzoan. Jende asko gerturatu zen eta antolatzaileek azaldu dutenez, "prestatutako guztia, 67 plater" saldu zituzten. Lerrootatik eskerrak eman nahi dizkiete barazkiak emandakoei.





K-Stretch deritzon jarduera doan probatzeko aukera egongo da ate irekietan, besteak beste. | IRATI GOITIA

# Ate irekiak kiroldegian, jarduerak doan probatzeko

Bihar hasi eta eguenera arte irekiko dituzte ateak herritar guztiendako

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Bihar hasi eta eguenera arte ate irekiak egingo dira Musakolako kiroldegian: spinning, k-stretch, zumba, nordic walking, aqua-running, pilates... Lekua ziurtatzeko plaza erreserba daiteke kiroldegira deituta (943 77 16 77) edo bertara hurbilduta.

Herritarrek askotariko jarduerak doan probatzeko aukera izango dute eta gainera, ikasturte berrian begirale lanetan ari-tuko direnak bertan egongo dira jardueren gainean edozein zalan-tza argitzeko.

Igeriketa saioak umeendako

Bestalde, haurtxoendako igeri-keta ikastaroak eskari handia izan zuen iaz eta horregatik zoz-keta bat antolatu du Udalak sei hilabetetik 4 urtera arteko umeen-dako. Zozketan parte hartzeko kiroldegian eman behar da izena; izen-emate epea zabalik dago irailaren 16ra arte. Udaleko Kirol Sailaren arabera, abonatuak lehenatasuna izango dute.

Irailaren 17an jakinaraziko dituzte behin-behineko zerrendak eta hilaren 22an egingo da behin-betiko zozketa.

Udako kanpaina amaitzeaz

Aste honetan amaituko da udako denboraldia. Udalak lehen aldiz barruko eta kanpoko igerilekuak irekiko ditu egun berean, gaurtik egubakoitzera arte; barrukoak goizez -07:00etatik 14:00etara- eta kanpokoak arratsaldez -14:00etatik 20:30era-. Hilaren 13an eta 14an, berriz, barruko igerilekuak bakarrik egongo dira zabalik, 10:00etatik 20:30era. Udalaren arabera, neurri horrek "gainkar-ga ekonomiko" bat suposatuko dio baina astebeterako denez, merezi duela baloratu dute.

# Irailaren 26ra arte eman daiteke izena plazako dantza tradizionaletarako

Herrixa Dantzan urriaren 6an hasiko da; izena emateko, AEDn, Gazte bulegoan edo e-postaz

J.B. | ARRASATE

Portaloi kultur elkarteak plazako dantza tradizionalen ikastaroak antolatu ditu 2014-2015 ikastur-

terako. Saio horien helburua da Euskal Herriko plazetan ohikoak diren dantzak ikastea eta ondo pasatzea. Ikastaroa helduei dago



Herrixa Dantzan ekimenaren saioetako bat. | GOIENA

zuzenduta eta bi maila eta dantza -txoko iraunkorra eskainiko dira. Orain arte moduan Patxi Mon-tero izango da irakaslea.

Dantzaldi irekiak Uarkapen

Izena emateko epea zabalik dago hilaren 26ra arte, eta hiru bide daude izena emateko: AEDn, Gazte bulegoan edota [herrixadantzan@gmail.com](mailto:herrixadantzan@gmail.com) helbide elektronikora idatzita.

Lehen mailako ikastaroa eguaztenetan izango da 19:30etik 21:00etara; bigarren mailakoa, astelehenetan emango da, 18:00etatik 19:30era; eta, bukatzeko, dantza-txokoak astelehenetan (19:30-21:00) zein eguaztenetan (18:00-19:30) izango dira. Dantza ikastaroak urriaren 6an hasiko dira eta maiatzera arteko irau-pena izango dute, 30 saiorekin. Eskolak Zerrajera zenaren erai-kinean izango dira.

Ikastaroez gain eta horien osagarri moduan, Herrixa Dantza dantzaldi irekiak ere izango dira hilean behin, urritik maiatzera. Saio horiek Uarkape pilotaleku-tako tabernan izango dira.

# Euskal presoen aldeko Elkartasun Eguna dator

Zapatuan egingo da; aurten ere egitarau zabala, eta zuzeneko musika protagonista

J.B. | ARRASATE

Euskal presoen aldeko bedera-tzigarren Elkartasun Eguna egingo da zapatuan, hilak 13. Antolatzaileek egun osorako egitaraua prestatu dute aurten ere: umeendako jolasak eta graffitia herriko artistekin (11:00), kontzertuak 21 taberna-tan -13:00etan, 17:00etan eta 18:00etan hasita-, bazkaria (14:30), euskal preso, errefuxia-tu eta iheslarien eskubideen

aldeko manifestazioa Herriko plazatik irtenda (20:00) eta kon-tzertuak gaztetxean (22:00). Bazkarirako txartelak Irati, Monte eta Amaiur tabernetan daude salgai, 12 eurotan, eta antolatzaileen arabera, ez dira txartel larregi geratzen. Gaueko kontzertuan Los Galerna, The Potes, RPL eta egunerako propio sortutako Elkartasun Taupadak taldeek joko dute. Sarrera bost euro izango da.



Dirty Brothers zuzenean iaz, Hodei Beitiaren kolaborazio eta guzti. | I. SORIANO

## Irailaren 21eko Bizipoza jaialdirako sarrerak bihar jarriko dituzte salgai, eguerditik aurrera

Irailaren 21ean Arrasaten egingo den Bizipoza jaialdirako sarre-rak bihar bertan jarriko dira salgai. Sarrerak pirata-zapiak izango dira eta Elkar dendan zein Gazte bulegoan egongo dira salgai bost eurotan; hilaren 19ra arte egongo da txartelok eros-teko aukera. Irrien Lagunak Klubeko txartela duten haurrek sarrera doan izango dute eta guraso zein helduek ez dute ordain-du beharko jaialdian parte hartzeko.

## NIRE USTEZ

GAIZKA ERAÑA



## Fan eta ezin bueltau

Biajiak egitteko modu asko ezauketan dittuau: hegazkiñez, bizikletaz, trenez, ... baiña bada bat berezixe dana: kamelluen egitten dana. Gutako askok kamelluek leku sikuetan dauzela pentsetan dou baiña ez da beti hola izeten.

Hemen be eta geure gazte denporan, 80. hamarkadien, holako fristixak ezautu geuen zaldi eta hauts artien majo ebiztenak. Kamellu haretxei esker hamaika arrasatearrek betira-ko biajie egin ahal izan euen eta beste horrenbeste *hies*-ari ekin eutsien. Orduen be ohikue izaten zan kamelluren bat edo beste tiroz akabatie biajiak España pagetan ei zittuelako.

Gaur egun kamelluek be bertan dauzkau inguruen, zaldixa bihar-rian, hautse, pastillak, alkohola eta kalamua saltzen daue barra barra. Lehenauko lekue-tan ibiltzen die: tabernetan, kalien... Eta baita be ikastola eta eskola aurretan. Kirol elkar-teetan dabitzenak be badauz: 15 urteko neska mutikuei hau-tse probetan emun eta gero behin engantxaute dauzenien negoziua egin dauenak. Geure herrixetan fan eta ezin bueltau ibilli dan jentie beti egon da, kontue da eta estadistikei kasu egin ezkeru bueltau ezinke dabi-tzen gaztien zenbakixe gora egin dauela (AGIPADeko web-gunia) eta alkohola eta kala-muaren kontsumuai garrantzi-xa kendu dutsegula.

Biajatzeko kamellurik gura?

"Egun kamelluek be bertan dauzkau, kalamua saltzen"



# Bihar, martitzena, irekiko dituzte ludotekak

Agorrosingoa 4 urtetik gorako umeendako da; Osintxukoa, berriz, auzoko umeek erabiltzen dute

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Bihar, hilak 9, zabalduko dituzte Agorrosin Ekintza Guneako ludoteka eta Osintxukoa.

Agorrosingo ludotekari dagokionez, 4 eta 12 urte arteko umeei eskainitako aisialdi zerbitzua da, astelehenetik egubakoitzera, 17:00etatik 20:00etara.

Jardun euskara elkarteak kudeatuko du eta gaztetxoek aisialdia modu hezitzailean eta euskaraz disfrutatzeak aukera izango dute.

Interesa dutenek bihartik aurrera izango dute izena emateko aukera Jardun elkartearen egoitzan –Errotalde jauregia–. Prezioari dagokionez, urte osoa 50 euro ordaindu beharko dira ume bategatik; 44 euro, bigarrenagatik; eta hirugarrenetik aurrera debalde izango da.

Aurten, baina, hiruhilabetero ordaintzeko aukera ere ematea erabaki du Udalak, Agorrosindik Oxirondo azokara lekualdatuko delako urtarilean ludoteka eta horrek plan aldaketa eragin dezakeelako erabiltzaileengan.

Hiruhileko kuotari dagokionez, ume batengatik, 20 euro ordaindu beharko dira; bigarrenagatik, 18 euro; eta hirugarrenetik aurrera, dohain izango da.

## Askotariko jolasak

Iazko bi begiraleak arituko dira aurten ere Agorrosingo ludotekan, Amaia Osa eta Itziar

Lete gazteak, eta umeekin batera askotariko ekintzak egingo dituzte.

Hain zuzen ere, gurasoekin elkarlanean programatutako ekintza sorta izaten dute, hala nola eskulanak, jolas kooperatiboak, ur jolasak... Iaz lorategia ere egin zuten. Baina horrekin guztiarekin batera, astean

behin, umeek eurek aukeratu-tako jolasetan aritzeko aukera ere izaten dute.

## Osintxukoa ere bihar

Osintxuko ludotekari dagokionez, hori ere bihar, martitzena, zabalduko dute, auzoko neska-mutikoei zerbitzu emateko asmoz.



Umeak Agorrosingo ludotekan jolasean begiralearekin batera. | JARDUN EUSKARA ELKARTEA

## Deba ibaia auzolanean garbitzeko deialdia egin dute urriaren 18rako

M.B. | BERGARA

Deba ibaia garbitzeko auzolana antolatu du aurten ere Erreka Garbitzeko Batzordeak. Urriaren 18rako egin dute deialdia eta herritarron parte-hartzearen garrantzia azpimarratu dute.

Batzordetik azaldu dutenez, "aseguru kontuak direla-eta ezinbestekoa da izena ematea". Horretarako lau bide daude: Udaltzain-

goan, kultura etxean zein Agorrosin Ekintza Gunean dauden inprimakiak beteta. Horrekin batera, [errekgarbitzeko@gmail.com](mailto:errekgarbitzeko@gmail.com) helbidera ere idatz daiteke mezua. Izena emateko azken eguna urriaren 6a izango da.

## Iaz 350 lagun

Iaz ere urrian egin zen Deba ibaia garbitzeko auzolana. Osintxun



Herritar multzo bat iaz ibaia garbitzen. | JOSETXO ARANTZABAL

hasi eta Elorregiraino 350 lagun aritu ziren hamazazpi lantaldetan banatuta.

Lan handia egin zuten eta Erreka Garbitzeko Batzordeak oso balorazio positiboa egin zuen. Hala ere, "leku batzuetan motz" geratu zirela aurreratu dute. Hori horrela, aurten herritar gehiago batzea nahiko lukete: "Iaz asko elkartu ginen, baina, hala ere, leku batzuetan motz geratu ginen... Zenbat eta gehiago elkartu, orduan eta lan gutxiago izango da, giro aberatsagoa, eta hobeto ibiliko gara", esan dute.

## Hizkuntza taldeetan izena emateko epea zabalik dago

Iazko erantzuna ikusita antolatu ditu Udalak berriz, hizkuntzak ikasten ari direnei laguntzeko

M.B. | BERGARA

Herrian hizkuntzak ikasten ari direnei beraien ikaskuntza prozesua errazteko asmoz, tresna bat gehiago eskainiko die aurten ere Udalak: hizkuntza taldeak, hain zuzen.

Normalean, hizkuntzak ikasten ari direnek hizkuntza hori praktikatzeko zailtasunak izaten dituzte, eta Udalak laguntza eskaini nahi die iaz lehenengo aldiz antolatu zuten eta erantzun ona izan zuen ekimenarekin.

## Izen-ematea zabalik

Izen-ematea gaur, astelehena, irekiko dute eta irailaren 26a izango da azken eguna. Horretarako hiru modu daude: kultura etxera joanda, 943 77 91 60 zenbakira deituta eta [www.bergara.net](http://www.bergara.net) webgunean.

Hain zuzen, izena emateko orduan galdetuko dute zein hizkuntza eta zein ordutegi eta egun aukeratzeko dituen parte-hartzaileak. Taldeak astean behin eta ordubetez batuko dira. Bestalde, taldeak autonomoak

izango dira; ez da irakaslerik egongo akatsak zuzentzeko, ezta mintzapraktika bideratzeko ere.

Taldeak astero arduradun bat izendatuko du, hurrengo asterako eztabaidarako gai bat hautatu eta taldekideei aurkezteko –egunkariko albiste bat, gai orokor bat...–. Hala arduradun horrek gai horrekin lotutako hiztegi espezifikoak, esamoldeak... landuko ditu taldekideei aurkezpenera egin ahal izateko.

Bestetik, taldeetan sartzeko ez da mailaketa probarik egingo. Hasiera batean, izena ematen duen edozeinek parte hartzeko aukera izango du, hizkuntza maila edozein dela.

Taldeak gehienez zazpi lagunenez eta gutxienez lau lagunenez osatuta egongo dira.

## Taldeen aurkezpenera

Taldeak aurkezpen bilera Irizar jauregian izango da irailaren 30ean, 18:30ean. Taldekideek elkar ezagutuko dute eta gero eurek erabakiko dute non elkartu nahi duten.

## Gaur, astelehena, hasiko du ikasturtea Orfeoi Gazteak

M.B. | BERGARA

Orfeoi Gazteak gaur, astelehena, egingo du ikasturte hasierako batzarra. Santa Marina parrokiako sakristau etxean izango da, 20:15ean, eta interesa duten 13 eta 18 urte arteko gazteek ateak irekita izango dituzte. Izan ere, talde ederra osatu du ikasturte berrirako Orfeoi Gazteak, baina "oraindik

ere gazte gehiago animatzea" nahiko luketela aurreratu dute, eta azpimarratu dute ez dela beharrezkoa "musika irakurtzen jakitea".

Nagore Sanz izango da zuzendaria ikasturte berrian ere, eta entseguak astelehenetan egingo dituzte, 20:15etik 21:45era, Santa Marinako sakristau etxean.



Orfeoi Gazteko zenbait kide aurten egindako topaketa baten. | I.S.



# Ezkurak beharrean, kantakizun eta kontakizunak ematen dituen haritza Errotalde parkean

- 'Bertsolharitza', ipuinak eta bertsoak batzen dituen ikuskizuna eskainiko du Ibai Esoain bertsolariak
- Neska-mutikoak bertsolaritzaren munduan murgiltzeko aukera egubakoitzean, 18:30ean

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

5 eta 11 urte bitarteko gazteei zuzendutako ipuin kontaketa egingo da egubakoitzean Errotalde parkean, kultur etxe kanpoko parkean, 18:30ean. *Bertsolharitza* izenpean, Ibai Esoain bertsolariak kontakizun eta kantakizunak ekarriko ditu Bergarara eta neska-mutikoak bertso eta ipuinen unibertsoan murgilduko ditu oriotarrak.

Esoainek argitu duenez, ikuskizuna haritz baten inguruan mamitzen da; haritzaren fruituak ezkurak izan beharrean hitzak dira eta horiek oinarri bezala hartuta kontakizunak sortuko ditu Esoainek. Neska-mutikoek haritzak emandako hitzen artean gogokenak aukeratuko dituzte eta ostean, ipuin kontaketa forma hartzen joango da.

Ipuinen artean baina, bertsoak tartekatuko ditu Esoainek, izan ere, *Bertsolharitza* ikuskizuna neska-mutikoei bertsoen mundua modu jostagarri batean helarazteko eta gaztetatik bertan murgiltzeko asmoz sortu zen.

## Errotalde parkeko haritz berria

Hiru urte inguru daramatza Esoain haritzaren inguruan bertsoak eta kontakizunen magia Euskal Herriko neska-mutikoei helarazten, eta egubakoitzekoa izango da Debagoienean egingo duen lehenengo saioa. Bertsolariaren arabera, saioak leku itxietan hobeto funtzionatu ohi du, hala ere, Errotaldeko parkekoa ere ondo joango delako ziurtasuna du; parkean hitzen haritza etxean bezala sentituko delako.

Ipuin kontaketa izango da ikuskizunaren muina Esoainek argitu bezala, hala ere, kontakizunak kantu eta bertsoekin alaituko ditu neska-mutikoen parte-hartzea bultzatuz.

## Haurrentzako eskaintza

Jardun Euskara Elkarteak antolatutako saioa izango da egubakoitzekoa, baina *Bertsolharitza*-z gain, Maite Franko ipuin kontalaria udal liburutegian izango da irailaren 26an, egubakoitza, saio bikoitza neska-mutikoei eskaintzeko gogotsu.



Ibai Esoain hitzak ematen dituen haritzaren ondoan. | LANKU.COM



Neska-mutikoak *Bertsolharitza* saioa jarraitzen. | LANKU.COM

IBAI ESOAIN  
BERTSOLARIA

"Bertsolaritza modu jostagarrian neska-mutikoei helarazteko proiektua da"

Bertsolari oriotarrak hiru urte daramatza *Bertsolharitza* ikuskizunarekin.

## Nola sortu zen 'Bertsolharitza'?

Printzipioz, bertsolaritza neska-mutikoei bide jostagarri batetik hurbiltzeko bide bezala sortu genuen Bertsolharitza. Ikusten genuen bertsolaritza hainbat arte motekin bat-egin zela; tartean musikarekin edo arte eszenikoekin esaterako, Beraz, gazteentzat bideratutako zerbait egitea bururatu zitzaigun eta ipuin kontaketa antzeko hau sortu zen, ipuinetan txertatzen ditut bertsoak.

## Umeek aukeratzen dute istorioa?

Umeen parte hartzea bultzatzen da; haritzak hitzak ematen ditu eta hitz horietatik gogokenak aukeratzen dituzte neska-mutikoek. Horien arabera egiten dut gero kontakizuna, gaztetxoek aukeratutako hitzak dira istorioaren abiapuntua.

## Beraz, inprobisaziotik badu?

Egia esan nahiko lotuta joan ohi da saioa, hala ere, beti dago zer aldatu. Umeen parte hartzearen arabera ere saioak ezberdinak dira. Normalean toki itxietan hobeto funtzionatzen du, baina Errotalde parkean ere ondo pasatuko dugu.

# ariznoa elkarte

## 2014-2015 KURTSO HASIERA

### Lehiaketako kategoriak (5. mailatik gorakoak):

irailaren 5ean, 18:00etan, Labegaraitan

### Aurre-benjaminak I (2009an jaioak):

irailaren 18an, 17:30ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan

### Aurre-benjaminak II (1. eta 2. mailetakoak):

irailaren 18an, 18:15ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan

### Benjaminak (3. eta 4. mailetakoak):

irailaren 18an, 19:00etan, Ipintza batxilergoko gimnasioan

### Antzuolako taldea:

irailaren 17an, 14:30ean, frontoian



### Matrikula berrientzako bilera informatiboa

Irailaren 11n, 18:00etan, Ipintza batxilergoko gimnasioan

### Harremanetarako: ariznoa\_ge@hotmail.com

690 394 492 telefonoa (10:00-13:00 eta 17:00-20:00 ordutegian)

Iraila osoan zehar  
ATE IREKIAK Ipintzan.

Etor zaitez  
gu ezagutzera!

<http://ariznoaelkarteabergara.com>



# Danborradako batzordea osatzeko bilera etzi da

Kultura etxean egingo da, 19:00etan



2012ko San Migel jaietako danborrada nagusia, Foruen plazan. | GOIENA

O.E. | OÑATI

Batzorde bat osatu gura da nagusien danborrada antolatzeko. Danborradan parte hartu gura duten taldeen ordezkariak osatuko dute batzordea. Datorren eguaztenean da horretarako bilera, 19:00etan, kultura etxean. Batzorderik sortu ezean, ez da danborradarik egingo.

## Delaldi zabala

Datorren eguaztenean, irailak 10, egingo da bilera irekia kultura etxean, 19:00etan. Aurtengo nagusien danborradan parte hartu gura duten talde guztiak daude deituta bilerara. Helburua da talde bakoitzak ordezkari bat izendatzea batzordeko kide izateko. Hala, ordezkarien talde horrek, batzorde horrek, koordinatuko du aurtengo nagusien danborrada, guztien artean adostuta. Batzordea sortzen ez bada, aurtengoa ez da nagusien danborradarik egingo.

Joan den egunean egin zuten lehen bilera irekia danborradan parte hartzeko interesa agertu duten taldeek, eta hantxe hartu zuten batzordea osatzeko erabakia. Eguazteneko bilera, beraz, irekia izango da, eta herritar guztiak daude deituta, nagusien danborradan parte hartu gura duten denak.

## NIRE USTEZ

JOSE LUIS  
MADINAGOITIA



Hemen da iraila. Sasoi berria?

**A**buztua pasa da. Duela hilabete dena zen plana, proiektua eta bidaia. Ilusioa bere hasieran luzea ikusten genuen hilabetea. Lana utzi genuen, agian, oporretan konponduko ziren lan batzuk egin gabe utzita. Baina uste baino azkarrago iritsi da iraila.

Eta sasoi berri bat hasiko den sentsazioarekin gaude berriz: eskolara itzulera, irakasle berria nor izango den eta ikaskideak ikusteko gogoz; futbol ligaren hasiera, aurtengainera Eibar sartu dela eta nahiz eta nafarrak kanpoan gelditu, berriz sartuko diren gogoz; telebista kate guztiak programazioan aldaketa handiak iragartzen dituzte, benetan handiak izango den zalan-tzarekin; formazio proiektuak jartzen ditugu martxan, joan den urtean Gabonetan estre-sagatik bertan behera utzitakoak; udan hartutako kiloak kentzeko dieta hasteko proposamena egiten dugu; gimnasia egiteko erabakia hartzen dugu; laneko lehen egunean konturatzen naiz oporrak hartu aurretik egin gabe utzitako lanak ez direla bakarrik egin, are gehiago, astunagoak bihurtu direla; oporretan kreditu txartelarekin egin ditudan gastuen erreiboak iristen dira, eta uste baino gehiago gastatu dudala konturatzen naiz...

Badirudi sasoi berria hasten dela, bai. Pazientzia, oñatiarrondako jaiz betetako hilabetea da-eta iraila. Urriaren bigarren astean helduko da benetan negua.

## Aisialdi ortuen baldintzen erregelamendua, martxan

O.E. | OÑATI

Aisialdirako ortuen erabilera arautuko duen erregelamendua behin behineko izaeraz onartu zuen, aho batez, udalbatzak eguenean egindako ez ohiko osoko bilkuran.

EAJk proposamen bat baino gehiago egin zizkion Udal Gobernuak prestatu zuen araudiari, eta Bilduko zinegotziek guztiak onartu zituzten. Hala, eta beste

batzuen artean, baratze horietan erabiliko den konposta bertan sortutakoa izango dela onartu zuten, eta gehiagoren beharra izanez gero, auzo konpostan sortutakoa erabiliko dela. Euri-urak aprobetxatzea, erabiltzaileek sortu behar duten elkartearen funtzioak zehaztea eta baratza eredu horrek herriko nekazarien merkaturatzea ez oztopatzea ere onartu zituzten, adibidez.

## Izena eman behar da

Interesa duten guztiak eman behar dute, baita lehen eman zutenek ere. Udalbatzak erregelamendua behin betiko izaeraz onartu ostean zabalduko da izena emateko epea. 10 eguneko epea izango dute herritarrek izena emateko, eta beste 10 egongo dira onartuen eta ez onartuen zerrendari alegazioak jartzeko. Behin betiko zerrenda argitaratu ostean, zozketa egingo da. Azken sei hilabetetan Oñatin erroldatuta egotea beharrezkoa da izena emateko, baita ortua erabiliko den epean ere. Lizentziak bost urterako izango dira.

## Gimnasia zerbitzuak ezagutzeko, ate irekiak Zubikoa kiroldegian

Kiroldegiko fitness eta gimnasia zerbitzuak nolakoak diren bertatik bertara ezagutzeko, ate irekiak egingo dituzte irailaren 8tik 12ra Zubikoa. Bestalde, eguaztenean igeriketa ikastaroetan izena eman dutenen behin behineko zerrenda argitaratuko dute. Hilaren 11n eta 12an erreklamazioak egiteko egunak izango dira eta 16an argitaratuko dituzte behin betiko zerrendak.

## Arantzazura joan dira Lagun Lekuko erretiratuak

Arantzazura egin zuten irteeran joan den egunean Lagun Leku erretiratu elkarteko kideek. Eguen goizean egin zuten ibilaldia Arantzazura, eta hango auzo etxean bazkaldu zuten gero.

Eteon du egoitza Lagun Lekuk eta inguruko erretiratuak dira, batik bat, bazkideak. Atea, baina, zabalik dago erretiratu guztiendako.





## ARETXABALETA

# Kiroldegiko jarduerak abian irailaren 15ean hasita

Igeriketa ikastaroak, areto bizikleta saioak eta beste zortzi jarduera daude

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Iraila eta abendua bitarteko denboraldia jarri du abian Ibarra kiroldegiak. Adin guztietara

rako igeriketa ikastaroak eta areto bizikleta saioak daude; baita aretoan egitekoak diren zortzi jarduera ezberdin ere.

Hala, iazko denboraldian abian jarritako jarduerari jarraipena emango diete.

Izen-emate epea dagoeneko zabaldu dute, eta kiroldegira jo besterik ez dago. Ikasturtea, ostera, hilaren 15ean hasiko dute. Jarduera guztiak –igeriketa ikastaroak izan ezik– 14 urtetik gorakoendako dira, eta taldea osatzeko gutxienez hama-bi lagunek eman beharko dutela izena iragarri dute kiroldegiko kideek.

## Igeriketa 6 hilabetetik

Umeendako igeriketa ikastaroak antolatu dituzte: egubakoitz eta zapatuetan, 6 hilabete eta 2 urte artekoendakoak, eta 3 eta 4 urte artekoendakoak; eta astelehen eta eguaztenetan, 5 eta 10 urte bitarteko guztiendako. Igeri egi-

ten ikasi gura duten helduek eskolak dituzte astelehen, eguazten eta egubakoitz goizetan; eta igerian jakin baina hobetu gura dutenek martitzen eta eguen ilunkaran.

Areto bizikleta saioak, ostera, ilunkaran izango dira: astelehen eta eguaztenetan, 18:45etik 19:30era; eta martitzen eta eguaztenetan, 19:00etatik 19:45era. Horiek irakaslea lagun dituzten eskolak dira, baina irakasle barik ere joan daiteke aretora spinning-ean jardutera. Horien ordutegiaren berri kiroldegiko harre-ran daukate.

## Zumba eta abdominalak

Horiez gain, hainbat jarduera izango dira aretoan: multifitness –jarduera ezberdinak egun bakoitzean, horien artean zumba, badmintona eta korrika–; sasoi-egoteko gimnasia; GAP, hau da, gluteoak, abdominalak eta hankak lantzeko saioak; yoga; abdominalen ariketa hipopresiboak; giharren tonifikazioa pisuak erabilita; eta zumba.

Gainera, Atzegiko kideek ere sasoi-egoteko jarduerak dituzte, orain arte legez, martitzen, eguen eta egubakoitzetan.

## NIRE USTEZ

KATALIN ANTZIA



Urte barri on!

Sasoi honek ere badi-tu egun klabeak, ezin amaituzko afariak lagun eta senitarte-koen artean, algarak eta pena kontu batzuk... Baina ez dira Gabonak, diruditen arren. Larruazalaren koloreak dioskulako dakit, eta entsalada-ko tomatearen zaporeak konfirmatzen nau. Egunaren argia ere ez da gauza bera. Horregatik dakigu ez gaude-la Gabonetan, ostantzean sasoi bera dirudi honek! Eta ez naiz udari Gabon kutsua hartu diodan bakarra, urtea ere askorentzat oraintxe has-ten delako, bai jauna, iraila-ekin batera. Irailean hasi eta abuztuan amaitzen diren agendak ez dira soilik ikas-le eta irakasleen kontua.

Beste urte bat gure ideien proiektiorako. Beste bat bai-na ezberdina.

Sasoi honetan urtero iru-dikatzen dudan imajina ondo-rengo da: espazio bat non zirkunstantzia ezberdinek guztiz okupatzen duten. Eta gu zirkunstantzia ezberdin horietan barrena mugimen-duan. Eta urte hasierak harrapatzen gaitu bat-batean: zast! Geunden lekuan ongi edo gaizki geunden galdetu barik.

Ariketa polita da kontu-ratzeko orain ni nagoela aurrekoan beste bat zegoen lekuan, eta hura, ni nintzen lekuan. Eta ez dagoela, gure kasuan horizontera baino, mendietara begirada altxatu eta jarraitzea bezalakorik urtean zehar beste bati zure esperientziak izugarri balio-ko baitio.

## Agorreko Andramaixen lehen ekitaldiak daude gaur Areantzan

M.A. | ARETXABALETA

Gaur, irailak 8, hasiko dituzte Agorreko Andramaixak arean-tzarrek. Meza izango dute ilun-karan (19:00) eta ondoren, ohitu-rari jarraituz, tantaia jaso eta Martin Kabarrixa ekarriko dute Areantza auzora.

Egubakoitzean emango diete jarraipena jaiei auzo-afaria egin-da. Egun nagusia, baina, zapatua izango da. Txistulariek egunari ongietorria eman eta meza izan-go dute gero (12:00). Mokadutxo-a egongo da ostean, eta 29. jinkana jolasa. Arratsaldean, ostera, Areantzako jolasak egingo dituz-te. Eta domekan, Kurtzebarri



Martin Kabarrixa tantaian. | J. ABASOLO

eguneko ekitaldiekin bat egingo dute ohitura duten legez. Aur-tengo argazki ofiziala ere aterako dute tontorrean.

## Moda norbere erara diseinatzeko ikastaroa egingo dute Arkupen

M.A. | ARETXABALETA

Patroigintzan trebatu eta moda norbere erara diseinatzeko asmoarekin urritik ekainera bitartean iraungo duen ikasta-roa antolatu dute. Uztailean ere patroigintza eskolak eman zituen Katalin Antxiak gidatuko ditu eskolok eta zapatuetan elkar-tuko dira (hamabostean behin), Arkupen. Moda laborategia izena jarri diote ikastaroari eta urriaren 11n hasiko dute (09:00-12:00). Izena emateko epea zabalik dago eta argibideak jasotzeko [modubatmoda@gmail.com](mailto:modubatmoda@gmail.com) helbidera idatzi behar da. 51 orduko ikastaroa da eta 190

euro balio du. Gehienez 15 lagu-nek osatuko dute taldea.

Diseinatzaile esanguratsue-n lanak ere aztertuko dituz-tela iragarri du Antxiak, eta modaren historia errepasatu.

## Pintura eta eskulanak

Bestalde, pintura eta eskulan ikastaroak ere izango dira Arku-pen urrian hasita. Pintura esko-lak emango dituzte Marije Carrillok eta Ainhoa Caberok, eta eskulanak, Rosa del Aguilak. Izena emateko kultura etxeko harrerara jo behar da (Ainhoa Caberorekin zuzenean berba egin irailleko azken astean).

## ESKORIATZA

## Bigarren eskuko bizikleta azokarako materiala jasotzen hasiko dira gaur kiroldegian

M.A. | ESKORIATZA

Bigarren eskuko bizikleten azo-ka egingo dute datorren irailaren 19an, egubakoitza, Mugikortasun Jasangarriaren Europako Astea-ren barruan. Bizikletak (heldue-nak eta umeenak), trizikloak, patinak, patineteak eta kaskoak jarriko dituzte salgai beste batzuen artean, eta ordurako aurrez era-man behar da materiala. Hain zuzen gaur hasi eta irailaren 17ra bitartean jasoko dute mate-rial hori Manuel Muñoz kirol-degian. Hona ordutegia: 10:00e-tatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

## Salneurria norberak jarri

Udalak antolatu du azoka hori eta saldu gura den materiala egoera onean egon beharko dela jakinarazi. Salneurria, ostera, jabeak jarriko dio.

Azokan saltzen ez den mate-riala eta saldutakoaren dirua jabeari itzuliko dizkiote irailaren 25ean, eguena. Kiroldegira jo beharko dute horiek jasotzeko (10:00-13:00 eta 16:00-20:00).

## Bizikleta irteerak

Azokaz gain beste hainbat ekin-tza izango dira aste horren barruan Eskoriatzan: Debagoie-



Bizikletak pilatuta. | GOIENA

neko trenaren gaineko tertulia, hilaren 16an; goitibeheren eta bizikleta aparkalekuen gaineko ikastaroa, 17an; eta Urkulura bizikleta martxa hilaren 21ean, domeka.

## Etiopiako argazkiak eta kontuak ekarriko ditu Miren Pagaldaik 'Ostegun Bidaiariak' ekimeneko lehen saioan

M.A. | ESKORIATZA

*Ostegun Bidaiariak* ekimena jarri du abian Eskoriatzako Udalak, beste herrialde batzue-tara egindako bidaietako kon-tuak eta bizipenak ezagutu eta entzuleari ideia berriak sorra-razteko asmoarekin. Hiru ema-naldi izango dira datozen hiru eguenetan, hirurak kultur etxean, 19:00etan.

Miren Pagaldaik jarriko du abian ekimena, eta iazko abuz-tuan Etiopiara egindako bidaia-ren berri eman. Kontraste han-diko herrialdea da Afrikako ekialdean kokatuta dagoena, eta haren gainean zuen ikus-

pegia erabat "aldatu" zaiola aurreratu du. Turista gutxi-k erabiltzen duen garraio publi-koan zeharkatu zuen horrek, beste lagun batekin.

## Islandia eta ur sakonak

Irailaren 18an, Kepa Isasmendik eta Mikel Bringasek bizikletaz bidaiatzearen sekretuak argitu-ko dituzte. Hain zuzen 2012an lau lagunek Islandiara egindako bidaiaren berri emango du Isas-mendik. Eta 25ean, Alex Ezpe-letak Hondurasen, Maldivetan eta Itsaso Gorriko ur sakonetan bizi izandakoak ekarriko dizkie eskoriatzarrei.





San Martin eskolako ikasle talde bat klasean, iazko ikasturtearen lehen egunean. | JOKIN BEREZIARTUA

**ARAMAIO**

## Eskolan gaur hasiko da ikasturtea ikasleendako, zuzendari berriarekin

Iaz zuzendaritza taldean aritu zen Elisabet Izagirre aretxabaletarrak hartu du kargua; aurten 2 eta 12 urte arteko 144 ikasle izango dira, eta 17 irakasle

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Gaur hasiko dute 2014-2015 ikasturtea San Martin eskolan. 2 eta 12 urte arteko 144 ikasle izango dituzte aurten, Haur Hezkuntzan 52 ikasle eta Lehen Hezkuntzan, berriz, 92. Ikasturte honetan 17 irakasle arituko dira lanean; horiek guztiak irailaren 1ean hasi ziren lanean. Hezitzaile bat ere izango dute eta baita Legutioko eta Duranako eskolekin batera partekatuko duten logopeda bat ere.

Aurtengo nobedade nagusia da Elisabet Izagirre aretxabaletarra izango dela zuzendaria. Iaz Santi Roman aritu zen zuzendari lanetan baina aurten kargu horri eusterik ez zuenez, iaz idazkari lanetan aritu zen Izagirre izendatu dute zuzendari: "Sorpresa izan da kargu berria, ez nuen espero. Hala ere, ilusio handiz hartu dut, lan egiteko gogotsu". Beraz, zuzendari berriak ez du aldaketa handirik ekarriko, lantaldea eta lan egiteko modua iazko berbera izango da. Ikasketa buru moduan Mari Karmen Garridok jarraituko du.

2014tik 2018ra arteko lan ildoak ere antzerakoak izango dira. Hau da, elkarbizitzan, hezkidetzan, eleaniztasunean eta teknologia berrietan sakontzea izango dira zutabe nagusiak.

**Parte-hartze aktiboa bilatzen**

Elkarbizitza proiektuak eskola osatzen duten kide guztiak eskolako parte sentitzea du helburu, langile guztien parte-hartzea sustatzeko. Hau da, eskolako komu-

nitatea osatzen duten kide guztiak —irakasle, ikasle, guraso, garbitzaile, sukaldari...— eskolari eragiten dieten erabakietan eragile aktibo izatea. Elkarbizitza batzordea astero elkartzen da proiektuan sakontzeko eta eragile izateko. Bestetik, Izagirrek aurreratu duenez, hezkidetzaren proiektuaren barruan sexu berdintasuna landuko dute ikasturte honetan. Eleaniztasunari dagokionez, ikasleek euskara hizkuntza nagusia izanik, gaztelera eta ingelesa ahalik eta ondoen menperatzea da zuzendaritzaren erronka. Gainera, teknologia berrien erabilerran ere sakontzea gura dute.

**Auzolana uztailean**

Bestalde, uztailean eskolako atzealdea garbitu zuten auzolanean: "Asmoa da leku hori berreskuratzea ortu moduan erabiltzeko. Udaren laguntza lortzen badugu zati bat estaltzea ere nahiko genuke, euria egiten duenean ere umeei erabili ahal izateko eta, gainera, landatzen duguna neguan ez izozteko", adierazi dute.

gara etorriko dira bisitan. Dorletako Ama Birjinaren eguna da gaur, otxandiarrek errores etortzen diren eguna, eta umeei gatz museoa eta herriko parajeak ezagutzeko aprobeztatuko dute.

Umeak ez ezik, helduak eta nagusiak ere etorriko dira, asko oinez, gainera. Eskoriatzako abesbatzak lagun eginda esango duten meza nagusia entzun 12:00etan, Dorletako santutegian, eta ondoren, herri kirolen erakustaldia izango dute plazan.

Batzuk bazkaltzen geratuko dira, eta aurtengo Andramari jaiei bukaera emango diete herriarrekin batera.

**ELGETA**

## Udalak asteen egingo ditu ikasturte berriko lehen batzordeak

2014-2015eko udal eskaintza ere gertu dago; interesatuak has daitezke izena ematen

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aste honetarako deitu ditu Udalak hainbat batzordetako uda osteko lehen bilerak: gaurko, astelehena, Hirigintza batzordea eta Baserritarren batzordea daude deituta; bihar, martitzena, Turismo batzordeko bilera egingo dute; eta eguaztenean, Ogasun eta Kultura-Euskara-Hezkuntza-Gazteria batzordeena.

Mahai gainean izango dituzte, besteak beste, hondakinen kudeaketa, Espaloia kafe antzokiaren esleipena, garraio publikoa, ludoteka eta gazteleku zerbitzuak, uztaileko udalekuen balorazioa, irailaren 20rako deituta dagoen baserritarren azoka eta *Udazken koloreak* egitaraua. Batzorde horietan guztietan har dezakete parte

herritarrek. Bada, ordutegiak ikusgai daude *Elgeta.org* webgunean eta autobus geltokiko panelean.

**Udal eskaintza**

Ettxerik etxe banatu du Udalak ikasturte berriko kirol jardueren eta eskolaz kanpoko jardueren eskaintza jasotzen duen eskuorria. Aurreko urtekoaren oso antzekoa da: eskola kirola —bi talde—, karatea, yoga, tai txi, erretiratuendako gimnasia, mantentze-GAP, spinninga, ludoteka, zaintza, gazteleku... dira proposatutako ekintzak. Talde eskaintza eta ordutegiak zein jarduera bakoitzaren prezioa jasotzen ditu eskuorriak. Izena emateko epea ere zabalik dago udaletxean.

### Asteen hasiko dira Elgetako musika eskolak, eta Adolfo Jainagak ere zabalik du izena emateko epea

Lorea Larrañagak asteen emango die hasiera 2014-2015 ikasturteko musika eskolei. Hezkuntza musikala zein piano eta gitarra eskolak eskainiko ditu irailetik ekainera bitartean. Musikarekin lotutako bigarren eskaintza Adolfo Jainaga soinu-joleak eskainiko du. Soinu txikia eta panderoa ikasteko aukera emango du Jainagak eguen arratsaldeetan. Interesatuak 943 20 62 66 telefono zenbakira deitu behar dute. Biodantza eskolen eskaintza ere mantendu egiten da. Bi kontaktu eman dituzte: 606 63 61 99 (Ana Mari Sousa) eta 626 66 12 92 (Mentxu).

**ANTZUOLA**

## Bertizera irteera antolatu dute Landatxoekoek

Irailaren 9an eta 10ean eman dezakete izena interesa duten erretiratuek, elkartean bertan

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Irailaren 27an Bertizera, Baztanera, txangoa egingo dute Antzuolako erretiratuek. Irteera ordua goizeko bederatzieta ohiko lekuan izango da.

Bertizen bisita gidatua egingo dute, eguerdiko hamabietan. Ondoren, Doneztebera joango dira, bazkaltzera.

Interesa dutenek martitzenean edo eguaztenean eman dezakete izena arratsaldeko lauretatik seieta bitartean erretiratu elkartean.

Prezioa da 30 euro pertsonako. Autobusak 60 lagunendako tokia dauka.

**Eskulak ikastaroa**

Edurne Uribealgoren eskulan ikastaroan izena eman daiteke; irailaren 20a da azken eguna. Kurtsoan, norberak nahi duena

egiteko aukera izango du: koa droak margotu, gauzak zaharberitu eta itxura aldatu, egurra margotu... Eguenetan eskainiko dira ikastaroak. Helduak: 14:45etik 16:30era eta 18:00etatik 19:45era; Umeak: 16:45etik 17:45era. Interesa dutenek izena udallexera deituta eman beharko dute: 943 76 62 46.

Irailaren 25ean hasi eta 2015eko ekainaren 18an amaituko da. Hileko kuota: helduek 24 euro eta umeei 12.

**Gaur hasi da ikasturtea**

Herriko eskolan gaur dute lehen eguna ikasleek. Hilaren 15era arte goizeko ordutegia izango dute. Irailaren 16an ohikotasunera bueltatuko dira eta goizean eta arratsaldean izango dute eskola. Jangela zerbitzua erabiltzeko abisatu egin behar da.

**LEINTZ GATZAGA**

## Eguaztenean, hilaren 10ean, hasiko dute ikasturtea eskolako umeei

Irailaren 29a arte goizez bakarrik izango dituzte eskolak 2 eta 5 urte arteko sei neska-mutikok

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Leintz bailarako gainerako ikasle gehienek legez Gatzagakoek ere eguaztenean, irailaren 10ean, hasiko dute ikasturtea. 2 eta 5 urte arteko sei neska-mutiko elkartuko dira, eta lehenengo hiru asteotan goizez bakarrik izango dituzte eskolak: 09:00etatik 13:00ak arte. Irailaren 29tik aurre-

ra emango diote hasiera ohiko ordutegiari, eta aurreko ikasturtean legez, eguazten arratsaldean Eskoriatzako Luis Ezeiza herri eskolara joango dira.

**Otxandioko umeei**

Otxandioko neska-mutikoek, ostera, gaur hasi dituzte eskolak, eta lehen egunean Gatzaga



# Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.



|                                                                                                                                                                                                                              |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |                                                                                                                                                                                                                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <div></div> <div><b>ALZU, S.L Ehiza eta arrantza</b><br/><b>Arantzazuko Ama, 2   Oñati</b><br/>Arropetan %10eko beherapena.</div>                                                                                            | <div></div> <div><b>AQUARIUM – Donostia</b><br/>Bi erosi eta bat ordaindu (Sarrena garestiena ordainduko da).</div>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | <div></div> <div><b>ARRIKRUTZ Kobak</b><br/><b>Araotz Auzoa   Oñati</b><br/>Sarreran %10eko deskontua (topea bost pertsona).</div>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            | <div></div> <div><b>AZPEITXI Jatetxea*</b><br/><b>Aranerreka kalea 13, Bergara</b><br/><b>Tel.: 943 76 55 00</b><br/>Azpeitxi jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero: Eguneko menuan, bazkarian kafea doan. Asteburuetako menuan, bazkarian eta afarian kafea doan.</div> | <div></div> <div><b>CARAVANAS OÑATE</b><br/><b>Galdaragintza. Bizikletak</b><br/><b>Otadui Zuhaiztia, 25   Oñati</b><br/>50€-ko erosketa egiteagatik, %10eko deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gailetan. (ez du balio beste promoziotarako).</div>                                                   |
| <div></div> <div><b>ESKO SPORT</b> Kirol denda<br/><b>Intxaurtueta 5   Eskoriatza</b><br/>Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.</div>                                                                                     | <div></div> <div><b>ESTACION SERVICIO ARRASATE</b><br/><b>Gasolindegia</b><br/><b>San Andres 7   Arrasate</b><br/>% 2ko gasolindegian erregaia erositako.<br/>% 2ko dendako produktuetan.</div>                                                                                                                                                                                                                                                                               | <div></div> <div><b>EUREKA ZIENTZIA MUSEOA</b> Aisia<br/><b>Mikeletegi 43-45   Donostia</b><br/>Sarrera bat erositako eta kupoia + Goiena Klubeko txartela erakutsita, sarrera bat doan.</div>                                                                                                                                                                                                                                                                                                | <div></div> <div><b>GAES</b> Centros Auditivos<br/>Entzumen zentruak<br/>RPS: 45-56/10<br/><b>GAES Entzumen zentroa</b><br/><b>Otalora 18   Arrasate</b><br/><b>Zurradero 10   Bergara</b><br/>%10eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)</div>                         | <div></div> <div><b>GAHIR</b> Fisioterapia / Osteopatia<br/><b>Aranburuzabala 6 behe   Eskoriatza</b><br/>%50eko deskontua lehenengo kontsultan.</div>                                                                                                                                                            |
| <div></div> <div><b>GRACIAN</b> Mertzeria<br/><b>Bidekurutzeta kalea 6, Bergara</b><br/>25 eurotik goragoko erosketetan %20ko deskontua.</div>                                                                               | <div></div> <div><b>GUZTIZ EDER</b> Estetika zentroa<br/><b>Kalebarria 29   Oñati</b><br/>%5eko deskontua argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik).<br/>%10eko deskontua gorputz osoan txokolatearekin egindako estalduran eta masajeetan.</div>                                                                                                                                                                    | <div></div> <div><b>INSTITUTO OPTICO</b><br/><b>Bidekurutzeta 10   Bergara</b><br/>%15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan eta aparatu audifonoetan..</div>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                | <div></div> <div><b>IONE MOÑUX</b> Fisioterapia zentroa<br/>RPS: 301/14<br/><b>IONE MOÑUX Fisioterapia zentroa</b><br/><b>Burdinate plaza 2   Bergara</b><br/>Lehenengo sesioa, sesio erdi..</div>                                                                                      | <div></div> <div><b>JAUJA KIROLAK</b><br/><b>Irizar pasealekua 1 behe   Bergara</b><br/>Produktu guztietan %5eko deskontua..</div>                                                                                                                                                                                |
| <div></div> <div><b>KUTTUNA</b> Estetika zentroa<br/>RPS: 285/13<br/><b>KUTTUNA Estetika</b><br/><b>Aranburuzabala 19, behe   Eskoriatza</b><br/>%5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste promozio batzuk izan ezik).</div> | <div></div> <div><b>LASTAI</b><br/><b>Koltxoak eta umeentzako artikulak</b><br/><b>Arkatza 1, 49 Pab   Gasteiz</b><br/>%5eko deskontu gehigarria helduentzako atsedenen arloan.<br/>%5eko deskontua haur kotxe eta automobileren segurtasun-aulkietan.<br/>%5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileren segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehun-gailetan.<br/>%10eko deskontua denboraldiko hau-arropen. (Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik).</div> | <div></div> <div><b>LILURA</b> Edertze institutua<br/>RPS: 299/13<br/><b>LILURA EDERTZE INSTITUTUA</b><br/><b>Estetika zentroa</b><br/><b>Bidekurutzeta 7   Bergara</b><br/>%15a laser depilazioan: hanka osoa + izterrendoa (besapekoak opari).<br/>%20eko deskontua elikagai intolerantzia proban.<br/>%10eko deskontua mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.<br/>%10eko deskontua fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.<br/>Bazkidearentzat eta lagunarentzat</div> | <div></div> <div><b>MAGDALENA</b> Gasolindegia<br/><b>Santxolopetegi auzoa   Oñati</b><br/>% 2ko deskontua gasolindegian erregaia erositako.</div>                                                                                                                                      | <div></div> <div><b>MULTIOPTICAS</b> lehen zerbitzu optikoetan<br/>R.P.S. 149/10 L.L.G<br/><b>MULTIOPTICAS</b> Optika<br/><b>Juan Carlos Guerra, 1 behe   Arrasate</b><br/><b>Ibargarai, 16   Bergara</b><br/>%15eko deskontua (deskontua ez da aplikagarria promozioetan ezta segurtasun betaurrekoetan)..</div> |
| <div></div> <div><b>NAREN</b> Fisioterapia eta osteopatia zentroa<br/><b>Belorrieta 5 behe   Aretxabaleta</b><br/>%15eko zerbitzu guztietan (Errehabilitazioan izan ezik).</div>                                             | <div></div> <div><b>NINIKA</b> Loradenda<br/><b>Ramon Maria Lili, 8   Bergara</b><br/>%10eko deskontua artikuluguztietan.</div>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | <div></div> <div><b>OÑATI GARAJEA</b><br/><b>Autoen garaje. Konponketak</b><br/><b>Goribar Auzoa 9   Oñati</b><br/>Oñati %5eko beherapena egiten diren konponketetan.</div>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   | <div></div> <div><b>PORTALOI optika</b><br/><b>Erdiko kalea 10, Arrasate</b><br/>%15eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria segurtasun betaurrekoetan).</div>                                                                                        | <div></div> <div><b>TXURI-URDIN</b> Itzotz Jauregia<br/><b>TXURI URDIN Itzotz jauregia</b><br/><b>Anoeta Ibilbidea 24   Donostia</b><br/>% 20eko deskontua zapatu eta domekatan (ez bada zubia edo oporraldia).<br/>% 10eko deskontua zubi eta oporraldietan.</div>                                               |

\* Eskaintza honek, GOIENA KLUBEKO txartelaren titular bakoitzeko, kafe bat hartzen du barne.

## GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

**Goiena papera:** Astelehenetan ere etxean.

**Deskontuak:** Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskala guztietan.

Urteko kuota: **50 €.** | **943 25 05 05**  
[kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com) | [goienakluba.com](http://goienakluba.com)



goienakluba“  
Euskara irabazle, denok irabazle!



# KIROLA

## FUTBOLA

# Bergarak irabazi du Arrasate Hiria futbol txapelketa

Aitor Arrateren taldeak Mondra menderatu zuen (1-0) eta Elorrioren kontra berdindu egin zuen (0-0)



Mondrako eta Bergarako jokalariek bana lehian, baloia buruarekin kontrolatzeko ahaleginean.

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Bergarako futbol taldearen kolore urdina nagusitu zen Arrasate Hiria futbol txapelketan. Aitor Arrateren taldeak Mondra menderatu zuen hiruko txapelketaren azken norgehiagokan (1-0). Aurretik, Elorrioren kontra berdindu egin zuen (0-0). Lau punturekin beraz, mahoneroek eraman zuten garaikurra etxera. Eloy Crespok jaso zuen saria Ander Garai presidentearren eskutik.

Elorrio izan zen Arrasate Hiria txapelketako hirugarren protagonista. Bizkaiko Ohorezko Erregionalean jokatzen duen taldeak itxura ona eman zuen, baina azken metroetan motel ibili zen eta ez zen gol bat bera ere sartzeko gai izan.

### "Sentsazio onak"

Denboraldi-aurrean jokatzen diren txapelketatan, jokoak baino sentsazioak dira inportanteagoak. "Aurreko astean Bergaratik sentsazio txarrekin itzuli ginen. Gaur, oster, Elorrioren kontra jokatutako zatiarekin geratzen naiz. Taldea indartsu ikusi dut eta sentsazio oso onak izan ditut", esan zuen bukaeran Gotzon Urtzelai, Mondrako entrenatzaileak.

Elorrioren kontra irabazi egin zuten arrasatearrek (1-0), nahiz eta gero ezin izan zuten etxeko txapelketa irabazi. "Etxeko saria irabaztea beti da inportantea. Liga txapelketa gogotsu hasteko aukera emango zigun, baina ezinezkoa denean, taldearen jokoa-ekin geratzea da onena", azpi-

marratu zuen arrasatearren entrenatzaileak.

Gainera, Arrasate Hiria futbol txapelketan Mondrak egin dituen fitxaketak ezagutzeko aukera izan zuten zaleek: Uribarren, Eraña, Barbero, Boyon eta Corcuera. Bostak esperientzia handiko jokalariek. Uribarren Hirugarren mailatik dator eta Eraña Bigarren B mailatik.

### Mondrari irabazi ostean

Bergararrek ere pozik bukatu zuten txapelketa: taldeak erakutsitako mailarekin eta garaikurra lortzeagatik.

Lehen partiduan husna berdindu zuten Elorriorekin eta 45 minutuko lehia erabakigarrian Mondra menderatu zuten. "Gure futbol txapelketako finala galdu egin genuen eta penaz geratu ginen. Gaur atera dugu arantza hori", zioen Aitor Arrieta entrenatzaileak.

Bergarak ere taldean dituen aurpegi berriak erakutsi zituen eta itxura ona eman zuen. "Gu ere sentsazio onekin goaz etxera. Hainbat gauza zuzendu behar ditugu, baina pozik nago egin dugun lanarekin", adierazi zuen entrenatzaileak.

GOTZON URTZELAI | MONDRAKO ENTRENATZAILEA

## "Igotzeko aukerak izateko gure oinarriak lana eta konpromisoa dira"

Hilaren 21ean hasiko du Mondrak Preferente mailako txapelketa.

### Zeintzuk dira denboraldirako aurreikuspenak.

Pausu bat gehiago ematea da asmoa. Urtebeteko esperientzia daukagu eta igotzeko aukerak ditugu, baina lan handia egin behar dogu. Laz, partidu erabakigarrietan huts egin genuen, eta sailkapenean goian egon gura badugu, ezin dugu hutsik egin.



M.B.

### Jokalar berriak aintzat hartuta, zenbat aldatuko da Mondaren jokoa?

Jokalar berriek beti egiten dituzte ekarpen berriak. Baloia-ekin jokatzea gustatzen zaie eta horrek eragina izango du taldearen jokoa. Baina gure oinarria lana izango da.

### Orduan, partiduz partidu?

Bai, horixe! Partiduz partidu lana egiten eta konpromiso sendoarekin. Horrekin egingo dugu aurrera.

## Denboraldi berriak hastear daude

Irailaren 14an hasiko da Ohorezko Erregional mailako liga txapelketa, eta maiatzaren 24an bukatuko da. Lehen jardunaldian Aloñak, Bergarak eta UDAk etxean jokatuko dute, Martutene, Zarautz eta Touringen kontra, hurrenez hurren. Antzuolak aldiz Ordiziaren zelaian jokatuko du. 2014-15 denboraldiko lehen derbia urriaren 18-19ko aste bukaeran jokatuko dute Antzuolak eta Bergarak, Estala futbol zelaian.

Mondrak, aldiz, irailaren 21ean hasiko du Preferente mailako txapelketa: Mojategin jokatuko du Tolosaren kontra. Maila berean lehiatuko den Aretxabaletak, Getariako hartuko du lbarran. Debagoieneko bi ordezkarien arteko derbiak azaroaren 16an (Ibarra) eta martxoaren 22an (Mojategi) jokatuko dira. Liga txapelketa maiatzaren 17an bukatuko da.

AITOR ARRATE | BERGARAKO ENTRENATZAILEA

## "Iazko sufrimendua saihesteko, etxeko partidu gehienak irabazi behar ditugu"

Gertu daude mahoneroak liga txapelketa hasteko.

### Ze helburu dituzue denboraldirako?

laz, maila mantentzeko asko sufritu genuen, eta aurreko txapelketan aurretik egin ditugu. Taldea indartu egin dugu. Lau jokalar galdu eta bost jokalar ekarri ditugu.

### Non egongo da ez sufritzeko kaka?

Txapelketa ondo hasteak asko laguntzen du. Emaizta positiboak



M.B.

lortuta, beste modu batera antolatzen dira partiduak. Beste kakoetako bat, etxeko partiduak izango dira. Gehienak irabazi beharko ditugu. Puntu horiek dira inportanteenak. Etxean irabazita, kanpora puntuak lortzeko konfiantza-ekin joango gara.

### Futbol zelaia ere beste itxura bat dauka.

Guk eta Agorrosinera datozen taldeek nabaritu dute aldea.



25 | TXIRRINDULARITZA | Xuban Errazkinek irabazi zuen Oñatiko Saria



, Arrasate Hiria futbol txapelketan. | IMANOL SORIANO



Zale askotxo batu zen Mojategiko harmailetan. | IMANOL SORIANO



Eloy Crespo irabazlearen saria jasotzen, Ander Garairen eskutik. | M.B.

FUTBOLA

# Agirreren omenezkoa galdu arren, Aloña Mendikoak gogotsu daude liga hasteko

Ezin izan zuen Laudio menderatu (0-1) denboraldi-aurreko azken partiduan

M.B. | OÑATI

Jose Luis Agirreren omenezko partidua, Aloña Mendi futbol taldearen aurkezpen partidua izan ohi da. Hori horrela, futbol saileko presidente izandakoaren omenaldia bukatuta –alargunak eta bi bilobek lore sorta jaso zuten Endika Ruiz kapitainaren eta Javi Azpiazu presidentearen eskutik–, 2014-15 denboraldirako Aloña Mendik indarrak neurtu zituen Laudioarekin. Eta galdu egin zuen: 0-1. Emaiztatik haratago jokalariek egindako lana azpimarratu zuen Igor Serrano entrenatzaileak: "Taldearen oinarri sendoak diren lau jokalarik ezin izan dute jokatu, baina gazteek egindako lana txalotzekoa izan da. Euren konpromisoa oso handia da". Entrenatzaileak uste du Axier Ugarte, Gaizka Zelaia, Joseba Irizar eta Mikel Palacios prest egongo direla liga txapelketa hasteko.

## Gola bigarren zatian

Denboraldi-aurreko partidua iza-teak eta zapatuan egin zuen beroak asko baldintzatu zuen Jose Luis Agirreren omenezko lehia.

Aloña Mendi eta Laudio zelaian kokatu arte, zelai erdian mugitu zuten baloia. Askotan baloi luzeekin, baina azken metroetan aukerak egin barik. Atezainek apenas izan zuten lanik lehen zatian.

Epailearekin adostuta, bi zatietan bina geldialdi egin zuten jokalariek, ura edateko.



Omenaldiko une bat. | M.B.



Josu Juaristi baloiagatik lehian, Laudioko jokalaria batekin. | IMANOL SORIANO

IGOR SERRANO | ALOÑAKO ENTRENATZAILEA

## "Ditugun jokalarien ezaugarrien arabera jokoa egiten saiatuko gara"

Aloñak aurpegi berri asko ditu aurt-en. Aulkian ere bai. Igor Serrano idiazabalarra da entrenatzailea.

### Domekan hasiko da liga txapelketa. Zer moduz dago taldea?

Orain arte lan ona egin dugu. Min hartuta dauden jokalarik batzuk ditugu, esperientzia handikoak direnak, baina gazte mailatik igo diren jokalariek ere lan ona egin dute.

### Jokalarik beterranoetako batzuek taldea utzi dute. Nola beteko duzue hutsune hori?

Gazte mailako jokalariekin. Indartsu daude eta jokalarik onak dira. Esperientzia apur bat galdu dugu, baina gazteek azkar ikasten dute eta segituan hartuko dute maila.

### Denbora gutxi daramazu Oñatin. Ezagutzen zenuen Aloña?

Aloñako entrenatzailea izango nintzela jakin nuenetik, hainbat partidukusi nituen Azkoagainen. Jokalariek pertsona moduan ezagutze-ko lanarekin hasi nintzen. Gainera, askotan jokatu dut Aloñaren kontra, bai jokalarik moduan eta baita entrenatzaile moduan ere. Badakit nola egiten duten lan Oñatin.

### Nola jokatuko du Serranoren Aloñak?

Ditudan jokalarien arabera jokoa egiten ahaleginduko gara. Niri gus-tatzen zaidan jokoa baino, ditugun ezaugarrien arabera izango da. Jokalarik horiek ondoen egokitzen diren sistema antolatzen ahalegin-



M.B.

tzen naiz. Gero emaitzak ikusi beharko ditugu. Askotan sistema onena topatzea baino zailagoa izaten da emaitzarekin asmatzea. Baina, ahaleginduko gara.

### Azkoagainen ez zaizue zaleen berotasuna faltako.

Eta asko eskertuko dugu. Futbola antzerkiaren modukoa da. Beti da aberasgarriagoa zaleen aurrean jokatzea edo ikusleen aurrean antzeztea. Etor daitezela Azkoagainera. Ez dira damutuko.





Xuban Errazkinek (Bazpi) pozarren altxatu zituen besoak, esprintean, Xabier Contreras atzean utzi ostean. | IMANOL SORIANO

TXIRRINDULARITZA

# Xuban Errazkinek sprintean irabazi du Oñatiko saria

- Bazpi taldeko kideak Contreras eta Cabanel gainditu zituen helmugan
- Julen Umerez oñatiarra izan zen Debagoieneko ordezkari onena

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Junior eta bigarren urteko kade-te mailetako 56. Mikel Deuna Saria esprintean erabaki zen. Xabier Contreras (Limousin), Thomas Cabanel (Castelsarrasin) eta Xuban Errazkin (Bazpi) indartsu sartu ziren Unibertsitate etorbideko zuzenera. Bizikletan zutik ipini ziren hirurak, eta segituan atzean geratu zen Cabanel frantziarra. Beste bien arteko lehia itzela izan zen, helmugan zeuden zaleen txalo artean. Azken bultzakadan irabazi zuen Errazkinek. Contreras haserre gurutatu zuen helmuga.

Baina irabazlea erabakitze esprintaz gain, atzetik sartu ziren gainerako txirrindulariek, esprint estuak izan zituzten azken metroetan. Horixe bera gertatu zitzaion, Ulma taldeko Julen Umerez oñatiarrari. Ezin izan zuen Vincent Cabanel gainditu eta bosgarren lekuarekin konformatu behar izan zuen. Hori bai: lehen debagoiendarra izan zen, eta baita lehen oñatiarra ere.

## Atagoitin apurtu zen taldea

Tropela sakabanatuta heldu zen helmugara. Ormaiztegitik gora, Atagoitirako bidean apurtu zen


taldea. Contreras, Cabanelek eta Errazkinek 20 segundoko abantaila hartu zuten eta atzekoek ezin izan zuten abantaila hori murriztu Udanarako bidean. Santipillau baserriko igoera gogorrean ere ezin izan zuten aurreko hiru kotea harrapatu.

Berotu ederra hartu zuten proba hasi zuten 70 txirrindulariek. Hori horrela, helmugara 32 besterik ez ziren heldu.

## Sari banaketa ekitaldia

Lasterketa bukatuta, saria merezi zuten txirrindulariak Foruen

plazako kioskoan elkartu ziren. Lehen hiru saries gain, mendiko helmugaren saria (Vincent Cabanel), taldekako saria (Bazpi taldea) eta oñatiar onenaren saria (Julen Umerez) banatu zituzten antolatzaleek.



Mikel Deuna Sariko podiuma, Foruen plazako kioskoan. | MIREIA BIKUÑA

**XUBAN ERRAZKIN**  
IRABAZLEA

**"Frantziarrek eraso bortitzak egin dituzte, baina ondo eutsi diet"**

Gustura zegoen Errazkin usurbildarra lortutako garaipenarekin.



## Zer moduz joan da lasterketa?

Hasierako 30 kilometrotan lasterketa kontrolatu egin dugu eta behin Udana igotzen hasita hasi dira erasoak. Laukote bat ipini gara aurretik, tartean Cabanelanaia. Eraso bortitzak egin dituzte, baina ondo kontrolatu ditugu Contreras eta biok. Esprinterak indar gutxiarekin heldu naiz.

## Berotu ederra hartu duzue!

Oñatiko proba gorabeheratsua da. Aldapa gogorrak ditu eta erritmo handia egon denez, esfortzu handia egin behar izan dugu. Dena den, lortutako emaitzarekin pozik gaude: lehen sariarekin eta taldekako sariarekin goaz etxera, eta ezin gara kexatu. Lan ona egin dugu guztiok.

**JULEN UMEREZ**  
DEBAGOIENDAR ONENA

**"Ezin izan dugu Atagoitin gainean hartu duten abantaila murriztu"**

Etxe koen aurrean, maila oso ona erakutsi zuen Ulma taldeko oñatiarrak.



## Esprintean laugarren lekua galdu duzu.

Azkenean bosgarren lekuan. Laugarren eskura izan dut, baina ezin!

## Atagoitin apurtu da taldea. Udanan ezin aurreko ziklistak harrapatu.

Segundo batzuk hartu dituzte Atagoitirako igoerako azken metroetan, eta Udanarainoko tartean saiatu gara haiek harrapatzen, baina ezinezkoa izan da.

## Gaurko ibilbidea ezagutzen duzu. Horrek abantaila ematen du?

Baietz esango nuke. Bereziki, mendateetako jaitsieratan.

## Denboraldia amaitzeko gogoarekin?

Bai. Azken lasterketa egin eta gero Oñatiko jaiak.



## ESKUBALOIA

# Eskubaloiko epaileek arlo fisikoa eta teknikoa landu dute Oñatiko saioan

- Eskola kirolean hasi eta Asobal mailara arteko ordezkariak egon dira
- Iñurrieta, Vaz eta Mantxola debagoiendarrek parte hartu dute

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Eskubaloiko taldeek denboraldi-aurreak egiten dituzten moduan, partiduetan legea aplikatzen duten epaileek ere lan saioak egiten dituzte. Atzo Oñatin elkartu ziren 90 bat epaile. Eskola kirolek hasi eta Asobal mailara arte epaileak egon ziren Euskal Herriko Eskubaloiko Federazioak antolatutako lan saioan. Arlo fisikoa eta teknikoa landu zituzten egun osoan zehar.

Goizean goiz, korrika harri-patu genituen. Baina, zer helbururekin?: "Batez ere, norbera fisikoki nola dagoen ikusteko. Era berean, proba hauetan minimo batzuk gainditu behar dira norberak duen mailatik gora egiteko", esan zuen teknifikazio saioan parte hartu zuen Mikel Mantxola epaile oñatiarrak.

Oñatiko saioan minimoa gainditu ez zutenek beste aukera batzuk izango dituzte denboraldian zehar. "Minimoa egiten ez duenak, maila mantentzen du. Gora igo gura badu, berriro egin beharko ditu probak", esan zuen Mantxolak.

Oñatin ospatu zuten teknifikazio proba, gune estrategikoa delako. "Udalak kiroldegia eta Santa Ana uzten dizkigu eta gainera Gasteiz, Bilbo eta Donostia aldetik datozenendako erdi-bidean dago", esan zuten antolatzaileek.

## Debagoieneko hiru epaile

Kanpotik joandakoekin batera, Debagoieneko hiru ordezkariak parte hartu zuten probatan: Xabier Iñurrieta eta Jontahan Vaz beragarrek eta Mikel Mantxola



Eskubaloiko epaileak erresistentzia probak egiten Oñatiko kiroldegian. | MIREIA BIKUÑA

oñatiarrak. Eurekin batera egon ziren eskola kirolek hasi eta Asobal mailara artekoak. Tartean, Ford Mugarriren partiduak epaitzen dituztenak ere.

**DATUA**

**90**

EPAILEA

Horiek izan ziren Oñatiko saioan egondako epaileak. Eskola kirolek hasi eta Asobal maila artean jokatzeko duten epaileak.



Xabier Iñurrieta, Mikel Mantxola eta Jonathan Vaz epaileak. | JOSETXO ARANTZABAL

**JUANJO GUDE**  
ASOBALLEKO EPAILEA

**"Epaileak kirolariak gara, eta fisikoki maila eman behar dugu"**

Juanjo Gude Asobal mailako epailea eta Euskal Herriko Federazioko Epaileen



Federazioko presidentea da. **Epaileak ere fisikoki indartsu egon behar duzte.**

Hala da, eta gaurko moduko saioetan ikusten da nork entrenatzen duen gehiago eta nork gutxiago. Epaileak fisikoki indartsu egon behar du jokaldi-dietara azkar heltzeko.

**Ezaugarri horiek berberak dira maila guztietarako?**

Bai. Berdin da zein mailatan epaitzen den. Epaileak kirolariak ere bagara, eta fisikoki gutxieneko batzuk behar ditugu gure lana ondo egiteko.

**Epaile gazte asko dago Oñatiko saioan. Bide luzea dute Asobal mailara arte?**

Hemen dauden gehienak ez dira Asobalera helduko, baina akaso bai, Lehen Nazionalera. Eta ibilbidea nahiko luzea da. Epaile izateko ikastaroarekin eta eskola kirolean epaitzen hasten dira.

Nik 10 urte daramat Asobal mailan, baina horra heltzeko, beste 11 urte egin nituen beste maila batzuetan.

**Asobalen arbitro-lanakegi-teak zer nolako eskaera maila eskatzen du?**

Handia. Ezaugarri fisiko berberak behar ditugu edozein kategoriatan lan egiteko, baina eskaera maila handiagoa da Asobalen eta Nazional mailako txapelketetan. Horregatik, ezinbestekoa da arlo fisikoa eta teknikoa lantzea, hasiera hasieratik.

## PILOTA

## Dorletako Ama saria Zegama eta Iruñara joan da aurtan

Gazteen mailan, Intxausti eta Eliztegi bikoteak Salegi eta Garmendia bikotea menderatu zuen 22-17. Partidu luze eta gogorra izan zen, atzean erabakitakoa. Senior mailako irabazleak, Intxausti eta Eliztegi izan ziren, Bolinaga eta Atxotegi bikoteari 22-20 irabazi ostean. Azken txanpan erabaki zen finala.



JOSETXO ARANTZABAL



MENDI BIZIKLETA

JOSETXO ARANTZABAL

## Uste baino txirrindulari gutxiago

Beste urte batez bizikleta gainean mendian gora egin zuten Gatzagako jaietan. Uste baino txirrindulari gutxiago animatu zen, 105 pertsona irten ziren plazatik Olaun aldera ibilbidearen 32 kilometroak egitera. Neska-mutikoez ordea ondo erantzun zuten; 40 gaztetxok San Miguel plazatik Dorletako santutegira joan-etorria egin zuten atzo goizean.



Xabi Altube | Txirrindularia

# "Balaztarik ez izatean, tentsioa sortzen da eta horrek badu xarma"

- 'Fixed' bizikleta modalitateko lasterketan hartzen du parte Xabi Altube oñatiarrak
- Bartzelonan egon berri da mundu mailako proba batean eta lan txukuna egin du

IRATI GOITIA | OÑATI

Orain dela lau zapabost urte probatu zuen lehendabizikoz *fixed* bizikleta bat, piñoi finkoduna eta balazta gabekoa, Xabi Altube oñatiarrak. Jakin-minak bultzatuta jarri zen horrelako bizikleta baten gainean. Orain, jakin-min hori afizio bilakatu da eta lasterketatik lasterketara dabil. Bartzelonan izan berri da txapelketa batean.

**Nolatan hasi zinen piñoi finkoko lasterketan parte-hartzen?**

Antton Zubia lagunak ekarri zuen modalitate hori Oñatira Italiatik. Guretzako erabat ezezaguna zen eta jakin-mina sortu zigun. Bizikleta ezberdinak ziren. Hala hasi nintzen. Izango dira lau edo bost urte. Gero lagunak elkar xaxatzen hasi ginen lasterketan izena emateko eta orain hor gabiltza aurrera eta atzera. Beraz, *fixed* bizikletaren gainean ez daramazu horrenbeste denbora, baina txirrindularitzari lotuta gatzetatik.

Bai, txirrindularitzan hamaika edo hamabi urterekin hasi nintzen eta horrezkero ez naiz jaitsi. Mendiko bizikletan, errepidean eta ziklo-krolean ere ibili izan naiz. Modalitate gehienak probatu ditut.

**Zer du piñoi finkoko bizikletak bes-teek ez dutena?**

Eskatzen du errepidean oso adi joatea, izan ere, ez duzu balaztarik. Sor daitekeen edozein ustekaberi aurre egiteko gertu egon behar zara. Tentsio horrek badu bere xarma.

**Zenbateraino dago hedatuta kirol hau Euskal Herrian?**

Egia esan, oraintxe dabil indarra hartzen. Orain dela hiru urte, Bilbon bakarrik zegoen modalitate honetako lasterketa bat. Gero Oñatin hasi ginen antolatzen eta aurtun Donostian ere egin dute. Zegaman ere badabiltza txapelketa bat antolatu nahian.

**Oñatin antolatzen den Kantoikrit-ek beste urrats bat eman du aurtun. Kanpotik ere etorri da jendea...**

Bai, badoa izena hartzen eta gero eta jende hobeagoa dator. Igarri zen mailak gora egin duela. Eta espero dugu hurrengo urtean gehiago etortzea, eta gero eta konpetentzia gehiago izatea.

**Lehen biak zeuk irabazi zenituen. Aurtun gorpila zulatu ez bazitzaizun zer gertatuko zen?**

Hainbatek esan zidaten irabazi egingo nuela, baina ez, ez nuen irabaziko. Bigarren egingo nuen,



Xabi Altube fixed bizikletarekin, Oñatin. | I.G.

akaso, baina ez nintzen lehen postuan helmugaratuko.

**Kantoikritek zerbait berezia du beste lasterketekin alderatuta?**

Zirkuituak harrizko zorua du eta hori berezia da. Besteetan ez dago horrelakorik. Milanekoa izan daiteke antzerakoena. Hangoan ere kale estuak eta kurbak daude, baina harrizko zorurik ez. Hori Oñatiko eskusiboa da.

**Zenbat lasterketan hartu duzu parte dagoeneko?**

Bilbokoan izan ginen -hura behin bakarrik antolatu zuten-. Oñatin hiru bider korritu dut, Gijonen birritan egon gara eta Bartzelonan beste birritan. Hil honen 20an Madrilera goaz. Asteburu honetan Leonen zegoen beste bat, baina ez gara joan. Izan ere, ezin da astebururo kanpora joan.

**Abuztuan izan zara Bartzelonan, ez al duzu oporrik hartu?**

Bai, izan gara oporretan, baina hori ere bizikletan. Eslovenian egon gara zakutoekin.

**"Bizikleta ezberdina zen eta jakin-mina sortu zigun; hala hasi ginen kirolean"**

**Bartzelonan txukun aritu zinen. Gustura eginikoaz?**

Emaizta ona baino, jendea nik egin nuenaz gustura gelditu zela esango nuke. Izan ere, 46. egin nuen. Ez da emaitza on-ona, baina lehian zegoen maila ikusita, pozik ziren gertukoak. Izan ere, oso jende ona zegoen, profesionalak. Ez dago honetatik bizi den inor, baina badaude dirulaguntzak dituztenak eta honi dedikazio gehiago eskaintzen diotenak. Bartzelonarako 244 pertsonak genuen izena emanda eta lasterketarako 85 sailkatzen ziren soilik. 1 Formularen bezala, aurretiaz, hogeita minutu zenituen zirkuitoan ahalik eta itzuli azkarrena egiteko, eta lehenengo 85ak sailkatzen ziren. Sei multzo zeuden eta ni nire multzoko bigarren gelditu nintzen. Lasterketarako, 62. en sailkatu nintzen irteeran eta 46. postura aurreratzea lortu nuen. Gertukoak oso pozik zeuden horrekin.

**"Oraintxe dabil kirola indarra hartzen gurean, poliki-poliki"**

**Zein herrialdeetan du indar gehiago kirol honek?**

Talde alemaniar on bat dago edo asko dira estatubatuarak edo Puerto Ricokoak, adibidez. Toki horietan lehenagotik ezagutzen dute kirola eta laguntza gehiago daude. Bartzelonako lasterketara faborito bezala etorri zena Puerto Ricokoa zen, esaterako. Kana- dan, Errusian eta Ukrainan ere nahiko hedatuta dago. Australiarrak ere nahiko onak dira. Izan ere, herrialdearen zati handi bat desertua da eta pistako modalitatean ibiltzen dira asko. Eta zela pistako eta piñoi finkoko ezaugarriak nahiko antzerakoak diren...

**Eta zuk non entrenatzen duzu?**

Errepidean ibiltzen naiz. Ez da egokiena. Pistan aritzea egokiago izango litzateke, baina baita aspergarriagoa ere. Belodromo bati bueltaka aspertu egiten naiz, ez dut horretarako balio. Azken finean, ez naiz horretatik bizi;

**"Nirea afizioa da eta ez beste ezer. Lortutakoa lortuz eta kitto"**

afizio bat da. Lortutakoa lortu eta kitto.

**Zer eskatzen du kirolak, fisiko ona izatea eta zer gehiago?**

Hanka onak eskatzen ditu eta teknika apur bat. Balaztarik ez izatean, pixka bat bizia izan behar zara. Bestalde, potentzia asko behar da. Azkenean, piñoi bakarrean zoaz denbora guztian. Pistakoei hori igartzen zaie, potentzia asko izaten dute. Indarrak ere ondo neurtu behar dira. Ari-negi joanez gero, hanketan indarra faltan izaten da gero.

**Lasterketakegiten jarraitzeko asmoa duzu? Baduzu kirola serioago hartzeko asmorik?**

Afizioa bakarrik dela esango nuke. Bartzelonakoa, adibidez, Munduko Kopako lasterketa bat da. Horrekin batera Milanen egiten da beste bat eta New Yorken bi. Lau lasterketa horietan puntu gehien lortzen dituen izaten da irabazlea koparen irabazlea. Bartzelona gertu dago eta joan gara, baina besteak... New Yorkera joateak izugarriko aurrekontua du, ez da posible. Milanekoa... Lagunak badabiltza bertara joan behar dugula esaten, baina ez dakit... Gurea afizioa da eta ez beste ezer, baina jarraitu dugula ziur.





# IRAILAK 21 ARRASATE BIZIPOZAREN

PIRRITX, PORROTX ETA  
MARIMOTOTS · ANE ETA  
PIRATEKIN PARRANDAN ·  
KIROL EGOKITUAK ·  
KAXOI TAILERRA · TXAKUR  
ERAKUSTALDIK · HAZI  
LANDAKETA · DANTZARIAK ·  
ABESBATZA · ERRALDOI  
ETA KILIKIAK HERRITIK  
ZEHAR · SERIGRAFIA ·  
PUZGARRIAK · APAR FESTA ·  
AURPEGI MARGOKETA ·  
LUDOKETA TXOKOA · ESKULANAK ·  
KARAOKEA · BERRAMESTEN  
TAILERRA · BAZKARI HERRIKOIA...



## WWW.BIZIPOZA.ORG

### SARRERAK SALGAI

- Elkar Dendak:  
Arrasate eta Bergara
- Arrasateko Gazte Bulegoan
- Egunean bertan



**SARRERA: Banakakoa: 5 € · Gurasoak DOAN · Irrien Lagunak txarteldunak: DOAN**  
**BAZKARIRAKO TXARTELA: 5 € · Egunean bertan erosi ahal izango da**

### ANTOLATZAILEA



### ELKARTEAK

AFESTTA · ASPANOI · KALE DOR  
KAYIKO · GKEF · CHERNOBILEN  
LAGUNAK · BEROA · PAUSOKA ·  
UME ALAIA · BANAIZ BAGARA ·  
ARNASA · ETIOPIA UTOPIA · AURRERA  
ATERA · GURE SEÑEAK · BOCALAN  
BIAK BAT · GIZAKIEN LURRA · AMPGYL ·  
GEHITU · GURE NAHIA ELKARTASUNA

### LAGUNTZAILEAK

EKIN EMAKUME TALDEA · PORTALOI KULTUR  
ELKARTEA · ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSA ·  
ARRASATEKO GAZTETXEA · MARITXU KAJOI ETA  
SANTAMAS KOMISIÑUEK · ARIZMENDI IKASTOLA ·  
ARRASATE HERRI ESKOLA · ASPACE · BAGARA  
HERRIGINTZAN · TXIKITXU-ARROSTAITZ DANTZA  
TALDEA · EREINDAJAN · SEXOLOGIA ZERBITZUA ·  
AED ELKARTEA

### BABESLEAK



*Gainera, eskaintza berezi hau!*

Irailaren 21ean Irrien Lagunak Gizartegintza Elkartek antolaturik Arrasaten ospatuko den Bizipozaren Jaia (BPJ) harira, eta Goiena Komunikazio Taldearekin elkarlanean, eskaintza hauek egin nahi dizkizuegu bi elkartek.  
**Irailaren 30era arteko eskaintza da.**

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



### 1. eskaintza Goiena Klubeko Harpidetza + IRRIA aldizkaria Harpidetza

- Irrien Lagunak motxila\*
- BPJ kamiseta\*
- BPJ familiarentzako sarrera

**60€**



### 2. eskaintza Goiena Klubeko bazkideendako

- IRRIA aldizkaria harpidetza
- BPJ kamiseta\*
- BPJ familiarentzako sarrera

**30€**



**ZATOZ GOIENAKO EGOITZARA IZENA EMATERA, IRAILAREN 30A BAINO LEHEN: Arrasateko Otalora Lizentziaduna 31n gaude.**





# UDAKO ARGAZKIEN

Argazki guztiak fotoblog honetan

Baita hemen ere: 



**HONDARTZA ETAMENDIA.** Pylaren dunan aurtengo ekainean ateratako argazkia da goikoa. Egileari zalantza geratu zitzaion: "Hondartza edo el Corte Inglés da?" /Argazkia: Martin Uriarte /Arrasate



**LLANES.** Oñatiarrak Asturiaseko hondartza eder horretan egindako argazkia bidali du. /Argazkia: Iñon Garate /Oñati



**TXILARRAK.** Argazkia abuztuko egun batean Zorkrutzen ateratakoa da. Kolore desberdinetako txilarrez betetako alfonbra bat zegoela ematen zuen. /Argazkia: Ane Pico /Oñati



**APARFESTA.** Sopolako San Pedro jaietan ikastolako jolaslekuan umeentzako gunea jarri zuten. Apar festa egin zuten eta umeek primeran pasa zuten (eta gurasoak pozik!). Udako egun bero baterako plan aparta! /Argazkia: Aimar Elortza Gorrotxategi /Arrasate



**PARADISUKO ILUNABARRAK.** Thailandia hegoaldeko Koh Tao irland atera zuten goiko argazkia, aurtun abuztuaren 17an. /Argazkia: Joseba Gabilondo /Eskoriatza



**BASOAKRISTALEZKO BOLAN.** Thailandiako Koh Racha Yai uhartean ateratakoa da 2013an egindako bidaian. Bertako palmera basoa agertzen da kristalezko bola baten bitartez. /Argazkia: Xabier Urteaga /Oñati



**KAYAKEAN.** Oria ibaian, abuztu honetan, Orion alokatutako kayakean. Lortuko ote zuen pasatzea? /Argazkia: Andoni Iñarra /Arrasate



**IKASLEEKIN.** Tanzaniako Ng'iresi herrialdeko ikastolako mutikoeekin. Aurtengo uztailean egindak argazkoa da. /Argazkia: Ainara Aranzabal Lasagabaster /Aretxabaleta



**MASAI MARAKO EMAKUMEEKIN.** Ainara, Kenyan Masai Marako emakumeeekin. /Argazkia: Juan Antonio Cruz Remedios /Aretxabaleta



# X. GOIENA LEHIAKETA

an: [blogak.goiena.eus/argazkiak](http://blogak.goiena.eus/argazkiak)

udakoargazkiak  udakoargazkiak



**ITSAS-LAMIAK.** 2013ko udan Galiziako Boiro herrian ateratako irudia da. Sei t'erdietan Boiro eta Galiziako itsasertz askotan txirlak edota barraskilotxoak biltzen dituzten pertsonen ogibi-dea ageri da. Autokarabanen esnatu eta malkarrak kenduta bizirik dirauen lanbide tradizional baten egunerokoa erakutsi nahi duen erretratua. /Argazkia: Joxe Mari Gabilondo Millet /Bergara



**GOIZARGIA MURUTIK.** Argazkia goiz eder baten Murutik aterata zuten. Eguzkiak, irteten ari dela, mendizalearen silueta nabarmendu egiten du. /Argazkia: Uxue Bengoetxea Romaratezabala



**ITXASOAN JOLASIEN.** Cambrillsen aurtengo abuztuan ateratakoa da. Aritz bere seme Paulekin agertzen da. /Argazkia: Luis Errasti/Aretxabaleta



**TANZANIAKO BIZITZA.** Afrikan, Tanzania herrialdean egindako argazkia da. Hango herrixka bateko eguneroko bizitza irudikatzen du. /Argazkia: Edurne Idigoras



**UMEAK BARREZKA.** Mozambiquen umeak barrezka. /Argazkia: Raul Gonzalez



**HIMBA EMAKUMEA.** Namibia Iparraldean Himba herrialde bat bisi-tatu genuen eta bidaiako esperientziarik izugarrienetakoa izan zen. Emakume hau bere herrixkan zegoela atera nuen argazkia. /Argazkia: Mikel Zamora/Aretxabaleta



## Oinarriak\*

- Parte-hartzaile bakoitzeko, gehienez, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
  - Egilearen izen-abizenak eta herria.
  - Harremanetarako telefonoa.
  - Argazkia noiz eta nongoa den.
  - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak jasotzeko epea: uztailaren 11tik irailaren 21era arte (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (pape-rean ondo erreproduzitzeko adinakoa bereizmenarekin).
- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbi-dera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, Arrasate.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira.

\* Oinarri guztiak: [ttiki.com/70956](http://ttiki.com/70956)

## Sariak:

- 1. saria:** Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.
  - 2. saria:** Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaiak-en eskutik.
  - 3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gu-re Ametsa jatetxean.
- Herritarren saria:** SPC 5604S liburu elektroniko irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.
- Boto emaleentzat saria:** Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA: **goiena**

Laguntzaileak:





# KULTURA



Erakusketan parte hartzen duten eskultoreak, egubakoitzeko inaugurazioan. Ezkerretik eskumara: Zugasti, Olmo, Jauregi, Arregi, Olazabal, Ugarte, Anda eta Ruiz de Egin. | T.M.

## Itzalean egondakoak, argitara

Zortzi eskultoreren lanak batzen dituen 'Amets-kabi' erakusketa zabaldu dute Arantzazun

**TXOMIN MADINA** | OÑATI

Zapatuaz geroztik zortzi eskultoreren 24 lan ikus daitezke Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Rikardo Ugarte, Jose Ramon Anda, Jose Zugasti, Iñaki Ruiz de Egin, Iñigo Arregi, Iñaki Olazabal, Koldobika Jauregi eta Guillermo Olmo dira *Amets-kabi* izeneko erakusketan euren piezak jarri dituzten artistak, denak ere 1942 eta 1960 artean jaioetakoak.

"Beste bi belaunaldi oso indartsuren artean harrapatuta geratu den belaunaldia da", azaldu zuen egubakoitzean egin zen inaugurazio ekitaldian Xabier Saenz de Gorbeak, erakusketaren zuzendari artistikoak. Bere esanetan, Arantzazu Gaur Fundazioak antolatutako erakusketa egiteko ideia eskultoreena euren izan zen: "Euren sortze-ikuspegiaren ezagutza sozialean hutsune bat dagoela konturatu ziren eta indarrak batzea erabaki zuten".

### Antzekotasunak eta aldeak

Belaunaldi berekoak izateaz gain, zer dute komunean zortzi artistek? "Denbora eta espazioa interesatzen zaizkiela, kontzeptu hauei buelta ematea", dio erakusketaren zuzendari artistikoak. "Hausnarketarako kontzeptuak dituzte; baita materia, estruktura eta prozeduren bidez, esperientziarako ere. Ez izaera konplexuko gaiak erabiliaz; baizik eta izaera sententzialeko gai eta erreferentziekin, uki-menaren bidez ere uzten dutenak obrara gerturatzen". Saenz de Gorbearen esanetan baina, bakoitzak bere izaera propioa

du, eta, eta zaila izan zaio kontakizuna egitea.

Erakusketaren kokalekuari buruz galdetuta, Saenz de Gorbeak dio, Arantzazu mugarri bat dela Euskal Herriko abangoardia

estetikoei dagokionez: "Gura edo ez, denok gara Arantzazuko seme-alaba, ikastetxeetatik-eta, denok etorri gara-eta hona umetan. Nola hazi den ikusi dugu, eta denok gara natura indartsuaren

testigu. Indartsua da, era berean, artistek beronen aurrean erakusten duten energia. Naturaren eta artearen lengoaiak tentsioan jartzen dira, baina harremanetan ere bai".

### Urriaren 19ra arte

Erakusketa urriaren 19ra arte egongo da zabalik: bariku eta zapatuetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, eta domeka eta jaiegunetan, 11:00etatik 14:00etara.



T.M.

**IÑIGO ARREGI** Eskultore arrasatearraren hiru piezetako bat —argazkian ikusten dena—, espresuki erakusketarako egin du: "*Arantzazuko triangelua* du izena, egurrezkoa da eta naturak, arteak eta izpiritualtasunak osatzen duten nahasketa islatu gura du".



T.M.

**JOSE ZUGASTI** Alanbrea da bere lanen oinarria. "Niretzat oso berezia da erakusketa Arantzazun izatea: batetik, artista oso interesgarriekin lotuta dagoelako; bestetik, erreserba izpirituala delako. Egungo krisiarekin, baita artean dagoenarekin ere, hemen egotea gogojardunak egitea bezala da".



T.M.

**RIKARDO UGARTE** Erakusketako beterranoenaren hiru piezak *Brankak* sortakoak dira. "Jorge Oteiza eta Nestor Basterretxearekin adiskidetasun handia nuen, eta etorri nintzen eurengana Arantzazura. Lehen aldiz nire obra batekin itzultzea urrats handia da. Errepikatu egin behar da".



T.M.

**KOLDOBIKA JAUREGI** Burdina edo harria bezalako materialak lantzen dituen artistarentzat, sorpresa bat izan zen erakusketa jartzeko Arantzazu Gaur Fundaziotik jasotako proposamena: "Erakusketa bera baino, sinbolikoki duen karga da hemen garrantzitsuena".





Thaïs Morell, Andres Belmonte eta Ales Cesarini. | IMANOL SORIANO

# Bossa-nova, jazz eta pop elektronikoaren dotorezia Kulturaten hiru egunez

- Kulturate Akustikoen lehenengo asteburua borobila izan da
- Thaïs Morell izan da aurkikuntza handiena; ikusleak kantuan jarri ditu

**JAGOBA DOMINGO** | ARRASATE  
Thaïs Morell brasildarrak Kulturate akustikoen muga goian jarri zuen. Ordu eta erdiz ikusleak liluratu zituen eta folkloreak, jazzak eta bossa-novak eskua ematen duten unibertsoa eraman. Hori gutxi balitz, amaitzeko arrasatearrak zutik, dantzan

eta bi ahotsetara kantatzen jarri zituen sanba erritmora. Munduko folklore musikarekin maiteminduta dagoela aitortu zuen brasildarrak, eta bere musikak horien eragin zuzena du. Erritmo, tempo eta egitura ezohikoak erabiliz, bakarka zein taldearekin, *Cancionera* diskoaren errepasoa

egin zuen entzuleen arreta guztiz bereganatuz.  
Morell ondo baino hobeto babestuta etorri zen, teklatu zein zeharkako txirulan Andres Belmonterekin; kontrabaxuan Ales Cesarinirekin eta perkusio lanean David Gadearekin. Azken horrek egundoko lana egin zuen



Txuma Murugarren, Kulturaten. | IMANOL SORIANO

dozenaka tramankulurekin Morellen makineria martxan jartzen.

**Murugarren, etxean bezala**  
Telecastera eskuetan eta Rafa Acevesen organoaren babespean, Txuma Murugarren egubakoitzean izan zen Arrasaten. Kulturate akustikoen seigarren edizioari hasiera eman zion oreretarrak, publikoarekin solasaldia egiten zuen bitartean. Murugarrenek erosotasuna transmititu zien ikusleei, momentu askotan *crooner* baten paperean sartuta eta beste batzuetan Acevesen laguntzarekin, Faemino y Cansado umoristen rola hartzen.

Hala ere, musikaren hotsak eraman zituen ikusleak Kulturatera. Murugarrenen eztarritik irteten zen ahots urratuak eta telecaster gitarraren jatorrizko tinbre gordinak, entzuleak harripatu zituen Acevesen ezinbesteko laguntzarekin, horrek ematen baitzion Murugarrenen gordin-tasunari kontrapuntu organoaren goxotasunarekin.

**Popa eta elektronika atzo**  
Dotore donostiarraren bisitak ere ikusmina piztu zuen eta jende nahikotxo hurbildu zen Kulturatera atzo, domeka, iluntzean *Variaciones* lan berriaz gozatzera.



B3 Dixieland, Begoña Divar abeslariaren gidaritzapean. | IMANOL SORIANO

## New Orleanseko doinuek Sastiña astindu dute

B3 Dixieland gasteiztarrek 20ko hamarkadako doinuekin alaitu zuten egubakoitz arratsaldea

**J.D.** | ARAMAIO  
Udako oporrak amaituta, musika Sastiñara bueltan etorri zen egubakoitzean, eta ez edonola gainera. B3 Dixieland gasteiztarrek Aramaiora gerturatu ziren 20ko hamarkadako dixie musika

berpiztera, New Orleanseko doinuak gurera ekarri; eta beste behin, Sastiñako ermitatik Aramaioko Bizente Goikoetxea plaza gogotik alaituz, saxo, tronboi, klarinete, banjo eta kontrabaxuaren oihartzunekin.

Ohiturari eutsiz, hasieran hotz xamar hasi zen publikoa, baina errepertorioarekin aurrera jarraitu ahala eta musikariak berotzen hasi zirenean gozatu ederra hartu zuten bai lehenengoek, baita bigarrenek ere.  
Begoña Divar abeslari eta klarinete jotzaileak gidaturiko zazpikotea gogotsu aritu zen; esandako 20ko hamarkadako doinuak gurera ekartzen eta dotorezia eta estiloarekin jazz musikaren hastapeneko estandarrak propio egiten. Besteak beste, Joe Oliver, Spencer Williams edo Kid Ory maisuen ikasbideak jarraitzen dituzte gasteiztarrek eta egubakoitzean argi utzi zuten Gasteizeko Jazzaldian parte hartzearen arrazoia.

**Blues, jazz eta bluegrass-a**  
Dixie musika ordea ez da protagonista bakarra izango Sastiñan irailean zehar. Datorren egubakoitzean Four Friends bilbotarrek, jazz eta soul doinuak eskainiko dituzte; hilak 19an, The Romanticosen blues klasikoa izango da entzungai; eta amaitzeko, irailearen 26an, Algortako Wets Bluegrass Band taldeak joko du.



Antonio Lizana saxofoiarekin zapatuko kontzertuan. | I.S.

## Antonio Lizanak entzuleak poltsikoratu ditu bere jazz-flamenko goxoarekin

**M.B.** | BERGARA  
Ezusteko atsegina izan zen Antonio Lizana abeslari eta saxofoi-jotzailea zapatu iluntzean Bergarako Seminarioko jolaslekuan batu ziren entzuleendako. Cadizeko gaztearen jazz-flamenko goxoak entzuleak aulkitik mugitzeke izan zituen ordu eta erdiz. Saxofoiarekin jazzetik gertuago eta ahotsarekin flamenkora gehiago hurbilduz, bien arteko

fusio erabat naturala erakutsi zituen. Taldearekin aritu zen –bateria, gitarra, baxua eta perkusioa– eta *De viento* bere lehen diskoaren errepasoa egin zuten. Hain zuzen, Euskal Herrian, Musikenen amaitu zituen Goi Mailako Jazz ikasketak eta egonaldi hartan sortutako Antonio Lizana Group proiektuarekin grabatu zuen zapatuan aurkeztutako diskoa.



IÑAKI  
CERQUEIRA

## GURE MUSIKA TALDEAK

Iñaki Cerqueira, *Dj Kirrin*, bonbilla eskuetan duela. | XABIER REZABAL

# "Urtean lau disko kaleratu behar ditut Lonelyowl diskoetxearekin"

- Richie Hawtinek oñatiarraren 'Dark side' kantua erabili du hiru astez
- Etxeko estudioan buru-belarri lanean dabil produktore lanetan

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Iñaki Cerqueira oñatiarra askorentzat *Dj Kirrin* bezala da ezaguna, baina, oraingoan, disko-jartzaile lana albo batera utzi eta produktore lana dela-eta da albiste. Lonelyowl Recods diskoetxearekin kontratua sinatu du eta hiru hilean behin disko labor bat kaleratu beharko du. Dagoeneko *Nameless* eta *Lonely01* kalean daude eta luzerako proiektua da. Horrez gain, udan lan guztiaren fruituak jasotzen hasi da Cerqueira. Izan ere, Richie Hawtinek, munduko dj ezagunenetarikoak, oñatiarraren *Dark site (original mix)* kantua erabili du hiru astez Enterexperience jaialdian.

## Noiztik produktore lanetan?

Honetan sartu aurretik rap eta hip-hop musikan sartuta ibili nintzen. Egia esan, proiektuan kasualitatez sartu nintzen. Mikel Gil, Lonelyowl Records diskoe-txeko nagusia, bazkari batean

ezagutu nuen eta bertan nire kantu pare bat jarri nizkion mugikorrean. Gil diskoetxea sortzeko prozesuan zebilen, Euskal Herriko jendea fitxatzen zebilen eta harekin kontratu bat sinatzeko proposamena egin zidan. Baiezkoa eman nion eta hori dela-eta hiru hilean behin disko labor bat kaleratzeko konpromisoa hartu dut. **Nolakoa da sortze prozesua?** Hutsetik hasten naiz. Gaur egun, pertsona askok eredu antzekoak erabiltzen dituzte kantuak sortzeko, gero ereduaren gainean hainbat aldaketa egiten dituzte eta kantu

propio bezala aurkezten dituzte, baina emaitzan antzematen da. Horrek ekartzen du azkenaldian kantu asko antzekoak izatea. Nire sortze prozesua hutsetik hasten da; pixkanaka base erritmikoa izango zena egiten dut eta horren ostean hainbat efektu eta detaile grabatzen ditut. Dena etxean dudanean estudioan egiten dut, azkenaldian gaez lan egin eta horren ostean hasten naiz konposatzen. Gaur egun, disko-jartzaile askok produktore lanak ere egiten dituzte; bestela, nire ustez, lekuz kanpo geratzen zara. Zure kantuak egin eta disko-jartzaileek horiek erabiliz gero, horrek ospea eta erre-konozimendua ematen dizu. Gil momentu honetan Miamin, Amsterdamen, Milanen... dabil diskoak jartzen, eta hori bai beretzako eta baita niretzako ere oso onuragarria da; azkenean, nire musika munduan zehar eramaten du. **Zein kontzeptu dituzu buruan kon-**

**"Musika elektronikoaren oinarrian ere harmonia dago"**

## ZERTZELADA



## ITSASO LEHORRA

Estiloa: Deep-house, Nu-disko.

Egilea: Iñaki Cerqueira (Oñati, 2014).

Argitaletxea: Alertha Records.

Iraupena: 22:41 minutu.



## NAMELESS

Estiloa: Elektronika.

Egilea: Iñaki Cerqueira (Oñati, 2014).

Argitaletxea: Lonelyowl Records.

Iraupena: 27:21 minutu.



## LONELY01

Estiloa: Elektronika.

Egilea: Iñaki Cerqueira (Oñati, 2014).

Argitaletxea: Lonelyowl Records.

Iraupena: 22:25 minutu.

## posatzeko orduan?

Azken finean, musika da eta musika elektronikoak musikaren oinarri berak jarraitzen ditu. Patroi bat jarraitu beharra dago; 4x4, esaterako, eta horren ostean sintetizadoreak, efektuak, ahotsak... edo dena delakoa sartzean ere harmonia bat jarraitu behar da.

Rock kantu batean bezala ezin duzu sintetizadorearekin *la* nota bat egin eta baxuarekin *sol* bat. Hori guztia kontutan izanda, egun bakoitzeko aldaratearen eta pertzepzioaren arabera kantu lasaigoak edo alaiagoak izan daitezke. Egia esan, ni musikari etiketak jartzen oso txarra naiz. Lonelyowlekin ateratako diskoak, adibidez, Frantziara bidaltzen ditugu masterizatzera eta bertakoek esan ohi didate zein musika den, deep-house kantu bat den edo nu-diskotik gertuago dagoen.

## Kontratuak ere jarraitasuna eramatera behartzen zaitu.

Bai; bestela, askotan musika egiten dugunoi gertatzen zaiguna zera da: etxean hainbat abesti gordetzen ditugu eta horiek kaleratzea lan handia da. Lonelyowlekin sinatu dudanean akordioarekin nire burua ere sortzera behartzen dut, gutxienez urtean lau disko argitaratu behar ditut. Hasiera baten, diskoa ez da formatu fisikoan kaleratzen, Beatport plataforman jartzen da salgai, eta, bertan salmentak izanez gero, diskoa biniloan kaleratzeko aukera egongo litzateke. Kantuak saltzea oso zaila izaten da, baina nire kasuan, gutxienez, badakit India inguruan erosi duela batek edo bestek. Gainera, diskoetxea promozio guztia egiteaz arduratzen da, eta hori lagungarria da.

## Bildumako lehenengoak *Itsaso lehorra* du izena.

Bai, *Itsaso lehorra* Alertha Recordsekin kaleratu dut, beste elektronika estilo bat da, deep-house edo nu-disko estiloa. Lonelyowlekin beste estilo batzuetako kantuak egiten ditut; beraz, Gilekin hitz egin ostean, kantu horiek Alertha Recordsekin kaleratzea erabaki genuen. Azken finean, bai niretzako baita beretzako ere positiboa zen; izan ere, nire musika zabaltzen dugu eta, nire izena Lonelyowlekin lotuta dagoenez, diskoe-txea ezagutzera ematen dugu.



# Haurdunaldia, katua eta toxoplasmosiaren arriskua

Kutsatzeko arriskua murrizteko beharrezkoa da zenbait neurri hartzea

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Hainbat sendagilek haurdunaldian katuez desagiteko gomendioa egiten dute. Ekiñe Aizpurua albaitariak, ordea, ez du beharrezkoa ikusten, eta hartu beharreko neurriak zeintzuk diren azaldu du *Sabeletik mundura* atarian. Aizpuruak dio kutsatze prozesua ia ezinezko bihurtzeraino murriztu daitekeela neurri egokiak hartuz gero. "Gure katua etxean badabil eta pentsua jaten badu, oso zaila da toxoplasmosiaz kutsa-

tzea", dio Aizpuruak. "Eta hala izanda ere, bere gorotzen ondorioz gu kutsatzea ia ezinezkoa da higiene neurri egokiak jarraituz gero. Lehenago kutsatuko gara ondo egosi gabeko haragia edo ondo garbitu gabeko barazkiak jateagatik".

## Kutsatze prozesua

Inguruko lurrak eta urak katuen gorotzen bidez kutsatzen dira. Gainerako animaliak inguruko ur kutsatuak edatean kutsatzen

dira. Katuak zein gizakiok kutsatutako animalia horien haragi gordina edo gaizki egosia jaterakoan kutsatzen gara. Katuen gorotzek kutsatutako uren bitartez kutsa daitezke inguruko barazkiak eta fruituak ere.

## Prebentzio neurriak

Ez jan haragi gordinik edo jan aurretik izoztu. Saihestu baratzeko lanetan edo lorezaintzan katuen gorotzez kutsatuta egon daitezkeen urak erabiltzea, eta edozein barazki edo fruitu gordin jan aurretik ondo garbitu. Murriztu, ahal den moduan, katua irteerak etxetik kanpo zein harekiko kontaktua etxetik kanpo badabil. Zaindu katua elikadura: haragi gordinik edo paterik ez eskaini.

Egunero kendu katua gortzak, eta besteren batek egiten badu, hobeto. Ezinezkoa bada, eskularruak eta maskara jantzi dezakezu lasaiago jarduteko. Hondarraren ontzia garbitu behar dugun bakoitzean ontzia ur irakinetan murgildu eta ur berotz garbitu.

Katuarekin jolasean jardun ondoren eskuak ondo garbitu behar ditugu. Azkenik, odol froga egin diezaiokegu katuari edo analisisia haren gorotzei. Kokzidien aurkako tratamendua eta antibiotikoa eman diezaiokegu katuari analisisiek emaitza positiboa eman badute.



Katua haurdun dagoen emakume baten sabelaren gainean. | SOPHIE

## Ikasturtea planifikatzeko sasoian, izan baikorra

Ohiko erritmora itzuliko dira asteen familia asko eskolarekin eta eskolaz kanpoko jarduerekin

L.Z. | ARRASATE

Bailarako neska-mutiko gehienek gaur, astelehena, emango diote hasiera ikasturte berriari. Badira egun batzuk guraso gehienok lanera bueltatu ginela, eta eskolen hasierarekin pauso berri bat emango dugu denok ohiko ordu-egietara eta zereginetara.

Urtero legez, ohikoak dira normaltasunerako itzulera hone-tan hedabideetan eta sare sozialetan ematen dituzten aholkuak eta gomendioak. Aipagarrien artean dago umeari dituen kezka edo beldurak plazaratzeko aukera ematea. Atera gaia eta entzun

umeari. Ezinegon sortzen duenari buruz hitz egiteak laguntzen du urduritasun hori jaisten. Lagun-garria izan daiteke ikasturte berriaren hasierak ekarriko dituen abantailak nabarmentzea: lagunekin topo egitea, ikasturtean egingo dituzten txangoak edo ekintzak, ikasiko dituenak...

Ordutegi eta martxa normalera apurka-apurka bueltatzeak ere laguntzen du. Lotarako ordutegia, jatorduetakoak... Hala, lehenengo egunetako logurak eta nekeak sor ditzaketen suminkortasuna eta kasketak murrizten laguntzen du.

Umearekin batera prestatu eskolarako materiala: amantala, motxila, margoak... Lagunduko dio datorren aldaketaz kontzientzia hartzen.

## Aukera berriak

Iraila ikasturte berria planifikatzeko unea ere izan ohi da familia askotan. Ze erritmo izango dugu ikasturtean? Ze ordutegi? Zenbat eta zein eskolaz kanpoko jarduera umeek? Eztabaida dago eskolaz kanpoko jardueren kome-nigarritasunaren inguruan. Ohiko aholkuak dira eskaintza ondo aztertze, eta erabakia hartu aurretik umearen interesguneak kontuan hartze. Ez izan zalantzarik, umeak gehien eskertuko duena gurasoekin egotea eta jolas ez arautuan aritzea izango dira. Horregatik, behin martxa hartutakoan egin jarraipena: nola amaitzen du eguna umeak? Pozik, haserre, nekatuta, gainezka eginga...?

## Abuztuan agortu da lana eta familia uztartzeko diru laguntzen partida

L.Z. | ARRASATE

Otsailetik aurrera eskatutako kontziliaziorako diru laguntzek ezezkua jasoko dute, aurrekontua agortuta dagoela argudiatuta. Horrela eman du aditzera Eusko Jaurlaritzako bozemaile Josu Erkorekak. 17,3 milioi euro zeuden aurtengo aurrekontuan kontziliazioa laguntzeko eta diru hori urtarrilean eta otsailean eskatutako laguntzekin amaitu da. Jaurlaritzatik berretsi dute ez dutela diru gehiago jarriko orain.

Gaixo dauden senideengatik lan-utzialdia edo lanaldia murriztuta ikusi duten langileei dagokien laguntzarako amaitu da kreditua, baita seme-alabak zaintzeko kontrataziorako ere.

Erabakiak, zalantzarik gabe, eragin zuzena izango du hainbat eta hainbat familian.

ELA sindikatuak, berriz, salatu du tramitatutako diru laguntzen %37 kobratu gabe dagoela.

## Sistema berrikusi

Sistema berrikusteko asmoa agertu du Jaurlaritzak. Asmoa da "kasu handiagoa" egitea lana eta familia uztartzeko laguntzei, umea jaiotzeagatik ematen dituztenei baino. Erkorekak iragarri du Jaurlaritzak gogoe-ta hasiko duela. Mahai gainean dauden irizpideen artean nabarmentzen da eskatzaileen diru-sarreraren jarraipen zorrotzagoa egitea.



Neska-mutikoak parkean jolasean Bergaran. | L.Z.

## ERREZETA

### 'Dinosauroa eta sekuoia' ipuinak, irakasgai polita

L.Z. | ARRASATE

Iaz argitaratu zuen Herminia Mas idazle katalanak *El dinosauro i la sequoia*. Arretzeko Haritza argitaletxeak kalera-tu du euskaraz. *Dinosauroa eta sekuoia* izeneko ipuinean, naturak lezio ederra ematen dio dinosauro gazte bati. Hark uste du indarra erabiliz nahi duen guztia lor dezakeela, baina ez da konturatzen indarkeriak irtenbiderik gabeko egoera batera bultzatzen duela, beti ager daitekeelako hura baino indartsuagoa den norbait. Eta hori da gertatzen zaiona.

Hain zuzen ere, indarke-riaren alferrikakotasunaz eta izaki bizi guztiak errespetatu beharraz gogoeta egitera bultzatzen du Herminia Mas idazlearen ipuinak. Era berean, 2 urtetik aurrera kontatzeko modukoa da, eta 5 urtetik gorakoek irakurtzeko modukoa.

## IRTEERA

### Monjardin edo Deioko gaztelua, Lizarra aldean

L.Z. | ARRASATE

Bi kilometroko igoera polita egin daiteke Villamayor de Monjardin herrian abiapuntua hartuta. Herriko frontoiaren ondoan dagoen Ilargia tabernan eskatuko dugu gazteluan sartzeko giltza, eta gorantz abiatuko gara galbiderik ez duen bidean. Hori bai, itzal gutxiko bidea da. Gaztelua erromatarrek eraikia, musulmanen gotorleku izana eta Iruñeko errege Antxo Garcesek bere egina izan zela diote historialariek. Karlsten gotorlekua ere izan zen Deio. Igoera erraza da: bi kilometro eta 208 metroko desnibela ditu. Gaztelutik bista zoragarriak daude. Erdi Arokoak dira gazteluaren horma zatiak, baita euri-urak jasotzeko antzinako biltegia ere. San Estebanen omenezko ermita dago barruan eta urtean bitan egiten dute erro-meria bertakoek.





### 1. ETXEBIZITZAK

#### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. 80 metro koadro ditu. Bi loglela, bi bainugela, sukalde eta egongela. Igogailua eta berokuntza. Egoera oso onean. Jantzia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659 59 71 21 (Maidar)

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, egongela -jangela, bi komun eta sukalde. Deitu telefono zenbaki honetara: 650 56 62 06

#### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Antzuolan etxebizitza errentan hartzeko asmoa daukagun bikote bat gara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 676 61 15 47

**Arrasate.** Bi logelako etxebizitza behar dut errentan. Hilean 500 euro ordain ditzaket gehienez. 651 54 10 26 edo 634 12 56 87

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. Hilean 500 euro ordain ditzaket gehienez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 68 56 03

**Bergara.** Etxebizitza bila nabil. Batendako modukoa edo partekatua izatea berdin dit. Kontratuarekin komeni. Urgentea da. 672 68 57 77

**Bergara edo Arrasate.** Etxe bila nabil. 300 euro inguru ordaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

**Bergara.** Mutil gazte, langilea, etxebizitza bila. Batendako modukoa edo norbaitekin osatzeko. Interesatuok deitu: 669 83 38 75

**Debagoiena.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 00 57 93

### 105. ETXEA OSATU

**Aretxabaleta.** Erdigunean logela ematen da errentan. Zarraila dauka eta telebista jartzeko aukera ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 14 28 89

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean, etxeko gainontzeko guneak ibiltzeko aukerarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679 85 63 48

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Ikaslea bada, hobeto. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 78 87 36

**Arrasate.** Udalpe kalean logela bat ematen da errentan ikasleentzat. 632 09 17 33

**Bergara.** Etxebizitza bila nabil. Pertsona batendako modukoa edo norbaitekin osatzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 83 38 75

**Bergara.** Logela ematen da errentan Ozaeta kalean, etxebizitzako gune orokorrak erabiltzeko aukerarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 63 19 91

**Donostia.** Antigua auzoan, Ondarreta hondartzatik 50 metro-ra eta EHU-tik 8 minutura oinez, beste bi ikaslerekin 2014-2015 ikasturtean etxebizitza osatzeko kide bilagabiltza. Etxebizitzak hiru logela (armairu eta ikas-mahaiekin), bi komun, guztiz hornituniko sukalde, jangela, egongela, terraza eta trasteleku ditu. Hilean 350 euro, gastuak barne (komunitatea, zabor tasa, ura eta berokuntza). Interesa izanez gero,

deitu zenbaki hauetara: 630 11 53 02 (Maialen), 638 33 29 37 (Ane) edo 646 34 75 49 (Edurene).

**Oñati.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat beharko genukeen bi langile gara. Interesaturik egonez gero deitu mesedez 18:00etatik aurrera zenbaki honetara: 653 74 87 51

### 2. GARAJEAK

#### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Uribarri etorbidean, unibertsitate ondoan, garaje itxia ematen da errentan. 609 01 54 63

#### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Ugarkalde auzoan, garaje edo plaza bat errentan hartuko nuke. 617 71 40 50

### 4. LANA

### BERGARA

Sukalde laguntzailea behar da.  
629 26 88 51

### BERGARA

Esperientziadun zerbitzaria behar da taberna eta jantokirako. Bergarakoa bada, hobeto.  
663 02 14 05

#### 401. ESKAINTZAK

**Au pair Dublinen.** Gure haurrak zainduko dituen au-pair baten bila gabiltza. Familia euskal-irlandarra, Dublinen biziitzen. Irailaren erdi aldera hasteko. Euskeraz hitzegitea derrigorrezkoa. Interesatua egonez gero, bidali email bat igorgon@gmail.com helbidera eta lan baldintzak eta eskaintza bidaliko dizkizugu.

**Bergara.** Emakumea behar da urtebeteko neskatala bat zaintzeko. Deitu telefono zenbaki honetara: 606 01 18 32

# ZURE IRAGARKIAK

#### IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | [www.goiena.eus/sailkatuak](http://www.goiena.eus/sailkatuak)

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

#### ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

#### PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.**

**Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

#### 1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu  
102. Erosi  
103. Errentan eman  
104. Errentan hartu  
105. Etxeak osatu  
106. Bestelakoak

#### 2. GARAJEAK

201. Saldu  
202. Erosi  
203. Errentan eman  
204. Errentan hartu  
205. Bestelakoak

#### 3. LOKALAK

301. Saldu  
302. Erosi  
303. Errentan eman  
304. Errentan hartu  
305. Bestelakoak

#### 4. LANA

401. Eskaintzak  
402. Eskaerak  
403. Bestelakoak

#### 5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso  
502. Eman  
503. Bestelakoak

#### 6. MOTORRA

601. Saldu  
602. Erosi  
603. Alokatu  
603. Konpondu  
604. Bestelakoak

#### 7. ANIMALIAK

701. Saldu  
702. Erosi  
703. Eman  
704. Bestelakoak

#### 8. DENETARIK

801. Saldu  
802. Erosi  
803. Eman  
804. Hartu  
805. Trukatu  
806. Galdu  
807. Aurkitu  
808. Bestelakoak

#### 9. HARREMANAK

901. Agurrak  
902. Harremanak  
903. Deiak  
904. Bestelakoak

#### 10. RELAX



Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
[www.inmokorosti.com](http://www.inmokorosti.com)

#### ETXEBIZITZAK SALGAI

##### BERGARA:

- Matxietegi 88 m<sup>2</sup>, 4 logela. Igogailua. Ganbara. Prezio jeitsiera. 204.344 €.
- Barrenkale 113 m<sup>2</sup>, 3 logela, duplex berria. Igogailuarekin.
- Masterreka 72 m<sup>2</sup>, 2 logela, duplexa. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 160.000 €.
- San Lorenzo 65 m<sup>2</sup>, 2 logela. Garajea eta trasteleku aukeran. Berria. 200.850 €.
- Zubiourre 70 m<sup>2</sup>, 2 logela. Erabat berriztua 180.000 €.
- Simon Arrieta 82 m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €.
- Ibargarai 57 m<sup>2</sup>, 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €.
- Zabalotegi 80 m<sup>2</sup>, 3 logela, erabat berriztua. Igogailua eta balkoiarekin.
- Bidekurutzeta 71 m<sup>2</sup>, 2 logela, erabat berriztua. Igogailua eta terraza haundiarekin. 204.344 €.
- Angiozar 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €.
- Madura 57 m<sup>2</sup>, 2 logela, erabat berriztua. 149.000 €.
- Zabalotegi 54 m<sup>2</sup>, 2 logela. 78.280 € PREZIO JEITSIERA.
- Zubiourre 104 m<sup>2</sup>, 2 logela. Berria. Igogailua. Trasteleku, Terrazarekin.
- Martoko 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, berrogailua eta igogailua. 60.000 €.
- Aranerreka 79 m<sup>2</sup>, 3 logela, berrogailua, trasteleku. Garajea aukeran. 164.850 €.
- Iraburu 82 m<sup>2</sup>, 3 logela, berrogailua. 120.000 €.
- San Pedro 70 m<sup>2</sup>, 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 138.000 € AUKERA
- Bolu 66 m<sup>2</sup>, 2 logela. Trasteleku. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m<sup>2</sup>, 2 logela. Trasteleku. 100.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Ibargarai 90 m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailua 235.000 €.
- Masterreka 73 m<sup>2</sup>, 2 logela, berrogailua, igogailua. Oso ondo. 195.000 €.
- Ibarra 129 m<sup>2</sup>, 4 logela, berrogailua. 150.000 €.
- Zubieta 60 m<sup>2</sup>, 3 logela. 126.213 €. Berriztua.
- Martoko 140 m<sup>2</sup>, 4 logela. Berria. Oso ondo. 225.000 €.
- Ibargarai, 60 m<sup>2</sup>, 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxietegi, 115 m<sup>2</sup>, 3 logela, trasteleku eta balkoia. Berriztua. Oso ondo.

##### ANTZUOLA:

- Sagasti 140 m<sup>2</sup>, duplexa. 250.000 €.
- Sagasti 86 m<sup>2</sup>, 3 logela. 163 m<sup>2</sup>ko terrazarekin. AUKERA BIKAINA. 216.364 €.
- Behoko Auzoa 60 m<sup>2</sup>, 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailu eta berrogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m<sup>2</sup>. Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m<sup>2</sup>, 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailua eta balkoia. Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €.

##### SORALUZE:

- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

##### ELGETA:

- Torrealde 77 m<sup>2</sup>, 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Ithurbe, adosatua 150 m<sup>2</sup> + 45 m<sup>2</sup> garajea + 90 m<sup>2</sup> lursaila.
- San Roque, 2 edo 3 logela. Prezio onean.

##### OSINTXU:

- Osintxu 85 m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.

**Bergara.** Bergarako 48 urteko emakume euskalduna, ardura-tsua, umeak, persona edadetuak edo lanak egiteko prest dago goizetik 15:00ak arte. 619 44 36 96

**Debagoiena eta Debabarrena.** Erreferentzia onak dituen neska egunez lan egiteko gertu. Garbitasunean eta etxeko lanetan esperientzia daukat. Lege paperak eguneratuta. 602 04 02 97

**Debagoiena.** Emakume a gerbiketa lanak egin edo haurrak zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. 636 50 76 11

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu umeak zaintzeko, atariak garbitzeko edota tailer-rean lan egiteko. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

**Debagoiena.** Emakume arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu, etxeko lanak egin, tabernatan eta abar. Etxean bizi izaten, egun osoz edo orduka ere bai. 615 06 28 04

**Debagoiena.** Emakume espainiarra, eskarmentuduna, nagusiak zaintzeko gertu. Deitu 633 84 65 30 telefonora.

**Debagoiena.** Emakume euskalduna lanerako gertu. Deitu 606 50 25 67 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Eskarmentua dut umeak zaintzen, etxeko lanetan, lantegian, zerbitzari lanetan zein zaintzak egiten. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Etxean bizi izaten, orduka edota gauetan ere bai. 630 20 12 03

**Debagoiena.** Erizaintza laguntzailea naiz eta gauetan edo 11:00etatik 16:00etara bitartean zaintza lanak egingo onituzke. Autoa daukat. Deitu 617 20 59 43 telefonora.

**Debagoiena.** Eskarmentudun neska orduka lan egiteko gertu. 671 97 19 30

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. 606 64 16 09

**Debagoiena.** Geriatria tituladun neska lan egiteko gertu. Ospitalean gaua pasatu edo etxean gaixoak zaintzeko. Autoa daukat. 600 00 51 60

**Debagoiena.** Mutil langile eta arduratsua lanerako gertu. Eskarmentua dut garbitasunean eta nagusiak zaintzen. Sukalde laguntzaile eta garbiketan ere jardun naiteke. Lege paperak eguneratuta dauzkat. 632 26 01 84 edo 658 74 94 63

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Erreferentzia ona eta eskarmentua dut nagusiak zaintzen eta etxeko lanetan. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. Baserrietan ere bai. Deitu telefono zenbaki honetara: 662 43 08 54

**Debagoiena.** Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia dut eta euskaraz badakit. Gidabaimena eta autoa dauzkat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 70 00 24

**Debagoiena.** Neska euskalduna arratsalde edo astebukeratan lan egiteko gertu. Deitu 696 37 79 74 telefonora.

**Debagoiena.** Neska euskalduna nagusiak zaintzeko gertu. Baita etxean bertan bizi izaten ere. Klinika laguntzaile titulua daukat. 688 82 69 68

**Debagoiena.** Neska lan bila. Nagusiak zaintzen etxean bertan bizi izaten edo orduka. Garbitasun lanak ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 28 22 03.

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Sukalde laguntzaile, zerbitzari, nagusiak zaintzen edota garbitasunean lan egingakoa naiz. 663 40 92 67

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: denetarik garbiketarak, ume eta nagusiak zaindu etxean, ospitalean edota egoitzan, gidari, banatzaile eta abar. 696 32 13 69

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: nagusiak eta umeak zaindu, denetarik garbitasunak, baita ostalaritza eta baserrietan ere, edo tabernan sukaldari. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Esperientziaduna. Autoa daukat. 697 20 00 86

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: nagusiak zaindu, tabernan sukaldari, garbiketarak eta abar. Autoa daukat. 636 11 23 40

**Erainkuntzan** eta obra publikoetan lan egingo nuke. 628 74 12 13

**Klinika laguntzaile.** Nagusiak eta gaixoak zaintzeko prest, egunez edo gauetz, etxean zein ospitalean. 609 98 02 52

### 5. IRAKASKUNTZA

#### 502. EMAN

**Bergara.** Ingeles eskolak ematen ditut. Maila guztietan. Cambridge-eko eta HE0-ko azterketak gertatzeko ere bai. Talde txikiak. Goizetan, eguerdian edo arratsaldean. 618 91 32 89

### 6. MOTORRA

#### 601. SALDU

**Karabana.** Dethleffs Beduin karabana salgai. 7,5 metro. Eje bikoitza. Logela ohe handiarekin. Beste gelatxo bat bi literarekin. Aire girotua. Egokia nonbaite geldik uzteko. 606 53 53 52

### 7. ANIMALIAK

#### 703. EMAN

**Arratoi txakurrak.** Arratoi txakur txikiak, emeak, ematen dira opari. 669 89 55 74

**Katuak eta katakumeak opari.** Katu helduak eta abuztuan jaiotako katakumeak ematen dira opari. 629 09 63 46 edo 660 92 70 71

### 8. DENETARIK

#### 802. EROSI

**Bergara.** Herritik gertu lursaila erosiko nuke. 660 64 20 42

### 806. GALDU

**Audifonoa galdut Oñatin.** Uztailaren 24an, eguena, Plazatik San Lorentzora bidean audifonoa galdut. Norbaitek jaso badu, mesedez, dei dezala: 688 63 82 28

### 9. HARREMANAK

#### 904. BESTELAKOAK

**Autoan Debagoienetik Bastidara.** Egunero autoz Bastidara joan behar dut irailetik aurrera. Inguru haletara doan norbaitekin gastuak banatu nahi ditut. Orduategia adosteko. 680 34 29 60

**Debagoienetik Gasteizera.** Irailetik ekainera arte. Gasteizera doan norbaitekin autoa konpartitu nahiko nuke. 7:30ean irteten eta 16:30-17:00ak inguruan itzultzeko. 645 00 62 79



ETXeko SUKALDERAINO

Antonio Murillo | Tabernaria

- Sukaldea leku intimoa dela uste du, hizketarako inguru paregabea
- Ostalaritza ez luke inolaz ere beste lanbide batengatik aldatuko

"Batzuek topo egiten dute euren lanbidearekin. Nik bilatu egin nuen"

**MAIALEN TORRES | ARRASATE**  
Orain dela 28 urte hartu zuen Antonio Murillok (Arrasate, 1963) Kajoi tabernaren ardura, eta geroztik gogor egin du lan. Bizitza osoa barraren barruan eman duen arren, elektronika ikasi zuen gaztetan, eta argazkilaritza ere gustatzen zaio.  
**Antonio Murillo zelakoa da?**  
Ez zaizkit etiketak gustatzen, baina esango nuke asko hitz egin eta hanka askotan sartzen duten pertsona horietakoa naizela.  
**Zein harreman daukazu sukaldearekin?**  
Gustura ibiltzen naiz sukaldean, baina emazteak nik baino esku hobea du eta hark esandakoari egiten diot kasu.  
**Zein da zure espezialitatea?**  
Bakailaoa. Pil-pilean eta ajoarriero erara prestatzen dut **Zertara gonbidatuko zenuke lagun on bat?**  
Bakailaoa nirekin batera prestatzera. Sukaldea oso leku intimoa da eta ez dago hitz egiteko inguru hoberik.  
**Eta etsairik handiena zertara?**  
Ardo batera. 51 urtean ez dut ardo batera gonbida ezin dezakedan pertsonarik ezagutu.  
**Zeinekin gustatuko litzazuke mahaia ren bueltan esertzea?**

Familiarekin. Guretzat otorduak oso momentu bereziak dira, batez ere bazkalosteak.  
**Zergatik tabernari?**  
Betidanik gustatu izan zait jendearekin tratua izatea eta txikitatik erakarri izan nau tabernariaren lanak. Batzuek topo egiten dute euren lanbidearekin. Nik bilatu egin nuen.  
**Barraren zein alde duzu nahiago?**  
Barrualdea. Dudarik gabe.

AUKERAN...



LAGASTROTECA.ES

**Lehen platera:** Foie-a.

**Bigarrena:** Bisigua.

**Postrea:** Hostopila izozkiarekin.

**Edatekoa:** El Puntido ardo botila bat.

**Zergatik?**  
Barrualdetik dena ikusi eta entzuten da, eta dena duzu kontrolpean. Gainera, jendea hobeto ezagutze-ko aukera ematen du.  
**Zer eman dizu ostalaritzak?**  
Bizitza ulertzeko modu bat eman dit. Ez nuke nire lanbidea beste batengatik inolaz ere aldatuko.  
**Zein beste tabernatan egingo zenuke lan gustura?**  
Upategi arduradun izango nintzateke, edozein tabernatan.  
**Kontsumo ohiturak aldatu dira?**  
Erabat. Lehen jendeak kalitatea eskatzen zuen, eta orain kantitatea da garrantzitsua. Pena da, tabernak bizitzaren onenaz gozatzeko tokiak baitira.  
**Etorkizunean, zer?**  
Jubilatu arte tabernan lan egitea gustatuko litzaidake, tabernari gisa ez bada, logistika arloan.  
**Iratxoek hiru desio betetzeko aukera eman dizute...**  
Niretzat eta ingurukoentzat bizi-modu on bat eskatuko nuke, ez dut gehiago behar.  
**Zure bizitzako anekdota bat?**  
Esku artean izan nuen lehen argazki kamera anaiari oparitu zioten jaunartzean, baina berak ez zion kasurik egiten eta nik erabiltzen nuen. Hortik dator kit argazkilaritzarako afizioa.



Antonio Murillo, Kajoi tabernan. | MAIALEN TORRES

"51 urtean ez dut ardo batera gonbida ezin dezakedan pertsonarik ezagutu"

**Ostalaritzan zer da ezinbestekoa?**  
Lan egin nahi izatea. Norberak bere aldetik zerbait jarri behar du beti, eta jende asko ez dago prest horretarako.  
**Damu zara..**  
Milioi bat gauza aldatuko nituzke, baina uste dut garrantzitsue-  
nean asmatu dudala: emaztea, familia, lanbidea...

**Zer errepikatuko zenuke?**  
Berriz ezkonduko nintzateke nire emaztearekin..  
**Zerk beldurtzen zaitu?**  
Gaixotasunak.  
**Lanetik etxera iritsi berri, zer egiten duzu?**  
Lehenengo sofara egiten dut sal-  
to, eta gero geroakoak. Egun gogor  
baten ostean deskonektatzeko  
modurik onena da.  
**Nora egingo zenuke ospa?**  
Kubako edozein txokotara joan-  
go nintzateke gustura.  
**Ze aholku konpartituko zenuke?**  
Prest egon behar da zoriontsu  
izateko, eta norberaren zoriona  
izan behar da helburu, gainon-  
tzekoenari begira egon gabe.

PATRIZIAREN GUTIZIA



Patrizia Vitelli

AITAITAREN GARBANTZUAK

Nire aitaitak ez du inoiz onar-  
tuko (beste ezeren gainetik  
izugarri maite naudelako)  
hemen aurkezten ditudan erre-  
zeta gehienak bigunkeria hutsa  
iruditzen zaiola. Lapikoan bor-bor  
egosten diren platerak ditu Gus-  
tuko: lekaleak eta halakoak; edo  
labean erretako arrain eder bat;  
okela saltsan...; etxean egindako  
betiko postreak! Ikusi ere ez ditu  
nahi pateak, hostopilak, pastak,  
cupcake delakoak..., eta beste  
mila berezitasun probatzeko egi-  
ten dizkiodanak sukaldean dihar-  
dudanean.  
Gizajoak esaten dit: "Sorgina  
halakoa, badakizu halakoak ez  
ditudala gustuko, baina horren  
ondo ateratzen zaizu dena...". Eta,  
egia da, oso ohikoa edo naturaren  
aurkakoa izan daiteke behin pre-  
statu nion sandiarekin egindako



Neguan ez ezik, edozein sasoitan jateko moduko garbantzua. | PATRIZIA VITELLI

gazpatxoak. Jatetxe baten atera  
izan baliote...

**Astebete aitaitarekin**  
Duela gutxi, astebete igaro nuen  
aitaitarekin etxean eta erakutsi  
zizkidan egiten dituen errezeta  
batzuk. Paella, oilaskoa pepitoria

saltsarekin, menestra, leka-pata-  
tak, bakailaoa pil-pilean eta fami-  
liaren marka diren garbantzua  
hauek. Hummus-a eta hanburge-  
satxoak garbantzuekin eginak  
nituen (txepelkeriak aitaitaren  
ustez), baina inoiz ez ganorazko  
gisaturik.

Fitxa

- Denbora: 90 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★

OSAGAIK ( 4 PERTSONARENDAKO)

- Garbantzua sikuak, 300 g.
- Arroz eskukada bat g.
- Berakatz ale 2 g.
- Kipula 1.
- Porru 1.
- Piper berde italiar 1.
- Piper gorria, 1/4.
- Piperrauts pikante koilarakada 1.
- Txorizo 1.
- Urdai zati bat, takotan.
- Etxeko tomateak, koilarakada 2.
- Laurel hosto bat.
- Irin koilarakada 1.
- Okela-salda, 500 g.
- Olioak, gatza eta piperrauts beltza.

Prestaketa

1. Garbantzua beratzen laga bezperatik (gutxienez 12 orduz).
2. Txorizoarekin, urdaiarekin, berakatzarekin, olioarekin, gatza-rekin eta laurel hosto batekin, azkar egosteko presio-eltze baten 15-20 minutuz egosi. Bitartean, barazki guztia txikitu (kipula, porrua eta piperrak) eta apur bat erre oliotan.
3. 20 minutu egosten eduki ostean, tomateak bota eta beste 15 minutuan eduki.
4. Sutatik atera eta olioak hozten denean (bestela erre egingo da), irin eta piperrauts pikante koilaratxoak bota. Egurrezko koilararekin ondo eragin osagai guztiak ondo nahasteko.
5. Presio-eltzeko denbora amaitutakoan, garbantzua, laurela, txorizoa, urdaia eta berakatzak, barazkiak erre ditugun lapikora bota. Etxean egindako okela-saltsaren estali, arroz apur bat bota eta egosten laga.



# Teklatudun telefono handia da BlackBerryren apustua

Aurkeztu berri duten gailua hordago handia egiteko azken aukera dukete

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Garai onenak aspaldi igarota, BlackBerryk oraindik ere bere txokoa berreskuratu gura du. Enpresen munduan duen itzala eta erabiltzaile finetan dute begirada ezarria. Apustu berria Passport da: neurri handiko phablet-a, teklatu fisiko eta guzti.

BlackBerryko CEO bezala ardurak hartu bezain laster aldaketa handiak iragarri zituen John Chen-ek. Oparoladia aspaldi atzean lagata zeukan konpainiari hauspo berria eman eta berpiztea zen haren egiteko behinena. Finantzetan saneamendua egin eta gero, merkatua du orain erronka nagusi Kanadako enpresak, eta, horretarako, apustu handi eta harrigarri batekin dator: Passport mugikorra.

BlackBerry 10 modeloarekin berandu iritsi ziren eta Z10 eta Z30 modeloek salmenta gutxi izan baina iritzi bikainak jaso eta gero, hil edo bizikoa izango da apustu berriaren emaitza. BlackBerryk, halere, oso erabiltzaile leialak dauzka.



Passport BlackBerry berria. | GOOGLE

## Enpresara begira

Merkatuan destakatzeko, behintzat, lortuko du BlackBerryren berriena, neurri handiko telefonoa baita, eta teklatu fisikoa dauka, atzean geratzen ez diren ezaugarri teknikoekin, noski. Modelo honekin ere enpresen merkatuan gotortzea da helburua. Teklatuaz gain, gailu berriaren itxura erabat karratua da deigarriena, oso bereizgarria, gainera.

## iPhone 6a, agian bihar

Bien bitartean, Apple ez dago geldia. Aurkezpen handia dauka iragarrita biharko eta espero dena da ekitaldi arranditsu baten iPhone 6a aurkeztea. Hedabideei bidaltako oharrean ez da zehazten zein produktu aurkeztuko duten, baina, Appleren ohiko egutegiari kasu eginez gero, ia ziurra da telefonoaren belaunaldi berria aurkeztuko dutela. Ezustekoei leku egitekotan, baliteke azkenean Applek bere erloju adimendua erakustea, *iWatch* delakoa, alegia. Ohi bezala, informazio filtrazioak eta aurrerapean egon dira eta dagoeneko jakintzat ematen dira bihar aurkeztetokotan leudeken telefono berriaren ezaugarri asko. iPhone 6a bi pantaila neurritan etorriko litzateke, eremu txikiko NFC sare teknologia ekarriko luke lehen aldiz, pantaila zafirozkoa da eta telefonoaren flasha borobila izango da, besteak beste. iPhone berriarekin batera sistema eragilearen eguneraketa ere etorriko da, noski; jada garatzaileentzat eskuragarri.



ALT1040

## Windows berriaren logo berria

Udazkeneko nobedade nagusietako bat Windows sistema eragilearen bertsio berria da. Diotenez, mugari izango da azken hori, azken bertsioetako porrot sonatuak gainditzeko asmotan sortutakoa. Bada, ezagutu da jada sistemak izango duen logotipoa, eta, leihoak alde batera utzita, karratuz osatutako bederatzi zenbakia izango du irudi.

## Analitikak eskuratzen dizkie erabiltzaile guztiei Twitterrek

Twitterrek erabiltzaile guztiei euren txioen hedapen eta estatistiken berri ematen die. Orain arteko kontu komertzialek izan dituzten aukerak batzuk doan eskaintzen die kontu guztiei Twitterrek. Betiere, 28 eguneko denbora-tartearen barruan.

## Applek ukatu egin du iCloud-en kontrako ustezko erasoaldia

Zenbait pertsonaia famaturen argazki intimoak lainotik lapurtu eta sarean azaleratu eta gero, zurrumurrua zabaldu da iCloud-en kontrako erasoaldi handi baten ondorioz gertatu dela guztia. Halakorik ukatu egin dute Applek, argazkiak ez zirela beraiei entzik lapurtuak izan.

# PuntuEus irail erdian hasiko da eskaera berriak jasotzen

Irail eta abendu bitartean edonork eskatu ahalko du '.eus' domeinu izendapena, baldintzak beteta

J.B. | ARRASATWE

Fase berriari lantalde berriarekin ekingo dio PuntuEus Fundazioak aurrerantzean. Josu Waliño Pizarro (Zumaia, 1972) izango da egitasmoaren zuzendaria. Eleka Ingeniaritza Linguistikoa enpresaren sortzailea da Waliño eta Elhuyar Fundazioko Berrikuntza eta Proiektuen zuzendari eta zuzendaritzako kide da. Haren alboan komunikazio arduradun gisara jardungo du Lorea Ara-

kistain Aizpirik. Hala, Iratxe Esnaola Arrillagaren lekua hartuko dute Waliñok eta Arakistainek. Proiektuaren bultzatzaile izan den Esnaolak abenduan lagako du PuntuEus.

## Abenduan, gehiago

Euskal domeinuaren zabalkundearen garapenari dagokionez, fase berriari ekingo dio Fundazioak aurki. ICANN erakundearen baimena lortu eta gero, Goie-



Arakistain, Waliño eta Esnaola. | PUNTUEUS FUNDAZIOA

na barne dagoen Aitzindarien Talde delakoen webgunean .eus domeinuarekin, abian dira. Fase berrian, Fundazioak zehaztutako baldintzak betetzen dituen edozein webgunek ahal izango du domei-

nu berria eskatu. Fase horri ekitoko eskaerak jasotzeko prozesua gertatzen dabil PuntuEus Fundazioa. Irailaren erdialdetik aurrera abiatuko da hurrengo fasea, zeinetan erakunde, enpresa, elkar-

te eta partikularrek domeinu-eskaria egiteko aukera izango duten. Horretarako, webgune bat jarri dute martxan: [www.domeinuak.eus](http://www.domeinuak.eus). Webgune horretatik egin eta bideratuko dira eskaerak, Fundazioaren esku.

Hemendik aurrera, PuntuEus proiektuak Interneteko domeinu horren ardura izango du: domeinuen erregistrarako eskariak jaso, domeinua erabiltzeko ezinbestekoak diren baldintzak betetzen direla ziurtatu, betetzen baditu erregistrarako baimenak eman; eta azkenik, erregistroa teknikoki mantentzen dela ziurtatuko du. Abenduaren 3an Fundazioak ezarritako baldintzen barruan dauden edozein webgunek hartu ahal izango du .eus domeinua eta, hain zuzen, hortik aurrera domeinua eskuragarri egongo da.

# Umeentzat moldatuko ditu webguneak Googlek

J.B. | ARRASATE

Helduentzako edukiak dituzten webguneetan ohikoa da sarbidean bertan adina eskatzen duen formulario bat bete behar izatea. Adingabeei sarbidea galarazteko neurria da, legez nahitaezkoa, baina haur batek gezurra esanda, sartzeko trabarik ez luke izango.

Hori dela eta, Google bere zerbitzuak moldatzekotan da. Txikien behar zehaztetara moldatu eta egokitutako webgune eta zerbitzuak eskaintzen hasiko da bilaketen handikia laster. Esate baterako, Youtube bideo zerbitzuaren bertsio egokitu baten hasi dira jada lanean. Zenbait

bideo galarazita egoteaz gain, gurasoek zuzenean kudeatuko lukete sema-alaben kontua. Plan teamendu berdintsua izango lukete Gmail postari eta Chrome nabigatzaileari dagokienez.

## Hazten jarraitzeko

Estrategia horrekin, sarbidea galarazi barik, nabigazioa mugatzea izango litzateke Googlaren helburua. Horrekin hazten jarraituko lukete, halako soluzioek geroago eta eskari handiagoa dute eta gurasoengandik.



Hiru ume, sarean nabigatzen. | GOOGLE



TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO

## Ai, ai, ai Mediaset

Azken hilabetean goiz eta arratsalde saskibalo​i mundiala etxean jokatz​en zela oihukatu ost​ean, badirudi Mediaset​ek ez duela saskibalo​iaren​dako toki aproposik eta ondorioz, hainbat partid​u ez dituzte zuzenean eskainiko. Egunotan bolo-bolo ibili da *#ascom​ediaset* traola eta ez zaio arrazoirik falta. Kirol ikuskizuna zuzenean ez ematea onartezina da!

Ez naiz saskibalo​i aditua, baina Vasilek hartutako erabakia ez zait bidezkoa iruditzen. Beste askotan bezala, arrazoi horren atzean dirua dago, eta *Salvame* saioak saskibalo​iak baino *share* handiagoa lortuko duenez... ba saskibalo​ia edozein ordutan eskainiko dute. Gaueko pitonisekin batera ematea aukera ona izan daitekeela uste dut nik behintzat.

Bien bitartean, Ana Rosa Quintana aurkezlea Gazara eroatea, eta bertatik programa bakarra egitea, errentagarria omen dela.

Quintana koitadua, bere plato zoragarriko argi eta makillaje ukituetatik urrun, benetan dituen 60 urtean nabari zaizkio. Ez da bidezkoa ez mundialaren ordutegia ezta Quintanaren makillaje eza ere, ez horixe!

| ASTEA GOIENAN                                                                                                       |                                                                                                                       |                                                                                                             |                                                                                                            |                                                                                                                                          |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| GOIENA TELEBISTA                                                                                                    |                                                                                                                       |                                                                                                             |                                                                                                            |                                                                                                                                          |
| ASTELEHENA, 8                                                                                                       | MARTITZENA, 9                                                                                                         | EGUAZTENA, 10                                                                                               | EGUENA, 11                                                                                                 | EGUBAKOITZA, 12                                                                                                                          |
|                                                                                                                     |                                                                                                                       |                                                                                                             |                                                                                                            |                                                                                                                                          |
| <b>'Harmailatik'</b>                                                                                                | <b>Arantzazuko Ama</b>                                                                                                | <b>'Harira'</b>                                                                                             | <b>'Amaia DJ'</b>                                                                                          | <b>'Berriak'</b>                                                                                                                         |
| Arrasate Hiria Torneoa, Jose Luis Agirreren omenezko futbol partidua eta Mikel Deuna saria, ikusgai.   <b>19:30</b> | Arantzazuko Ama Bir-jinaren egunean zehar gertatutakoak jasoko dira <i>Debagoiena zuzenean</i> saioan.   <b>20:00</b> | Kultura, Gazteria eta Kirol diputatua den Ikerne Badiola elkarriketatuko du Eneko Azkaratek.   <b>22:00</b> | Gazteek sare sozialen bitartez eskatutako modako kantuen bideoklipak eskainiko dira saioan.   <b>19:30</b> | Debagoien <span>​</span> ean egunean zehar izan diren albiste garrantzitsuenak jasoko dira albiste <span>​</span> gietan.   <b>14:30</b> |
| <b>12:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                                    | <b>12:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                                      | <b>12:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                            | <b>12:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                           | <b>12:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                                                         |
| <b>13:00</b> Erreportajea                                                                                           | <b>12:30</b> Harmailatik                                                                                              | <b>12:30</b> Erreportajea                                                                                   | <b>12:30</b> Harira                                                                                        | <b>12:30</b> Amaia DJ                                                                                                                    |
| <b>13:25</b> Zorion Agurrak                                                                                         | <b>13:00</b> Zestapunta                                                                                               | <b>13:00</b> Elkarriketa                                                                                    | <b>13:00</b> Erreportajea                                                                                  | <b>13:00</b> Artearen ibilbidea                                                                                                          |
| <b>13:30</b> Debagoiena zuzenean                                                                                    | <b>13:25</b> Zorion Agurrak                                                                                           | <b>13:30</b> Harmailatik                                                                                    | <b>13:30</b> Ur eta lur                                                                                    | <b>13:30</b> Erreportajea                                                                                                                |
| <b>14:30</b> Berriak                                                                                                | <b>14:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                                      | <b>13:55</b> Zorion Agurrak                                                                                 | <b>13:55</b> Zorion Agurrak                                                                                | <b>13:55</b> Zorion Agurrak                                                                                                              |
| <b>15:00</b> Kontzertua                                                                                             | <b>14:30</b> Berriak                                                                                                  | <b>14:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                            | <b>14:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                           | <b>14:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                                                         |
| <b>15:30</b> Onein                                                                                                  | <b>15:00</b> Harmailatik                                                                                              | <b>14:30</b> Berriak                                                                                        | <b>14:30</b> Berriak                                                                                       | <b>14:30</b> Berriak                                                                                                                     |
| <b>16:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                                    | <b>15:30</b> Onein                                                                                                    | <b>15:00</b> Udako ikastaroak                                                                               | <b>15:00</b> Harira                                                                                        | <b>15:00</b> Amaia DJ                                                                                                                    |
| <b>16:30</b> Berriak                                                                                                | <b>15:55</b> Zorion Agurrak                                                                                           | <b>15:30</b> Onein                                                                                          | <b>15:30</b> Onein                                                                                         | <b>15:30</b> Onein                                                                                                                       |
| <b>17:00</b> Udako ikastaroak                                                                                       | <b>16:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                                      | <b>16:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                            | <b>16:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                           | <b>16:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                                                         |
| <b>17:30</b> Ur eta lur                                                                                             | <b>16:30</b> Berriak                                                                                                  | <b>16:30</b> Berriak                                                                                        | <b>16:30</b> Berriak                                                                                       | <b>16:30</b> Berriak                                                                                                                     |
| <b>18:00</b> Erreportajea                                                                                           | <b>17:00</b> Amaia DJ                                                                                                 | <b>17:00</b> Harmailatik                                                                                    | <b>17:00</b> Kontzertua                                                                                    | <b>17:00</b> Harira                                                                                                                      |
| <b>18:25</b> Zorion Agurrak                                                                                         | <b>17:30</b> Artearen ibilbidea                                                                                       | <b>17:30</b> Zestapunta                                                                                     | <b>17:30</b> Erreportajea                                                                                  | <b>17:30</b> Erreportajea                                                                                                                |
| <b>18:30</b> Berriak                                                                                                | <b>18:00</b> Erreportajea                                                                                             | <b>18:30</b> Berriak                                                                                        | <b>18:00</b> Harira                                                                                        | <b>18:00</b> Artearen ibilbidea                                                                                                          |
| <b>19:00</b> Kontzertua                                                                                             | <b>18:25</b> Zorion Agurrak                                                                                           | <b>19:00</b> Udako ikastaroak                                                                               | <b>18:30</b> Berriak                                                                                       | <b>18:30</b> Berriak                                                                                                                     |
| <b>19:30</b> Harmailatik                                                                                            | <b>18:30</b> Berriak                                                                                                  | <b>19:30</b> Harira                                                                                         | <b>19:00</b> Udako ikastaroak                                                                              | <b>19:00</b> Amaia DJ                                                                                                                    |
| <b>20:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                                    | <b>19:00</b> Harmailatik                                                                                              | <b>20:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                            | <b>19:30</b> Amaia DJ                                                                                      | <b>19:30</b> Jaiak: Debagoieneko jaiak                                                                                                   |
| <b>20:30</b> Berriak                                                                                                | <b>19:30</b> Udako ikastaroak                                                                                         | <b>20:30</b> Berriak                                                                                        | <b>20:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                           | <b>20:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                                                         |
| <b>21:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                                    | <b>20:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                                      | <b>21:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                            | <b>20:30</b> Berriak                                                                                       | <b>20:30</b> Berriak                                                                                                                     |
| <b>21:30</b> Berriak                                                                                                | <b>20:30</b> Berriak                                                                                                  | <b>21:30</b> Berriak                                                                                        | <b>21:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                           | <b>21:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                                                         |
| <b>22:00</b> Harmailatik                                                                                            | <b>21:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                                      | <b>22:00</b> Harira                                                                                         | <b>21:30</b> Berriak                                                                                       | <b>21:30</b> Berriak                                                                                                                     |
| <b>22:30</b> Debagoiena zuzenean                                                                                    | <b>21:30</b> Berriak                                                                                                  | <b>22:30</b> Debagoiena zuzenean                                                                            | <b>22:00</b> Amaia DJ                                                                                      | <b>22:00</b> Jaiak: Debagoieneko jaiak                                                                                                   |
| <b>23:00</b> Berriak                                                                                                | <b>22:00</b> Udako ikastaroak                                                                                         | <b>23:00</b> Berriak                                                                                        | <b>22:30</b> Debagoiena zuzenean                                                                           | <b>22:30</b> Debagoiena zuzenean                                                                                                         |
| <b>23:30</b> Kontzertua                                                                                             | <b>23:00</b> Berriak                                                                                                  | <b>23:30</b> Udako ikastaroak                                                                               | <b>23:00</b> Berriak                                                                                       | <b>23:00</b> Berriak                                                                                                                     |
| <b>00:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                                    | <b>23:30</b> Harmailatik                                                                                              | <b>00:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                            | <b>23:30</b> Harira                                                                                        | <b>23:30</b> Amaia DJ                                                                                                                    |
| <b>00:30</b> Berriak                                                                                                | <b>00:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                                      | <b>00:30</b> Berriak                                                                                        | <b>00:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                           | <b>00:00</b> Debagoiena zuzenean                                                                                                         |
|                                                                                                                     | <b>00:30</b> Berriak                                                                                                  |                                                                                                             | <b>00:30</b> Berriak                                                                                       | <b>00:30</b> Berriak                                                                                                                     |

ARRASATE IRRATIA

## Ardibidez izeneko mahai jolasa zozketatuko da

Zazpi urtetik gorako gaztetxoei zuzendutako Ardibidez izeneko mahai jokoa zozketatuko da egubakoitzean, Arrasate Irratian. Zozketan parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo bestela idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Animatu zozketan parte hartzera eta zorte on!

## Zapatuko Elkartasun Eguna hizpide izango da, eguaztenean

Elkartasun Eguna ospatuko da Arrasaten zapatuan, hilak 13, eta egitarauari buruzko xehetasunak eta eguna antolatzearen helburuak izango ditu berbeta gai 107.7ko uhinetan, bertako antolatzaileak. *Uda giroan* irratsaioan egingo zaio elkarriketa eguaztenean 11:00etan.

## Goienako Udako Argazki Lehiaketa berbeta gai, gaur

Goienak martxan duen Udako Argaki Lehiaketari buruz jardungo dira irratian Goienan argazkien bilduma egiten dabilen Jon Bereizibar kazetaria eta lehiaketan epaimahai-kide bezala dagoen KB photoestudioko Bibi Andueza. Gaur, astelehena, 11:00etan izango da elkarriketa, *Uda Giroan* irratsaioan.

# Leintz Gatzagako jai​ek eman dutena gaur, Goiena telebistan

'Debagoiena zuzenean' saioan ikusi ahal izango da 20:00etan, 21:00etan eta 22:30ean

**AMAIA TXINTXURRETA** | ARRASATE  
Egubakoitzean hasi zituzten Leintz Gatzagan Andramaixak eta ekin​tzaz betetako asteburua izan dute. Gaur, astelehena, ere izango dute zertaz gozatu herritarrek.

Goiena telebista, gainera, jaietan izan da hango giroa jasotzen eta aurtengo jai​ek eman dutena ikusi ahal izango da.

Egubakoitzean eman zioten hasiera jai​ei; etxafuego eta bonba japoniarrak jaurti zituzten, kanpai errepika ere egin zuten eta txalapartari​ek animatu zuten festen hasiera. Apar festarekin

gozatzeko aukera ere izan zuten etxeko txiki​enek.

Zapatuan, berriz, eguerdian Kiki, Koko eta Moko pailazoen ikuskizuna izan zen herrian eta arratsaldean bolo txapelketa egin zuten. Gauean, oster​a, herri afaria egin zuten.

Eta gaur, astelehena, besteak beste, herri kirolak izango dituzte eguerdian.

Ekitaldi horietan guztietan izan da festarik festa ibiltzen den Imanol Gallego kazetaria eta jasotakoaz disfrutatu ahal izango da telebistan gaur, astelehena,



Aurtengo Leintz Gatzagako jaietan, ondo pasatzen. | GOIENA

## Egubakoitzean 19:30ean eta 22:00etan saio berezia eskainiko da

*Debagoiena zuzenean* saioan 20:00etan, 21:00etan eta 22:30ean.

**Egubakoitzean saio berezia**  
Aurtengo jaien gaineko saio berezi bat ere eskainiko da Goiena

telebistan egubakoitzean 19:30ean eta 22:00etan. Bertan jaietan izan diren ekitaldiak eta herritarren elkarriketak modu zabalago batean ikusi ahal izango dira. Beraz, ez galdu Leintz Gatzagako jai​ei eskainitako saioa.



ZORION AGURRAK



**ARETXABALETA**  
**Intza Aiastui**  
Irailaren 11n, 7 urte.  
Zorionak, sorgintxo.  
Ondo-ondo pasatu zure urtebete egunian eta muxu potolo-potoloak familixa danaren eta, batez be, amaxoren partetik!



**OÑATI**  
**Oihan eta Kepa Cuesta Billar**  
Irailaren 11n, Oihanek 5 urte eta Kepak irailaren 12an, 3 urte. Zorionak bixoi eta ondo-ondo pasatu zuen egunak. Patxo handi bat danon partetik!



**OÑATI**  
**Ana Galfarsoro Lardizabal**  
Irailaren 10ean, urtebetez. Zorionak, amatxo. Ondo pasatu zure urtebetez eguna zure bi seme-alaba Manex eta Sararen partetik. Muxuak.



**OÑATI**  
**Izeia Ibabe Ayastuy**  
Irailaren 10ean, 10 urte. Zorionak, Izeia, Muxu bero bat eta oso ondo pasatu zure eguna. Maite zaitugu. Eta bide batez zorionak Liliri ere, bere lehenengo urtebetez. Muxuak.



**ARRASATE**  
**Jose Ramon Balerdi eta Aner Iriarte**  
Irailaren 9an, urtebetez. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen eguna eta jarraitu horrelakoak izaten! Familia guztia partetik.



**BERGARA**  
**Oier Garitano Agirre**  
Irailaren 8an, 3 urte. Zorionak, Oier. Patxo handi-handi bat etxeko partetik.



**ARETXABALETA**  
**Magali Lazpiur Eraña**  
Irailaren 8an, 4 urte. Zorionak, pizpirin! Mundialki pasatu zure egunien laguntxo eta familiakoen artean! Eta opari asko jaso! Muxu erraldoia zuretzat, printses!



**ARRASATE**  
**Yosune Ozaeta Jimenez**  
Irailaren 6an, urtebete. Zorionak, Yosune! Zure lehen urtebetez muxu pila bidaltzen dizkizugu Arrasate. Laister tiratuko dizugu belarritik goxo-goxo.



**ARRASATE**  
**Igortz Ramos Zumalde**  
Irailaren 6an, 10 urte. Zorionak, Igortz! Zure 10. urtebetez egunien primeran pasa dezazula. Patxo handi bat etxeko partetik. Urte on askotarako! Izadi eta Iraia.



**ARRASATE**  
**Izadi Elortondo Moraza**  
Irailaren 4an, 6 urte. Zorionak, Izadi! Sei urte bete dituzu. Muxu asko eta ondo pasatu. Etxeko partetik, zorionak!



**BERGARA**  
**Nora Agirrebeña Altuna**  
Irailaren 3an, 8 urte. Zorionak, Mari-Matraka! Muxu potolo bat danon partetik. Unairen, Jonen, Izarren, Aitorren, Juneren eta Haizearen partetik bereziki.



**OÑATI**  
**Mikel Bolinaga Martin**  
Irailaren 1ean, 9 urte. Zorionak, Mikel! Ondo-ondo pasatu zure urtebetez eguna eta gu arduratuko gara ospakizunaz! Muxu handi bat! Familixa.



**BERGARA**  
**Maddi Lamikiz Rementeria**  
Abuztuaren 29an, 6 urte. Zorionak, Maddi. Patxo handi bat etxeko danon eta, bereziki, Aimarren partetik!



**ARRASATE**  
**Iñaki Barrutiabengoa**  
Abuztuaren 27an, 29 urte. Zorionak, osaba! Ondo pasatu zure egunean eta hobeto astebukaeran surfean. Muxu potolo bat familiaren eta, bereziki, Ioneren partetik.



**ARRASATE**  
**Iraia Prol Barbero**  
Abuztuaren 27an, 4 urte. Zorionak, *printzesita*. Lau urte bete dituzu. Egun polita pasatu genuen familia eta laguntxoekin. Maite zaitugu. Patxo potoloa etxeko partetik.



**ARETXABALETA**  
**Ander Lana Martinez**  
Abuztuaren 27an, 4 urte. Zorionak, txapeldun. Muxu handi bat amaxoren eta aitatxoren partetik!



**BERGARA**  
**Unax Gallastegi Agirrezabal**  
Abuztuaren 25ean, 3 urte. Zorionak, *peton*! Mila patxo zuretzat eta handixena Amaiurrena.



**ARETXABALETA**  
**Aner Azpitarte**  
Abuztuaren 25ean, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Gure etxeko txikixak hiru urte bete ditu. Muxu handi bat etxeko danon partetik. Ondo pasatu oporretan, gutxi geratzen da-ta.



**ARRASATE**  
**Jon Aranzabal Vitoria**  
Abuztuaren 15ean, 7 urte. Zorionak eta marrubizko muxu pila bat etxeko danon partetik. Horrela jarraitu, txapeldun!



**ARRASATE**  
**Olaia Vitoria Herranz**  
Abuztuaren 12an, 2 urte. Gure printzesak bi urte bete ditu eta atzo bertan jaio zela emuten dau. Bi urte zoragarriek izen die. Muxu potolo pila geure printzesarentzat. Zorionak!



**ARETXABALETA**  
**Iker Lopez Fernandez**  
Abuztuaren 5ean, 7 urte. Zorionak, maitia! Dagoeneko zazpi urte! Muxu handi-handi bat etxeko denon partetik.



**BERGARA**  
**Xabat Unamuno Etxeberria**  
Abuztuaren 3an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat familia osoaren partetik. Ondo pasatu!



**BERGARA**  
**Jokin Askargorta**  
Abuztuaren 3an, 10 urte. Zorionak, Jokin! Oso ondo pasatu genuen zure urtebetez egunian. Oporrak be oso politak izan dira eta asko disfrutatu dogu zuekin. Muxu handi bat etxeko danon partetik!



**BERGARA**  
**Unax Barenetxea**  
Abuztuaren 3an, urtebete. Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu zure lehen urtebetez eguna! Etxeko terremoto txikixa handitzen doiala! Patxo potolo bat danon partetik, bihotza!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz *Goiena.eus* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetez-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko  
11:00ak arte  
jasotako zorion agurak  
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak  
hurrengo astean  
argitaratuko ditugu.



JAIOTAKOAK



Jare Ortuoste Carrero

Aretxabaleta 3,150 Kilo. Irailaren 2a. Gurasoak: Susana eta Garikotz. Argazkian, Jare ahizpa Eliaren altzoan.



Noa de Goñi Campos

Bergara 3,300 Kilo. Irailaren 4a. Gurasoak: Nerea eta Ritxar. Argazkian, Noa, amarekin.



Enare Irizar Urkia

Oñati 3,150 Kilo. Irailaren 5a. Gurasoak: Itsaso eta Oier. Argazkian, Enare, Sagrario, Patxi eta Itsaso.



Euken Iturria Agirre

Elorrio 3,350 Kilo. Irailaren 2a. Gurasoak: Nagore eta Joseba. Argazkian, Euken aitarekin eta amarekin.



Ayoub El Battie

Aretxabalet. Irailaren 1a. Gurasoak: Abdel Majed eta Oyafae. Argazkian, Ayoub txikia lotan.



Anne Kortabarria Aginagalde

Aramaio 3,570 Kilo. Irailaren 1a. Gurasoak: Aitziber eta Unai. Argazkian, Anne jaioberria sehaskan.



Endika Maiztegi Ugarte

Oñati 3,300 Kilo. Abuztuaren 30a. Gurasoak: Ione eta Mikel. Argazkian, Endika sehaskan lo.



Hodei Narbaiza Goikoetxea

Elgeta 3,190 Kilo. Abuztuaren 30a. Gurasoak: Maite eta Urko. Argazkian, Hodei txikia gurasoekin.



Leire Gonçalves Soares

Bergara 2,240 Kilo. Abuztuaren 29a. Gurasoak: Corina eta Miguel. Argazkian, Leire txikia adi-adi.



Maren Iglesias Asenjo

Arrasate 3,200 Kilo. Abuztuaren 29a. Gurasoak: Beatriz eta Mario. Argazkian, Maren, ama eta aita.



Garazi Estevez Valladolid

Arrasate 3,650 Kilo. Abuztuaren 28a. Gurasoak: Mari eta German. Argazkian, Garazi amatxorekin.

Guraso berriei EROSKI hipermerkatuaren partetik,

# zorionak!

Eroskik zuen lehen beharretarako,  
**OPARIA\***  
egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.

Musakola 11 ARRASATE  
Tel.: 943 71 10 30

Arrasateko hipermerkatua  
  
zurekin

\* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

## Jaio da!

**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENaren ordezkaritza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



## AI, ENE!

### Eguneko lehen kafea, eguzkiaren parekoa

Gaua eta Eguna izeneko taza honek badu berezitasun bat: eduki beroa botatzean, planeta egunez agertzen da; bestela, gauez. [www.quelovendan.com](http://www.quelovendan.com)



## ASTEKO DATUA

# 31.500

MILIOI EURO

Congreso en Foco aldizkariaren arabera, horixe kostatuko dute Brasilgo hauteskundeek. 25.000 hautagaiek gastatuko dutenarekin,

sei urtetan finantzatu ahalko litza-teke Beca Familia, herrialdeko gizarte programa nagusia. [www.elmundo.es](http://www.elmundo.es)

## EGURALDIA



Max. 27°

Min. 17°

Ekaitz giroarekin bustitzeko aukera handiagoa izango da arratsaldean eta gauean. [euskalmet.net](http://euskalmet.net)

## ASTELEHENKOA

# goiena

2014-09-08

## HAMARREKOA

**Txomin Perurena** Txirrindulari profesional moduan egindako hamalau urtetan, 158 aldiz izan zen lasterketako azkarrena. Egun, hedabideetako lanari esker, txirrindularitzari lotuta jarraitzen du | **TXOMIN MADINA**

## "Bizikleta bakarra neukan, eta lagun bati eman nion"

**1. Amaren tabernan lanik ez egiteko hasi omen zinen txirrindularitzan...**

Hamaika urterekin Oiartzundik Astigarragako Bentetara joan ginen, eta han taberna bat geneukan. Erosketetarako eta ondoko herrietara joateko, bizikletan ibili behar genuen, eta hor hasi nintzen.

**2. Guztien artean, zein garaipen izan zen lortzeko zailena?**

Ez lehen eta ez orain, inork ez du ezer ere oparitzen. Gehiago edo gutxiago, beti izaten da zaila irabaztea; baita txikitik txapekin jolasten genuenean ere.

**3. Zein da gaur egungo eta garai bateko pelotoiaren arteko alderik handiena?**

Alde batetik, prestakuntza: gaur egun askoz hobeto kontrolatzen da, bakoitzak bere prestatzaileak ditu. Materialak berak ere, aldaketa handia izan du.

**4. Nolakoa ari da izaten aurtengo txirrindularitza denboraldia?**

Itzuli handietan ikusi moduan, istripu askoko denboraldia izaten ari da. Vueltan ere, hainbatek etxerako bidea hartu behar izan dute eta horrek beti kentzen dio interesa lasterketari. Contadorri Santiagorako bidea asko erraztu dio.

**5. Kolore laranja bota dute askok faltan aurtengo pelotoian. Zuk?**

Noski, pena handia izan da. Baina pentsatu behar dugu enpresa bat zela, eta egungo egoeran, zoritxarrez, normala dela gertatutakoa.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

**"Ikasi duen horretan, edo balio duen horretan, lanpostu bat emango nioke bakoitzari"**

AGM

**6. Zenbat bizikleta dituzu etxean?**

Bizikleta bakarra neukan, eta lagun bati eman nion zeukan museo txikian jartzeko. Ez naiz bizikletan ibiltzen, hemengo errepideak arriskutsu xamarrek dira -eta. Orain oinez ibiltzen naiz: kirol sana eta merkea.

**7. Era batera edo bestera, bizi guztia txirrindularitzaren inguruan. Ez zaitu inoiz ere aspertu?**

Txirrindularitza utzi eta pare bat urtera ez da inor zutaz akordatzen. Baina zuzendari moduan ibilita, eta gero hedabideetan, jendea askoz gehiago gogoratzen da. Niretzat hori da zorterik handiena.

**8. Inbidiarik pasatzen duzu hedabideetan lasterketak komentatzean?**

Ez. Beti pentsatu izan dut profesional mailan hamalau denboraldi eman nituela, eta horrekin nahikoa eta sobera izan zela!

**9. Dopin kontuetan, zorrotzagoak gara txirrindularitzarekin beste kirolekin baino?**

Bai, gehien kontrolatzen den kirola da. Kirol denetan hainbeste kontrol pasako balira, ikusiko genuke zein den garbiena.

**10. Ze txirrindularik emango du zeresan handien datozen urteetan?**

Gazteek etorri behar dute: hor daude, esaterako, Fabio Aru eta Nairo Quintana. Baina oraindik ere Contador eta Froome bezalako beteranoak ibiliko dira goian.

## BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA



Bai-kortasunik-ez

**D**atorren urteko oportetarako gutxiago falta da. Zutabe hau burutzeko ere bai. Atzera begira hasita, konklusioa garbia da: arriskutsu bihur daiteke oportetara joatea.

Begiratu baino ez aurtengoetan zer ez den gertatu! Eta ez txantxetako kontuak: Israelen Palestinaren aurka burutu duen sarraskia, Herrikoen auzian kondena latza, bake plana motel, Ziburuko alkateak bertako ikastola itxi egin nahi du, abuztuan langabezia gehitu egin dela, Pujol inbertsioak dibertsifikatzen ari denon diruarekin, Gasteizen Marotok etorkinak kanpora bota nahi ditu, beste 28 gazteren aurkako epaiketa batez mehatxatu gaituzte, krisia frantziar gobernuan, Hollande jaunari Valls-a dantzatzea gustatzen omen zaio, Nazioarteko Diru Funtseko zuzendaria lapurretan, Zumarragako Arcelor-Mittal balantzaka, ebola indartzen ari Afrikako lau herrialdeetan. Eguraldia bera ere ez da portatu udara osoan; tomaterik ez, atuna ere eskas eta hondamendi hau burutzeko Barcelona berriro aurkezten dela hauteskundeetara!

Eskerrak baikor (hots, errealista) garen naturaz; izan ere, oraingoan UPNk ez du irabaziko, Eskozian eta Katalunyan independentistak nagusituko dira... Eta, gainera, gero eta gutxiago falta da hurrengo oportetarako.



# IXADEBALDE

**Aretxabaletako IX. merkealdi azoka**

**Irailak 13, zapatua. 10:00etatik 20:00etara Mitarte kalean.**

- Puzgarriak egun osoan zehar egongo dira.
- Arratsaldean jolasak izango dira umeentzako.

ANTOLATZAILEA:

LAGUNTZAILEAK



**Akorde Kioskoa**  
**Martin oinetakoak**  
**Amaia ume denda**  
**Brasileña akeita etxea**  
**Kilima**  
**Asensio**  
**Haurrak**  
**Gertu**  
**Belar Meta**  
**M5**  
**Titare**  
**U.D.A**  
**Zubia Oinetakoak**